


# Kooperatiba Fabrika:

Ekintzailtza sozial kooperatiboa  
eta ekonomia soziala Gipuzkoan  
sustatzeko programa

Formazioa eta ikerketa-  
sistematizazioaren atala



08 Entregagaia: Ikerketa txostena (Lurralde  
Burujaibeak eta udalgintza eraldatzailea)

**Amaiera Txostena**  
2020ko uztaila



# **LURRALDE BURUJABEAK ETA** **UDALGINTZA ERALDATZAILEA:**

## **EKONOMIA SOZIALAREN** **SUSTAPENERAKO LURRALDE ESTRATEGIAK**

### **Lanaren egileak**

**Enekoitz Etxezarreta Etxarri**

Ekonomia Aplikatua I Saila -

GEZKI-Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua (UPV-  
EHU)

**Jon Morandeira Arca**

Ekonomia finantzaria II-

GEZKI-Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua (UPV-  
EHU)

## **AURKIBIDEA**

### **0. SARRERA: KOOPFABRIKAREN KOKAPEN TEORIKOA**

#### **1. UDALGINTZA ERALDATZAILERAKO PROPOSAMENA: ATAL ANALITIKOA**

##### **1.1. EKONOMIA SOZIALA SUSTATZEKO POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA**

- 1.1.1. Ekonomia soziala eta tokiko garapena
- 1.1.2. Politika publiko moten analisia: politika leunak eta politika sendoak
- 1.1.3. Ekonomia soziala sustatzeko estrategia eta marko normatiboen bilakaeraren analisia
- 1.1.4. Bigarren belaunaldiko politikak: Udalgintza Eraldatzailea zirriborratzen

##### **1.2. EAEko POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA**

- 1.2.1. Maila autonomikoko neurriak: Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren esku hartze ereduaren analisia
- 1.2.2. Eskualde mailako neurriak: Garapen Agentzien esku hartze ereduaren analisia
- 1.2.3. Udal mailako neurriak: aplikazio aukeren eta inpaktuaren araberako lehenespen proposamena

##### **1.3. KATALUNIako POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA**

- 1.3.1. Ikuspegi orokorra: ESE sustatzeko neurrietatik, politika eraldatzaileetara.
- 1.3.2. ESS erakundearen eskaerak
- 1.3.3. Harturiko neurriak: XMESS sarea eta PIESS (Bartzelona)
- 1.3.4. Harturiko neurrien interpretazio analitikoa

**2. UDALGINTZA ERALDATZAILERAKO PROPOSAMENA: ATAL PROPOSITIBOA**

**2.1. ESKU HARTZE EREDUEN PROPOSAMENA**

2.1.1. Sarrera

2.1.2. Esku hartze maila ezberdinen gradazioa.

2.1.3. Esku hartze maila ezberdinen azalpena: ONGARRITU / ERABILI/ ERALDATU

**2.2. LURRALDE BURUJABETZA SEKTORIALEN PROPOSAMENA**

2.2.1. Sarrera

2.2.2. Etxebizitza-burujabetza

2.2.3. Energia-burujabetza

2.2.4. Elikadura-burujabetza

2.2.5. Burujabetza gizarte zerbitzuetan

**Erreferentzia bibliografikoak**

**Taula eta irudien aurkibidea**

Taula 1: Gizarte Ekonomiaren definizioa nazio kontabilitatearen arabera

Taula 2: Ekonomia sozialeko antolakundeak esku hartze publikoaren helburuen arabera

Taula 3: Ekonomia soziala sustatzeko politika publikoen tipologia nagusiak

Taula 4: Ekonomia sozialeko antolakundeak esku hartze publikoaren helburuen arabera

Taula 5: ESEE kategorizazioa politika publikoen tipologiaren arabera

Taula 6: XESen proposamena

Taula 7: Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioaren proposamena

Taula 8: Esperientzia Kooperatiboak/komunitarioak sustatzeko aukera ematen dezaketen tokiko zerbitzuak

Taula 9: Ekintza publikorako aukera gehiago dituzten sektore estrategikoak

Irudia 1: Ekonomia sozialeko erakundeen kokapen instituzionala

Irudia 2: Esku hartze ereduen eskema sinplifikatua



## **0. SARRERA: KOOPFABRIKAREN KOKAPEN TEORIKOA**

Koopfabrika ekintzailletza sozial eta kooperatiboa sustatzeko programa da, egitasmo berri bat martxan jarri nahi duten talde eta norbanakoei prestakuntza teoriko eta praktikoa eta giza akonpainamendu iraunkorra eskaintzen diena.

Ekintzailletza berri horiek Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) paradigmara hurreratzen joatea da programaren oinarritzko helburuetako bat, eta horren lekuko da 2018-2019ko ikasturtean diseinaturiko adierazle sistemaren egitasmoa, zeinetan jasoa geratzen baita egitasmo horiek ESE proposamenera gerturatzen laguntzeko kontuan hartu beharreko aldagaien zerrenda osatu bat.

Programak, halaber, badu hastapenetik bilatu izan duen epe ertain-luzeko asmo bat: ekintzailletza berri horiek lurralde konkretuen beharrianak asetzera lerrokatzea, hain zuzen ere. Beste zenbait herrialdetan ikusitako eredu ezberdinak buruan izanik, Frantziako Lankidetzako Ekonomikorako Lurralde Poloak edota Marseilan bertatik bertara ezaguturiko Ekimenen Fabrika, besteak beste, helburua ekintzailletza induzitu moduko bat bideratzea ere izango litzateke, hau da, lurraldeko beharrianen diagnostiko batetik abiatuz, beharrian horiek asetzeko ekintzaileen bilaketa bat gauzatzea, edo programan sartzen diren egitasmoak beharrian horiekin uztartzea, azken batean.

Modu honetan, Koopfabrika ekintzailletzara bideraturiko programa izateaz batera, lurralde ezberdinetako tokiko garapenean modu propioan eragin nahi lukeen dispositibo gisa ere hautematen dugu bertan parte hartzen dugun eragile ezberdinok. Eta tokiko garapenaren inguruko kokapen propioaz ari garenean, funtsean, estrategia tradizionalak izan duten ikuspegi neoliberalaren kontrapisu moduko bat ezarri nahian planteatzen da gure eredu, tokiko garapen eraldatzaile gisa deitzen duguna.

Tokiko garapen neoliberalaren estrategia ohikoenak kanpoko inbertsioak erakartzeko lurralde abantailak eskaintzean oinarritu izan dira, dela fiskalitate abantailatsuago batekin, dela giza baliabide lehiakorragoekin, gaitasun handiko azpiegitura sareekin, I+G+i sare garatuetara txertatuz, etab...Funtsean, helburua kanpo inbertitzaileen kapital metaketarako baldintzarik egokienak eskaintzean finkatu izan

da, sarri askotan aurreikusitakoa baino erabilpen murriztagoa izan duten azpiegitura erraldoiak eraikiz (apenas erabilitako pabilioi industrialak, garraio sareak, etab.).

Gaur egun, maila akademiko zein politikoan ordea, tokiko garapenaren ikuspegi tradizional hori auzitan jarri da goitik behera, sakoneko berrikuspen bat egiten baitzaio estrategia honek lurraldeari egiten dion benetako ekarpenari. Ez kapital soziala areagotzeari dagokionez, ez baliabide endogenoak aktibatzeke duen gaitasunagatik, ez ehun industrial eta komunitarioari egiten dion ekarpenagatik, eta ezta baliabide publikoen bitartez egindako inbertsio esfortzuaren itzulketa mailari dagokionean ere, tokiko garapen eredu honen ekarpena ez da aurreikusi bezalakoa izaten ari.

Tokiko garapenaren estrategien berrikuspenak lurraldean oinarrituriko planteamenduen alde lerratzen ari dira azkenaldian. Lurraldearen baliabide endogenoak aktibatzea litzateke prisma berriaren ardatza, lurraldea inbertsio edukiontzia bat izatetik aberastasun sortzaile eta eragile aktibo izatera pasaz. Lurraldeen balizko abantaila konpetitibo hori kapital sozialaren kontzeptuan fokatzen da, zeina lurraldeko eragile ezberdinen arteko konfiantzazko harremanen sendotzean eta lankidetzan sareen ugaltzean gauzatuko baita.

Nozio berri honen baitan, ekonomia sozialeko eragileen protagonismo berri baterako aukerak zabaltzen dira parez pare, eredu ekonomiko alternatibo honen baitan antolatzen diren egitasmo sozioekonomikoek agertzen baitute kapital sozial gehien garatzeko gaitasuna, besteak beste bultzatzen dituzten balioen ondorioz: lankidetzak, elkartasuna, berdintasuna, justizia ekonomikoa, demokrazia, etab.

Koopfabrikatik, ordea, ekonomia sozial eraldatzailearen paradigman sakondu nahi dugunez, ekonomia soziala ez dugu ulertzen garapen (neoliberal) a modu orekatu, sustraitu eta jasangarriagoan bideratu ahal izateko tresna gisa. Aitzitik, ekonomia soziala eraldaketa sozioekonomikorako tresna den neurrian, eraldaketa horren lortzean jartzen dugu. Eta eraldaketa honen ipar filosofiko zein politikoa, "bizitzaren iraunkortasuna" deituriko proposamenean oinarritzen da.

Ikuspegi honen arabera, tokiko garapena bizitza sostengatzen duten jarduerak produktibo zein erreproduktiboak indartzera bideratu behar litzateke, baina ez edozein moduz: jarduerak horietan herritarrek kontrola berreskuratzea litzateke paradigma berri honen funtsa. Beste hitzez esanda: bizitzaren erreproduktiorako beharrezkoak diren jarduerak modu autoeratu, kolektibo eta komunitarioan kudeatzea litzateke iparra, beharrianak bizi dituzten komunitate eta pertsonak beharrian

horiek asetzeko ahaldunduz, protagonista aktibo bihurtuz, egitasmo horien jabe eginez.

Modu honetan eraikitzen da, beraz, "Lurralde Burujabe" gisa izendatzen dugun lurralde estrategia: helburu nagusia lurraldearen beharrezanean erantzungo dien jendarte eta garapen eredu bat sustatzea litzateke, kapital metaketan baino bizitzaren sostenguan oinarrituko dena, eta bitarteko (eta helburu) gisa pertsona eta komunitateen ahalduntzea bilatuko duena, horiek eurei eragiten dieten egitasmo sozioekonomikoen benetako jabe eta protagonista bilakatuz.

Koopfabrikatik, hortaz, gure egitasmoa Lurralde Burujabeetara gerturatzen joateko dispositibo gisa ulerturik, bi ekintza ildo nagusi finkatzen ditugu epe ertain batean garatu ahal izateko: udalgintza eraldatzaile baterako oinarriak proposatzea alde batetik, eta burujabetza sektorialetan egitasmo erreferentzialak garatzea, bestalde. Bi helburu nagusi horiei erantzungo die jarraian garatzen dugun ikerketa lanak.

Izan ere, "Tokiko Garapen Eraldatzaile" gisa izendatzen dugun proposamena hiru egituratze maila ezberdinen gorpuzten da, maila mikro, meso eta makroan.

Maila mikro batean, enpresa eta erakunde sozioekonomikoen mailan, hain zuzen ere, egitasmoak eredu kooperatibo eraldatzaileetara gerturatzeko mekanismoak garatzen joatea da helburua, nagusiki eraikitako adierazle sisteman jasotako bost helburu estrategikoetan indar eginez: i) lanaren burujabetza; ii) ekintzaitza kolektiboa; iii) lurraldea eta gizarte eraldaketa; iv) bizitzaren iraunkortasuna (ikuspegi ekologiko zein feministatik), eta; v) iraunkortasun ekonomikoa.

Maila meso batean berriz, ekosistema kooperatiboak artikulatzen joatea da helburu estrategiko nagusia, balio kateetako fase guztiak ESE egituren bitartez hornitu ahal izatea izanik azken xedea. Horretarako funtsezko mekanismo eta praktikak dira lankidetzak edo interkooperazioan, funts eta ezagutzen mutualizazioan, elkartrukean eta elkar laguntzan oinarrituriko guztiak.

Azken maila batean, makro, lurraldeko eragile sozio-ekonomiko ezberdinak ESEko erakundeekin saretzea litzateke hirugarren egituratze maila bat, gobernantza publiko-kooperatibo-komunitarioko eredu-erantzuzko. Tokiko garapenerako egitasmo ezberdinetan erakunde publiko, kooperatibo/enpresarial eta komunitarioak uztartzea litzateke helburua, horien arteko osagarritasuna bilatuz nagusiki termino hauexetan: izaera edo jabego publikoko ondasun eta zerbitzuen atzidura unibertsala

ahalbidetzea, planifikazio komunitario baten bitartez eta zerbitzuaren kudeaketa kooperatiboan oinarri hartuz.

Kasuan kasu, ondasun eta zerbitzu ezberdinen arabera, jabego egiturak izan litezke publikoagoak edo komunitarioagoak, beti ere horien atzidura unibertsala bermatuko duten formula eraginkorrenak planteatuz. Baina, dena dela ere jabego egitura nagusia, guztietan bilatu behar lirateke kudeaketa partekaturako mekanismoak, esan bezala, jendarte eredu honen oinarrizko abiapuntua baita pertsonak eta komunitateak ahaldunduko dituzten gizarte egitasmoak abiaraztea.

Lurralde egituratze mekanismo horietan sakondu ahal izateko, beraz, garatzen ditugu jarraian landuko diren bi proposamen teorikoak:

- Alde batetik, Udalgintza Eraldatzaileko proposamena garatuko da, lurraldeetan tokiko esparrutik ekonomia sozialeko erakundeak sustatzeko planteatu litezke esku hartze eredu nagusien proposamen eginez.
- Bestalde, Burujabetza sektorialen proposamena xehatuko da, gure iritzian bizitzaren sostengarritasuna bermatzeko estrategikoak diren lau esparrutan ekimen eraldatzaileak abian jartzeko dauden aukera eta potentzialtasunen lanketa espezifikoa eginez: etxebizitza, gizarte zerbitzuak, elikadura, eta energia.

Lan hau garatzeko baliaturiko metodologiaren inguruan hitz bi, azkenik, sarrera hau amaitzeko.

Lanaren zatirik gehienak UPV/EHUko ikerketa taldeak azken urteetan garaturiko azterlan ezberdinetatik abiatuta emaitzak jasotzen ditu, politika publikoen analisiari dagokionean, hain zuzen ere. Marko teorikoa zein EAEko eta Kataluniako kasuen azterketa, hortaz, azken urteetan jorraturiko ikerketa lerro baten fruituak dira. EAEko garapen agentzien inguruko hausnarketak, berriz, lanaren egileok egun indarrean ditugun beste ikerketa proiektu batzuetatik elikaturiko ondorio nagusien berreskuratzean oinarritzen dira. Atal propositiboaren eraikuntzan aldiz, garrantzia berezia izan dute lan honetarako ekarpen kualitatiboa egin diguten adituen ikuspegiek, bai hiru ereduaren kategorizazioa eraikitzeke, baita neurri konkretuen zerrenda osatzen laguntzeko ere.

Bihoazkie aldeaz aurretik gure eskerrik onenak, beraz, lan honetan parte hartu nahi izan duten ikerlari eta kolektibo guztiei.

## 1. UDALGINTZA ERALDATZAILERAKO PROPOSAMENA : ATAL ANALITIKOA

### 1.1.1. EKONOMIA SOZIALA SUSTATZEKO POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA

Jarraian garatzen dugun atalean ekonomia sozialeko erakundeak sustatzeko politika publikoen esparrutik azken lau hamarkadatan agertu diren ikuspegi eta estrategien bilakaeraren gainbegirada orokorra egin nahi da.

#### 1.1.1.1. Ekonomia soziala eta tokiko garapena

Aurrez, ordea, labur bada ere komenigarria litzateke txosten honen abiapuntua ezartzeko, zehatz adieraztea zein enpresa motak osatzen duten ekonomia sozialaren unibertso osoa, eta zein motatako ekarpena egiten dieten horietako bakoitzak tokiko garapenaren esparru ezberdinei.

Ekonomia soziala osatzen duten erakunde moten zerrenda egiteko, OVES/GEEB behatokitik proposatzen den sailkapen akademikoa joko dugu ontzat. Hona, erakunde honek ezartzen duen ekonomia sozialeko erakundeen sailkapena:

*Taula 1: Gizarte Ekonomiaren definizioa nazio kontabilitatearen arabera*

<b>Enpresa azpisektorea edo merkatuko azpisektorea</b>	<b>Enpresa ez finantzarioak</b>	<b>Kooperatibak Lan sozietateak Enplegu zentro bereziak Laneratzeko enpresak Arrantzale kofradiak Nekazaritzako eraldakuntza baltzuak Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkartek, fundazioak eta sozietateak)</b>
	Finantza entitatea	Kreditu kooperatibak Gizarte aurreikuspen mutualitateak Gizarte ekonomiako enpresen elkarrekiko berme sozietateak
<b>Merkatukoak ez diren ekoizleen azpisektorea</b>	Gizarte ekintzako Elkartek Gizarte ekintzako Fundazioak Etheen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk	

Iturria: OVES/GEEB

Ekonomia soziala, modu honetan, nazio kontabilitateak ezarritako sailkapenari doitu, bi azpisektorek osatzen duten enpresa multzo gisa definitua geratzen da, eta forma juridikoen katalogoari erreparatuz gero, lau familia nagusik osatuko lukete: kooperatibek, lan elkarteek, laneratze enpresek eta enplegu zentro bereziek.

Lau horiez gain, bestelako formula juridiko batzuk ere barnebiltzen dira unibertso honen baitan, besteak beste elkarte, fundazio, gizarte aurreikuspen mutualitateak, arrantzale kofradiak, etab. nahiz eta horien identifikazio maila ekonomia sozialarekin nahikoa apala izan, Euskal Herri mailan bederen.

Ekonomia soziala, hortaz, bi logika nagusitan sustraituriko enpresa ereduak osatzen dute: alde batetik, lanaren burujabetzan oinarritzen diren kooperatiba eta lan elkarteak, non kapitalaren gehiengoa langile edo bazkide-langileen esku izatea bermatzen den; eta, bestalde, gizarte eta lan integraziorako formulak leudeke, laneratze enpresek eta enplegu zentro bereziek osatzen dutena, zeinen helburu nagusia baita lan munduan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten gizarte kolektibo zaurgarrienei lan aukerak eskaintzea.

Ekonomia sozialeko erakundeen analisia formula juridikoen arabera edo gizarte helburuaren arabera egiteaz batera, tokiko garapenaren ikuspegitik egitea ere badago. García Jané autoreak (2014) proposatzen analisi eskemari jarraiki, ekonomia sozialeko erakundeen artean tokiko garapenerako tresna edo funtzionaltasun ezberdinak betetzen dituzten erakundeak agertzen dira, besteak beste honako esparruetan:

- Enplegua sortzeko tresnak: horien artean identifikatzen ditu ekintzaile kooperatibak, transformazio kooperatiboko prozesuak izan dituzten merkatal enpresak, hezkuntza kooperatibak, etab.
- Egitasmoak finantzatzeko tresnak: horien artean finantza etikoei loturiko banka edo bestelako finantza zerbitzuak (Fiare, Koop 57, Oikokredit,...), kooperatibetan bazkide kolaboratzaile gisa diharduten herri erakundeak, titulu parte hartzaileak, elkarrekiko berme sozietateak, mikrofinantza egitasmoak, aurrezki solidarioko taldeak, etab.
- Eskaria sustatzeko tresnak: 2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legeak<sup>1</sup> sorturiko baldintza berriak leudeke, herri erakundeen kontratazio prozesuetan gizarte klausula edo merkatu erreserben bitartez balio konkretu batzuen

---

<sup>1</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2017-12902>

arabera diharduten enpresak positiboki diskriminatzeko, baina baita bestelako dinamika posible batzuk ere: *cashmob* dinamikak, tokiko moneten esperientziak, etab.

- Eskaintza hobetzeko tresnak: tokiko zerbitzuak kooperatiben bitartez eskaintzeko esperientziak, etiketa eko-sozialak, gertutasunezko ekonomiak, etab
- Ondasun publikoak sortzeko tresnak: bazter batera utzitako espazioen berreskurapen publikorako dinamikak, negozio pribatuen errekonbertsio publikoa, etab.
- Ondasun publikoak birbanatzeko tresnak: horien artean leudeke aurrekontu parte hartzaileen esperientziak, kasu.
- Aurrezki indibidual eta kolektiborako tresnak: denboraren bankuak edo kontsumo kolaboratiboaren logiketan diharduten egitasmoak.

Autore honen argudio lerroarekin jarraituz, ekonomia sozialeko erakundeak tokiko garapenerako "tresna kutxa" gisa hauteman litezke, lurraldeak behar dituen mota ezberdinetako baliabideak aktibatuz (ekintzazailtza, finantzazioa, eskaria, eskaintza, ondasun publikoen atzidura, etab) erakunde egokiak izan bide direlako.

Gure analisi eskeman ere modu bertsuan lerrokatuko ditugu ekonomia soziala sustatzeko esku hartze ereduak, helburuak, eta antolakuntza mota egokienak, jarraian garatzen dugun taulan jasotzen ditugun moduan:

*Taula 2: Ekonomia sozialeko antolakundeak esku hartze publikoaren helburuen arabera*

<b>Esku hartzearen helburu nagusia</b>	<b>Antolakuntza mota egokiena</b>
<b>1. Elkartegintza eta parte hartze herritarra bultzatzea</b>	Erabiltzaile elkarteak Erabiltzaile kooperatibak
<b>2. Jarduera ekonomikoaren kolektibiazioa</b>	Jarduera ekonomikodun elkarteak Lan elkarteak Lan elkartuko kooperatibak
<b>3. Jarduera ekonomikoaren bidezko gizarte integrazioa</b>	Gizarte ekimeneko kooperatibak Laneratze enpresak Enplegu zentro bereziak
<b>4. Lankidetzako publiko-kooperatibo-komunitarioko formulak</b>	Parte hartze publikodun kooperatiba integralak Fundazio publikoak

Iturria: geuk egina

Lehen sarrera honen bitartez, beraz, agerian geratzen den lehen ideia honako hauze litzateke: ekonomia soziala osatzen duten erakundeek, antolakuntza modu eta gizarte funtzio ezberdinei erantzuten dieten enpresa anitzak izanik, tokiko garapenak ager ditzakeen behar ezberdinei erantzuteko baliabide ezberdinen aktibazioan modu doituaren erantzun dezaketena "tresna kutxa" anitza osatzen dutela.

### 1.1.2. **Politika publiko moten analisisia: politika leunak eta politika sendoak**

Ekonomia soziala sustatzeko estrategia publikoen zein aplikazio eremuen analisiarekin batera, beharrezko ikusten dugu txosten honen oinarriak ezartzeko, politika publiko horien tipologia estandar bat proposatzea.

Horretarako, Rafael Chaves ikerlariak (2009, 2010, 2012) garaturiko eskema teorikoaz baliatuko gara, uste baitugu, aztertu asmo ditugun neurri ezberdinak barnebiltzen dituen eskema analitiko baliagarria dela. Jarraian aurkezten dugun taulan zehazten ditugu tipologia nagusiak:

*Taula 3: Ekonomia soziala sustatzeko politika publikoen tipologia nagusiak*

<b>Ekonomia sozialeko erakundeei bideraturiko politikak</b>		
ESKAINTZAREN ALDEKO POLITIKAK (erakundeen egituretara bideratuak)		
Neurri Instituzionalak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomia sozialaren aitortza eragile pribatu gisa</li> <li>• Ekonomia sozialaren gaitasun operatiboaren aitortza edozein jarduera ekonomikotan.</li> <li>• Ekonomia sozialaren aitortza eragile politiko gisa.</li> <li>• Ekonomia sozialaren sustapeneko erakunde publikoak</li> </ul>	<i>Soft politikak edo politika leunak</i>
Neurri kognitiboak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomia sozialaren hedapen, formazio eta ikerketa.</li> </ul>	<i>Politika leunak</i>
Neurri ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontu publikoak</li> <li>• Zerga politikak</li> <li>• Laguntza finantzariko bestelako neurriak.</li> <li>• Laguntza teknikoko neurriak</li> </ul>	<i>Hard politikak edo politika sendoak</i>
ESKARIAREN ALDEKO POLITIKAK (erakundeen jarduerara bideratuak)		
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri erakundeen hornitzaile izatea ahalbidetzeko neurriak</li> <li>• Ekonomia sozialarekin elkargo publiko-pribatuak ezartzeko aplikazio eta erregulazio neurriak</li> </ul>	<i>Politika sendoak</i>
<b>Ekonomia sozialeko erakundeetako enpleguari bideraturiko politikak</b>		

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekonomia sozialean enplegua sortu eta egonkortzeko laguntza neurriak</li> <li>• Ekonomia sozialean prestakuntza laguntzeko neurriak</li> <li>• Bestelako neurriak</li> </ul>	<i>Politika sendoak</i>
---	-------------------------

Iturria: geuk egina Chaves (2012) oinarri hartuz

Taulan jasotako esku hartze ereduak xehatuz gero, funtsean bi dira hasierako hurbilketak: ekonomia sozialeko erakundeengan zuzenki edo horien enpleguan zeharka eragiten duten enplegu politika orokorragoen bitartez ekin lekioke sustapen lan horri. Horretaz gain, izaera gogor edo leunagoko neurriak har litezke, eragite gaitasunaren arabera. Eta azkenik, ekonomia sozialeko erakundeengan zuzenki eragiteko bi modu hautematen dira: erakundeon egiturak indartuz, edo erakundeon jarduera bizkortzera bideraturiko neurriak hartuz.

Esku hartze eredu horiek neurri konkretuetara ekarrita, politika leun eta sendoen sailkapenari eutsiz, honakoa litzateke neurrien aukera sorta:

- Neurri leunen bidez eraginda, ekonomia sozialeko erakundeen garapenerako ingurune egokiak sortzea da helburua. Bi motatako neurriak kontenplazten dira, instituzionalak eta kognitiboak, eta bi horien xede nagusia da erakundeon ikusgarritasun, ezagutza eta hedapen handiagoa burutzea, maila politikoan eragite ahalmena irabazte aldera.

Esku hartze mota horien artean leudeke, besteak beste, honakoak: sektorea aintzatesten duten arauen garapena, sustapenerako erakunde publikoak sortzea, sektorialak, sail bati lotuak ala sail ezberdinek osatuak (lan taldeak, mahai sektorialak, zuzendaritza propioak, etab.) sustapenerako plan eta programa espezifikoak lantzea, prestakuntza, ikerketa eta hedapenerako dinamikak sustatzea, sektorearen ezagutzan, saretzean eta artikulazioa mailan eragiten duten dinamikak antolatzea (merkatu sozialak, jardunaldi eta topaketak, elkartruke plataformak, sentsibilizazio kanpainak, etab.)

- Politika sendoen atalean berriz, ekonomia sozialeko erakundeengan eragin nahi da zuzenki ala zeharka, horien egituretan (eskaintzaren aldeko neurriak) jardueran (eskariaren aldeko neurriak), ala enpleguan eraginez. Neurri sorta zabala da beraz har litekeena, hiru multzo handitan banatuta:
  - o Erakundeak sendotzea bilatzen duten neurri ekonomikoak: diru laguntza lerroak, zerga politika mesedegarria, laguntza finantzari eta teknikoa, etab.

- o Erakundeen merkatua indartzen duten neurrien bitartez, nagusiki ondasun eta zerbitzu ezberdinen eskari publikoa ekonomia sozialeko erakundeen eskaintzari lotuz, nagusiki kontratazio publikoko legeak errazten dituen mekanismoak baliatuz, baina baita bestelako lankidetzak mekanismoak erabiliz ere (lankidetzak hitzarmenak, zerbitzuen ituntze politikak, etab.)
- o Erakundeon enpleguan eraginez, bai enplegu berriak sortitzaketen ekintzailaketa dinamikak sustatuz, bai enpleguaren egonkortasunera bideraturiko neurrien bidez eta baita kapital enpresen transformazio prozesuetan eraginez.

Taula 4: *Ekonomia sozialeko antolakundeak esku hartze publikoaren helburuen arabera*

<b>Esku hartzearen helburu nagusia</b>	<b>Politika mota nagusia</b>
<b>1. Elkartegintza eta parte hartze bultzatzea herritarra</b>	Politika leunak
<b>2. Jarduera ekonomikoaren kolektibiazioa</b>	Politika sendoak
<b>3. Jarduera ekonomikoaren bidezko gizarte integrazioa</b>	Politika sendoak
<b>4. Lankidetzako publiko-kooperatibo-komunitarioko formulak</b>	Politika leunak eta sendoak

Iturria: geuk egina

Ikusten denez, hamaika dira lurralde eskala batean har litezkeen neurri sortak, baina orain artekoan bederen, nagusiki herri-erakundeen lidergopean bultzaturiko neurriez ari gara. Ekonomia sozialeko erakundeen sustapenerako politika publikoetan, ordea, 2008ko krisiaz geroztik, beste jite bateko ikuspegiak agertzen joan dira, herri erakundeen erabateko protagonismo hori auzitan jartzen dutenak, ikuspegi ekosistemikoago baten alderantz lerratzeko. Horiek lirateke jarraian garatuko ditugun bigarren belaunaldiko neurriak.

### **1.1.3. Ekonomia soziala sustatzeko estrategia eta marko normatiboen bilakaeraren analisisa**

Chaves (2019) ikerlariak ebatzen duen moduan, herri erakundeek ekonomia sozialeko erakundeak susta ditzakete bi arrazoi nagusirengandik: ikuspegi finalista batetik, ekonomia sozialeko enpresa ereduak bultzatzea interesgarri ikusten dutelako, eta beraz, mota horretako enpresak hedatzea bilatzen delako; edo baita ere, enpresa eredu hauen bitartez modu egokiagoan ebatzi litezkeen beharrian sozial orokorrako erdiesteko (ekintzailtza, gizarte kohesioa, finantzazio etikoa, errenten birbanaketa, garapen komunitarioa, etab.).

Erakunde mota horiek sustatzeko estrategien sarrera atal hau lantzeko lehen baieztapen batek gidatuko du gure argudiatze lerroa: azken lau hamarkadatan abian jarri diren neurriei erreparatuz gero, inflexio puntu bat antzematen da Hego Euskal Herri mailan 2008ko krisiaz geroztik, eta honen aurretik, nagusi izan diren ikuspegi eta politika publikoko mekanismo nagusiei dagokienean. Inflexio puntu hori azaleratzen dute lan

honetan agertuko diren lehen eta bigarren belaunaldiko neurriek.

Ez da inondik inora lan honen helburu nagusia estatu mailan zein herrialdez herrialde identifika daitezkeen bilakaera normatibo eta estrategia publikoen analisi zehatua burutzea. Aitzitik, azken lau hamarkadetan politika publikoen esparruan adituek nabarmentzen dituzten joera nagusien analisisa baliatuko dugu Udalgintza Eraldatzaile deituraz zirriborratu nahi dugun esku hartze ikuspegia justifikatzeko.

Joera nagusien errebaso horri ekiteko haizu bekigu Monzón eta Chavesek (2016) seinalatzen duten lehen baieztapen batekin hastea: ekonomia soziala, kontzeptu gisa, estatu mailan zein autonomia erkidego ezberdinetako arau zein erakundeetan 80eko hamarkadan agertzen hasiko den arren, 90eko hamarkadatik aurrera hasiko da kontzeptuaren benetako hedatze aroa.

EAE mailan 1986 urtean sorturiko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza da lehen belaunaldiko politika publikoen erakusgarri. Fajardok (2019) zehaztu duen gisan, lehen neurri horiek alde batetik ekonomia sozialaren kontzepzio murrizkor batean oinarritzen dira, kooperatibei eta lan elkartei bideraturiko neurriak soilik hartzen baitituzte aintzat. Gainera, neurri horiek estatu mailako nolabaiteko koordinazioa agertu arren, erkidego ezberdinetan modu dezentralizatuan hasiko dira garatzen, gure kasuan bai gaitasun araugileari dagokionez, baita zerga politikei dagokienez ere.

Estatu mailan ezarriko den lehen eskuduntza banaketak indarrean jarraitzen du egundo termino orokorretan: estatuak beregain hartzen du lan elkarteak, laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziak erregulatzeko eskuduntza, eta erkidegoen esku uzten du, interesik dagoen kasuan, kooperatibak, elkarteak eta fundazioak arautzeko eskuduntza.

Politika publikoen lehen belaunaldiko neurriak beraz, modu horretan eraikitzen hasiko dira: ekonomia sozialaren ikuspegi murrizkor batean oinarrituz, eta herri-erakundeen eskala anitzeko banaketari dagokionez, estatuak zein autonomia erkidegoek hartuko dutelarik lidergoa, eskualde zein tokiko mailako erakundeen parte hartze eskasarekin.

Chaves-ek (2019), esku hartze eredu honen nolabaiteko ebaluazioa eginez, bi eredu nagusi ikusten ditu lehen belaunaldiko politika publikoen artean estatu mailan:

- Eredu minimalista alde batetik, non autonomia erkidegoak estatutik eratorritako aurrekontu partida eta neurriak erreproduzitu eta kudeatzera mugatzen diren, inolako

berrikuntzarik gabe harturiko neurrietan, eta are, sektorea sustatzeko interes apalarekin.

- Eredu garatuago bat agertzen duten herrialdeak, Murtzia eta Andaluzia nagusiki, besteak beste aurrekontu partida eskuzabalagoak bideratzen direlako, neurri mota zabalagoak hauteman daitezkeelako, eta ekonomia soziala ikuspegi zabalagotik hartzen dutelako aintzat. Eredu honetan zenbait berrikuntza instituzional ere ageri dira, iraupen luzeagoko eta eragile anitzagoen arteko akordioen bitartez gauzatu baitziren, besteak beste, herri erakundeak, sektoreko enpresak eta sindikatuak inplikatur.

Ordutik hona, esan bezala, aldaketa sozioekonomiko eta politiko sakonekoak gertatu dira, eta esan bezala, 2008an leherturiko atzeraldiak ageri agerian utzi zituen esku hartze eredu horien ahulgune nabarmenenak: horien eragin mugatua ekonomia sozialeko erakundeen hedapen errealean eta bereziki ekintzailtza berrien aktibazioan eta termino orokorretan, tokiko garapenarekin agertzen zuten deskonexio erabatekoa.

Gogoeta hori, kasik modu sinkronizatuan gurutzatuko da tokiko garapen politiken berrikuspen orokor batekin, esparru horretan diharduten aditu ezberdinen iritzian (Subirats, 2014; Estela, 2014; ...) 2008ko krisiak ere agerian utziko baitu tokiko garapenerako aktibaturiko esku hartze ereduak akidura edo agortzea.

Bi gogoeta horien gurutzaketatik sortuko dira hirugarren atalean azalduko ditugun bigarren belaunaldiko neurriak, baina une hori baino lehen, aipatu beharreko dira bilakaera honetan giltzarriak izan diren zenbait prozesu. Fajardok (2019) hiru aurrerapen nagusi seinalatzen ditu:

- 2011ko estatu mailako Ekonomia Sozialeko 5/2011 legea: lege honek, lehen aldikotz, ekonomia sozialaren unibertsoa legez definitua utziko du, eta ordutik hona bere garapen erreala kasik hautemanezina izan den arren, tokiko eta eskualde mailan bultzatu beharreko zenbait orientabide jasoak utziko ditu, besteak beste: ekonomia sozialeko ekintzailtza erraztuko duten inguruneak sortzea, edo gutxienik dinamika horiek oztopatzen dituzten distortsioak zuzentzea; ekonomia sozialeko erakundeak enplegu politika aktiboko mahaietan txertatzea; ekonomia sozialaren errealitatea hezkuntza planetan txertatzea; landa garapen zein gizarte integrazioa bezalako esparruetan ekonomia sozialeko esperientziak bultzatzea, etab.
- Ekonomia Sozialeko Espainiar Estrategiaren (2017-2020) (ESEE aurrerantzean) tokiko aplikazioa: 2017an onarturiko estrategia eta egun indarrean den hau printzipioz estatu osoan aplikatu beharrekoa litzateke, eta tokiko esparruari

zuzenki eragiten dioten esparru ugari barnebiltzen ditu, besteak beste: ekintzailletza eta enpresa kontsolidazioaren sustapena (1. eta 2. ardatzak); ekonomia sozialaren garapena mugatzen duten oztopoak kentzeko marko juridikoen garapena (3. ardatza); sektore estrategikoetan zein herri erakundeetan ekonomia sozialak parte hartzeko mekanismo instituzional berritzaileak bilatzea (4. eta 6. ardatzak); ekonomia sozialeko erakundeen ikusgarritasuna handitzeko neurriak hartzea (8. ardatza); etab.

Taula 5: ESEE kategorizazioa politika publikoen tipologiaren arabera

<b>ESEEren ekintza ardatzak</b>	<b>Politika publikoen tipologia</b>
<b>Enplegua sortzeko eta egonkortzeko politikak (1. eta 2. ardatzak)</b>	ESko enplegura zuzendutako politika sendoak
<b>Kontratazio publikoko politikak (3. ardatza) eta lankidetzak publiko - pribatuko formulen bidezko zerbitzu publikoen eskaintza (4. ardatza)</b>	Eskariaren aldeko politika sendoak
<b>Sektorearen parte-hartze instituzionala sustatzeko politikak (6. ardatza)</b>	Eskaintzaren aldeko politika leunak
<b>Sektorearen ikusgaitasuna hobetzeko politikak (8. ardatza)</b>	Eskaintzaren aldeko politika leunak

Iturria: geuk egin

- Azken 5 urteetan autonomi erkidego ezberdinetan zein udal garrantzitsuetan garaturiko estrategia berritzaileak: Madrilen, Bartzelonan, Zaragozan, Sevillan,... abian jarritako udal planez gain, nabarmentzekoak dira Kataluniako zein Aragoiko ESS lege egitasmoak (egun tramitazio fasean), Galiziako ekonomia sozialeko lege berria (2016), eta Andaluzia zein Balear Irletako sustapen Plan berrituak. Horien analisi xehatuan sartu gabe, autoreak bi berrikuntza nagusi hautematen ditu garapen normatibo berriotan: ekonomia sozialaren kontzeptuaren zehaztapen handiagoa, alde batetik; eta tokiko zein eskualde mailako esparruen protagonismo berritua, bestalde.

Dagoeneko nabarmen agertzen ari den moduan, lehen belaunaldiko neurrietatik bigarrenerako jauzia aipaturiko bi oinarri horien gainean gertatuko da: ekonomia sozialaren ezagutza zabalagoa alde batetik, eta tokiko garapen estrategietan txertatze maila handiagoa bestalde.

#### **1.1.4. Bigarren belaunaldiko politikak: Udalgintza Eraldatzailea zirriborratzen**

Belaunaldi berri bateko neurri horiek ahalbidetu dituzten testuinguru faktoreak bilatzen hasita, aipa ditzagun aurretiaz seinalaturiko bi elementu: lehen belaunaldiko politika publikoen agortzea, alde batetik, eta tokiko garapenera bideraturiko esku hartze ereduak akidura, bestalde. Bi prozesu

horien gurutzaketak sortu ahal izan du, ziurrenik, belaunaldi berri bat politika publikoen esparruan.

Ekonomia sozialeko politiken esparruan, Chaves (2019) eta beste hainbat autorek defendatzen dute 2008ko krisiak hankaz gora jarri zituela eredu tradizionalaren oinarriak, besteak beste, horiek garatzea oztopatzen zuten faktore ezberdinen agerpenagatik: lehenik aurrekontu partiden murrizketa esanguratsuak, finean, arduradun politikoen konpromezu ahula agerian uzten zutenak; bigarren, neurri berrien agerpen berantiarra (ekonomia sozialeko legea krisia lehertu eta hiru urte luzera onartu baitzen) eta horien gauzatze falta sistematikoa: legeak ezarritako gutxieneko neurrietatik bat bera ere garatu gabe dago oraino estatu mailan, dela Ekonomia Sozialeko Sustapen Kontseiluen garapenari dagokionez, dela erakundeen katalogoen zehaztapena, etab. (Fajardo, 2019).

Esku hartze eredu estatista horien eragite ahalmen murriztaz jabeturik, 2015 urtetik aurrera eta estatu mailan udal hauteskunderen emaitzak utzitako indar korrelazio berri baten ondorioz, tokian tokiko planteamendu berriak agertzen joan ziren. Bartzelonako *Plá d'Impuls* deiturikoa izan arren erreferentziazko heldulekua, beste hainbat lurraldetan ere hartu dira orientazio bertuko neurriak, denetan ere lurralde eskalan tokiko esparruak bereganatu duelarik protagonismo berritu bat.

Prozesu honek, esanda bezala, ziur aski bat egiten du tokiko garapenaren esparruan gertaturiko eredu zaharraren akitze prozesu batekin ere. García Janék (2014) koordinaturiko lan batean oso agerian geratzen da hipotesi honen baliozkotasuna.

Lehenik, Subiratsek (2014) aipatzen du tokiko garapeneko politiken marko orokorrari bete betean eragin diotela ondasun "komunen" aferaren agerpenak, bai eta teknologia berriek sortu dituzten aukera berriak horien kudeaketa kolektibo eta eraginkorragoetarako. Rebollok (2014), tokiko garapeneko neurri berri horien lehen diagnostiko bat egiten hasita, bi ideia nabarmenduko ditu: horien izaera esperimentalak, alde batetik, eta horien "harremanezko" izaera bestalde, azken honekin esan nahi duelarik tokiko herri erakundeen egitekoa dinamizazio eta errazte dinamiketan zentratzen hasi dela, lurraldeko eragile ezberdinen arteko harremanak sendotzea jotzen baita xede nagusi. Harremanezko izaera honen isla ere nabarmen liteke ondasun publikoak modu komunitarioan kudeatzeko abiaturiko prozesu geroz eta hedatuagoetan ere.

Argudio ildo horri jarraituz ebazten du Estelak (2014) ere tokiko garapenerako politika eredu tradizionalen akabera, eta ikuspegi berritzaileen ezinbestekotasuna. Egile honen

irudiko, 2008ko krisiaz geroztik eredu tradizionalak huts egin du arrazoi bikoitzagatik: nekez jartzen direlako abian lanpostu berriak esanguratsuki sortzen dituzten ekintzailletza berriak, lehenik; eta ehun komunitariotik sarri askotan aurrea hartu izan delako beharrian berri horiek dinamika ez merkantilizatuen bitartez asetzeko, bigarrenik.

Egile honen argudiaketarekin jarraituz, ekonomia sozialeko erakundeak sustatzeko neurriak bi argudioren bidez babestu izan ditu tokiko garapenaren ikuspegi tradizional honek: enplegu (eta errenta) berriak sortzen dituen jarduera ekonomikoa antolatzeke modurik egokienak direla iritzita, eta bestalde, kolektibo zaugarrienak lan munduratzeko tresna ezin hobeak direlako ustean. Estelaren irudiko (2014), ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek beraiek gauditute beren lanaren gaineko kontzepzio murrizkor hori, eta hortaz, ezinbestekoa bilakatzen ari da tokiko garapenaren esparruan biratze estrategiko berritu bat egitea, gizarte beharrianak asetzea xede duten dinamikak lehenetsiz, errenta berriak sortzera bideraturikoen aurretik.

Gizarte beharrianak asetzea erdigunean jartzen duen ikuspegi honek bat egiten du bete betean García Janék (2014) ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak hautemateko duen moduarekin, lehen atalean garatu dugun moduan, autore honentzat ekonomia sozialak lurraldeak ager ditzakeen behar ezberdinei erantzuteko mekanismo ezin egokiagoak baitira: kontsumo, ekoizpen, finantzaketa, etab.

Gogoeta hauen segidarekin ari gara harilkatzen belaunaldi berriko neurrien karakterizazioa, beraz. Modu sintetikoan esanda: tokiko esparruak protagonismo berritua hartuko du horietan, herri erakundeak harreman dinamizatzaile funtziotarako pasako dira eta lurraldearen beharrianak asetzera bideratuko ekimenak sustatzea lehenetsiko da.

Chaves-ek (2019) lau ezaugarri nagusi nabarmenduko ditu neurri berri horietan:

- *Bottom-up* logikari eusten dioten politikak dira, *top-down* ikuspegia ordezkatuz. Ekonomia sozialak, beraz, parte hartze esanguratsua izango du politika berri horien diseinu, planifikazio eta implementazioan, herri erakundeek lideraturiko programetatik ko-eratzeko eskemetara igaroz.
- Ikuspegi holistikoa lehenesten duten politikak dira, laguntza ekonomikoan oinarrituriko neurri isolatuak ordezkatuz.
- Ikuspegi ekosistemikoan oinarritzen dira, aurrekontuan oinarrituriko ikuspegiak gaudituz. Modu honetan, lurraldeko eragile ezberdinek aktiba ditzaketen baliabideak

dinamizatzea da xede nagusia, horien parte hartzea modu egituratuan ahalbidetzeko plataformen bitartez.

- *Mainstream* ikuspegi batetik hartu nahi diren neurriak dira, neurrian zeharkakotasuna eta osagarritasuna bilatuz tokiko politika publiko ezberdinen artean, udal sail bakoitzak modu isolatu eta deskoordinatuan harturiko neurrien esku hartze ereduak gaindituz.

Chaves-ek egiten duen ezaugarritze saioak bat egiten du aurretiaz landu ditugun beste autoreek esandako ideia zentral batekin: neurri berrien "harremanezko" izaeran, hain zuzen ere. Harremanezko izaera horrek zipriztintzen ditu aipaturiko lau ezaugarriak: sektorearekin harreman estuagoa lehenik (*bottom-up*), neurri ezberdinen (*holistikoa*) eta sail ezberdinen (*mainstream*) arteko koordinazio handiagoa, bestalde, eta lurraldeko eragile publiko, pribatu, komunitario zein hezkuntzako inplikazioa bilatuz (*ekosistemikoa*).

Funtsean, bigarren belaunaldiko neurri horiek, aurrekontu partida esanguratsuagoak izan eta eskala lokalagoan eragiteaz gain, politika publikoetan egindako gizarte berrikuntzetan oinarritzen dira. Berrikuntza horien bitartez, ekonomia sozialeko erakundeetan ez eze, lurraldeko bestelako erakundeetan eragingo duten neurriak hobesten dira, lurraldean eragitea baita helburu nagusia, honen beharrianak erdigunean jarrita.

Atal hau nolabait ixte aldera, García Janék (2014) proposatzen duen esku hartze filosofia da indarrean jarriko dena azkenaldian. Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeak sustatzeko politika publikoek 6 ideia nagusiri erantzuten diete: lurralde beharrianak asetzera orientaturikoak izatea, prozesu sortzaile eta kooperatiboen bitartez, ko-eratzeko dinamiketan oinarrituz, proiektu integral eta transbertsalen bitartez, eta trakzio lana egiten duten egitasmo berritzaileek inspiraturik.

Txosten honetan Udalgintza Eraldatzaile gisa izendatu dugun terminoaren ezaugarriak beraz, analisi hauetan oinarri hartuz proposatzen dira:

- Lurraldeko beharrianak asetzea lehenetsiko da, kapital metaketarako baldintzak erraztearen aurretik.
- Beharrian horien asetzeko modua, gizarte berrikuntzaren ikuspegian babestuz, pertsonak eta komunitateak ahalduntzen dituzten esku hartze ereduak bitartez egingo da: ekonomia sozialean oinarritzen diren ekimen berriak martxan jarritz, horiek saretuz eta lankidetzara publiko-kooperatibo-

komunitarioko eskemen bidez tokiko garapenaren erdigunera ekarri.

- Aurreko bi elementu horien baturak itxuratzen du Lurralde Burujabearen ideia: lurraldeko beharrezkoen, edo zehatzago esanik, bizitza sostengatzen duten beharrezko jardueren modu auto-eratu, kolektibo eta solidarioan helduko diren subjektu burujabeak sortzea litzake helburua, eta proposaturiko ereduaren iparrorratza.

## **1.2. EAEko POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA**

### **1.2.1. Maila autonomikoko neurriak: Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren esku hartze ereduaren analisisia**

Gauza jakina da EAE mailan Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak gidatu izan duela nagusiki ekonomia sozialaren sustapenerako politika publikoen alorra.

Politika publiko horiek mota sendoko zein leuneko neurriak kontenplazten dituzte, aurretiaz egindako hainbat lanetan jasoa geratzen den moduan (Bakaikoa eta Morandeira, 2012; Morandeira, 2013).

Nolabait laburbiltzearren orain arte indarrean izan den sustapen ildoak, honako ideiak azpimarratuko genituzke:

- Politika leunen aldean, instituzionalki garapen garrantzitsua izan du ekonomia sozialak EAE mailan. Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza bera litzateke honen adibide nagusia, baina baita bestelako erakunde publiko-pribatuen existentzia zabala ere, nagusienak aipatzearren: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Erkide, Elkarlan, Bitartu, GEZKI institutua (UPV/EHU), OVES-GEEB behatokia (UPV/EHU), EGES sarea, etab.
- Erakunde horiez gain, EAEk eskuduntza osoa du kooperatibak, elkarteak, fundazioak, borondatezko gizarte aurreikuspen erakundeak eta arrantzale kofradiak arautzeko.
- Bestalde, ekonomia sozialak badu presentzia erkidego mailako bestelako kontsulta organoetan ere, besteak beste, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, ez ordea Lanbiden, sektoreak aspaldidanik aldarrikatu izan duen arren, sistematikoki ukatu izan zaiolako.
- Hezurdura instituzional sendo honetaz gain, EAERI Itun Ekonomikoak damaion zergen gaineko eskumen erregulatzaileak posible egiten du kooperatibek, elkarteek zein fundazioek zerga politika berezitua izatea, nagusiki kooperatiben mozkinen gaineko zergan tipo murriztuak ezartzen dituenak, horien zerga oinarriaren kalkuluan bestelako hobariak ere barneratzen dituelarik.
- Neurri kognitiboen atalean, EAEko unibertsitate sistemako unibertsitate publiko zein pribatu guztietan dauden institutu zein ikerketa talde espezializatuen existentzia nabarmendu behar litzateke: GEZKI eta OVES-GEEB UPV/EHU, Lanki eta MIK Mondragon Unibertsitatean eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua, Deustuko Unibertsitatean.


- Neurri horiez gain, ekonomia sozialeko erakundeentzako soilik bideraturiko diru laguntzen partida bertsuak mantendu izan dira tradizionalki (Bakaikoa eta Morandeira, 2012):
  - o Gizarte Ekonomian ekiteko laguntzak,
  - o Gizarte Ekonomiako enpresen elkarte egiturak sendotzeari zuzendutako laguntzak.
  - o Gizarte Ekonomiaren arloan ikasketak zabaltzeko beka.
  - o Gizarte Ekonomiako enpresetan laguntza teknikorako diru laguntzak.
  - o Gizarte Ekonomiaren prestakuntzarako laguntzak.
  - o Gizarte Ekonomiako enpresa-lankidetzarako laguntzak.
  - o Enpresetan langileen parte-hartzea bultzatzeko laguntzak.
  - o Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak barneratzeko laguntzak.
  - o Inbertsioak burutzeko laguntzak.
  - o Aldi baterako langabezia jasaten duten bazkide langileen edo lan-bazkideen kualifikaziorako laguntzak.

Laguntza ildo horiek egokitzen eta doitzen joan dira sektorearen beharrian aldakorretara, eta termino orokorretan, partida nagusi horiek mantendu izan diren arren denboran zehar, horietako batzuk desagertu ere egin dira azken deialdietan (inbertsiotarako, ikerketa bekak). Ildo bakoitzak Zuzendaritzak kudeatzen duen guztizko partidaren duten pisu erlatiboari erreparatuko bagenio, argi ondorioztatzen da ekintzailetasuna sustatzeko partidara bideratzen dela esfortzurik handiena (aurrekontuaren %40, 2019an), honen atzetik kokatzen direlarik prestakuntzara bideratuak (%16) eta enpresen elkarte egiturak sendotzeko partidak (%15,5).

Argazki orokorra osatze aldera, ekonomia sozialeko erakundeen eskarian zein enpleguan eragiten duten neurriak ere barneratu behar lirateke gure analisisian. Laguntza horiek, alabaina, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren eragite esparrua gainditzen dute, zuzendaritza hau Lan eta Justizia sailean kokatua den neurrian, kooperatiba eta lan elkarteei soilik eragiteko gai baita.

Jarraian eransten dugun irudian jaso geratzen da ekonomia sozialeko erakunde guztien interlokuzio eremua EAEko herri-erakundeen aurrean:

*Irudia 1: Ekonomia sozialeko erakundeen kokapen instituzionala*



Iturria: Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren Jarduketara Plana (2017-2020)

Irudian jasoa geratzen den bezala, ekonomia sozialeko erakunde nagusiak, hots kooperatibak eta lan elkarteak, Lan eta Justizia sailean kokatzen diren arren, horien jardura eremuagatik ere bestelako sailetan txertatuak egongo dira (dela hezkuntza, dela industria, dela gizarte zerbitzuak. etab). Bestalde, unibertso honetako beste erakunde motek ere interlokuzio zuzena dute beste sail batzuekin: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailarekin laneratze enpresa eta enplegu zentro berezien kasuan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu saila elkarte eta fundazioen kasuan, etab.

Errealitate instituzional konplexu honek ekartzen du ekonomia sozialeko erakundeak sustatzeko neurriak alde anitzetatik eratorri ahal izatea, analisisian konplexutasun handia erantsiz horien identifikazio eta esangura neurtze aldera.

Aipa ditzagun, hala ere, gure iritzian ekonomia sozialaren sustapenean modu esanguratsuan eragiten duten bestelako neurri batzuk:

- Eskariari eragiten dieten neurrien artean, aipagarriak dira gutxienik hiru esku hartze marko esanguratsu:
  - o Hezkuntza kooperatibak (ikastolak) arautzen dituen Itunpeko sistema
  - o Gizarte Zerbitzuetan, hirugarren sektoreko erakundeekin Itunpeko sistema hobestea ezartzen duen 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea
  - o Estatuan onarturiko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuen legea hain zuzen ere, aurrerago xehatuko dugun moduan, kontratu erreserbak ezartzen dituen laneratze enpresa eta enplegu zentro berezientzat nagusiki (baita ekonomia sozialeko bestelako

erakundeentzat ere kultur, osasun edo gizarte zerbitzuen esparruetan).

- Azkenik, enpleguari eragiten dieten neurrietan, kooperatiba eta lan elkarteei bideraturiko laguntzez gain, aipagarriak dira laneratze enpresa eta enplegu zentro bereziei eragiten dieten laguntza ildoak, bai enplegu berriak sortu eta mantentzeko, eta baita erakunde berriak sortzeko ere.

Amai dezagun lehen atal hau Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak 2017-2020 urtealdirako ezarritako Jarduketa Planaren analisi labur batekin.

Plan honen diseinu eta elaborazio prozesuan, baita bere sakoneko ikuspegian ere, lan honetan bigarren belaunaldikotzat jo ditugun orientabide batzuk hauteman litezke, gutxienik intentzioen mailan. Txostenak jasotzen duenez, planaren elaborazioan ekonomia sozialeko eragileek parte hartze zuzena eta aktiboa izan dute (*bottom-up* ikuspegia), eta planaren helburu nagusienetako bat izan da Jaurlearitzako beste sail eta plan ezberdinekin lerratzea ekonomia sozialeko jarduketa plana, nolabaiteko zeharkakotasuna bilatuz (ikuspegi *holistikoa* eta *mainstream*).

Orientabide horiez gain, laguntza ildoak bi helburu estrategikotan eta hiru ildo nagusitan laburbiltzen dira: ekonomia soziala sustatzea eta bultzatzea litzateke lehen helburua, ekonomia sozial "gehiago" eta "hobea" bilatuz; bigarren helburua, berriz, ekonomia soziala zabaltzea eta hedatzea litzateke. Sailkapen oro hartzaileago bat izanagatik, funtsean bideratzen diren neurriek aurretiaz izandako ikuspegian sakontzen dutela esan liteke: ekintzailatza sustatzeak hartzen du berebiziko lehentasuna, gizarte ekonomia "gehiago" deritzon lan ildoan, eta "hobetzeko" neurrien artean barnebiltzen dira zenbait partida tradizional: prestakuntza, enpresen elkarre-egiturak, laguntza teknikoa, lankidetzarako laguntzak etab.

Baliteke bigarren helburu estrategikoan, ekonomia soziala zabaltzeko ildoan, agertu izana berrikuntzarik nagusienak: langileen parte hartzea bestelako enpresa ereduetan sustatzeko dinamikez gain, ekonomia soziala ezagutzera emateko (hezkuntza curriculumetan, unitate didaktikoen bitartez, esaterako), gizarte berrikuntzarekin lerrokatzeko eta enpresen gizarte erantzukizunera gerturatzeko bideak irekitzea bilatu baita<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Jarduketa Planaren analisi xehatua egiteko, ikus plana esteka honetan:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan\\_economia\\_social/](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_economia_social/)

### **1.2.2. Eskualde mailako neurriak: Garapen Agentzien esku hartze ereduaren analisia<sup>3</sup>**

Erkidego mailatik eskualde mailara jaitsiz, begien bistakoa da ekonomia sozialaren sustapena tokiko garapenera lerratzeko garapen agentziek gure herrian agertzen duten protagonismo berezitua. Agentzia horiek dira tokiko garapeneko estrategiak garatzeko eragile nagusiak, bereziki ekintzailatzen eta enplegu politikan duten eragite ahalmenagatik eta eskarmentu metatuagatik, baina baita bestelako planetan ekonomia soziala txertatzeko agertzen diren aukerengatik ere: dela landa garapena sustatzeko neurrietan, gizarteratze politiken baitan, gizarte berrikuntzaren esparruan, etab.

Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak finantzaturiko beste ikerketa egitasmo batean egindako diagnostikoan oinarri hartuz, honako baieztapenetik abiatu ginateke: garapen agentzia batzuk ekonomia sozialaren ildoak modu zentral edo tangentialagoan barneratua duten arren, oro har, horien ezagutza maila ekonomia sozialarekiko nahiko mugatua da, eta beren lan ildoak ekonomia sozialaren sustapen politikekin lerratzea nahiko gauza berria ari da izaten.

Lankidetzaren esparru hau, hortaz, garapen agentzia eta ekonomia sozialeko erakundeena, apenas esploratu den esparrua izanik, potentzialtasun ikaragarriko lan ildo gisa begitantzen zaigu txosten honen egileoi. Lankidetzaren esparru hau indartzen joateko interesa ere alde guztiek partekatzen duten elementu gisa agertzen dela uste dugu, bai ekonomia sozialeko erakunde ordezkarien aldetik, bai garapen agentzien aldetik, baita Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren aldetik ere.

Txosten honetan jasoko diren emaitzak hiru mailatan antolatuko ditugu: lehenik, ekonomia soziala sustatzeko identifikatu diren zailtasun nagusienak plazaratuko ditugu; bigarrenik, identifikatu ditugun esperientzia nagusien karakterizazio saio bat egingo dugu, eta azkenik, atal honen azken kapituluaren aratuko ditugu gure iritzian tokiko esparruan eragiteko zabaltzen diren aukera nagusiak.

---

[eu\\_registro/adjuntos/Gizarte%20Ekonomiaren%20Zuzendaritzaren%20jarduk eta-planak%20\(2017-2020\)\\_EU.pdf](#)

<sup>3</sup> Egileon oharra: atal honetan txosten honen egileek Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak 2019. urtean finantzaturiko beste ikerketa egitasmo batean erdietsitako emaitza nagusiak jasoko dira. Txosten horren izaera konfidentziala gordetze aldera, hemen garatuko diren ondorioak oraingoz partekatu ezinak direla zehaztu nahi dugu txostenaren egileok.

### **a) Sustapenerako zailtasunak**

Garapen agentzietan elkarrizketaturiko arduradun gehienek bat egiten dute ekonomia sozialean oinarrituriko ekintzailtzak sustatzeko identifikatzen dituzten zailtasunen analisisian. Hauexek liriateke horietako nagusiak:

- Ekonomiaren tertziarizaziorako joerak mugatu egiten ditu, oro har, ekintzailtza kolektiborako aukerak: ekintzailtza berri gehienek zerbitzuen sektoreko jarduerak dira, asko eta asko modu indibidualean eta norbere konturako lan modalitatean. Ekintzailtza berri horiek hasierako kapitalizazio behar maila apalagoa dutenez, beste pertsonekin elkarlanean aritzeko pizgarriak ere ahultzen doaz.
- Ekintzailtzarako kultura ere, oro har, gainbeheran dela aipatzen dute zenbaitek, hezkuntza plangintzetan ere ageri duen presentzia eskasaren isla izan daitekeelarik hauex.
- Beste zenbaiten aburuz, tokiko esparruan ekonomia sozialeko jarduerak bultzatzeko aukerak handiak izan arren, muskulu falta ageri da ekonomia sozialeko erakundeen aldetik, hainbeste ze herri erakundeek sarri askotan nahi izanda ere, ezin baitute beren eskaria "existitzen ez den" ekonomia sozialeko eskaintzara bideratu.
- Azken honen erakusle litzateke Sektore Publikoko Kontratuen Legearen garapen mugatuaren inguruko gogoeta. Teorian aukera berriak zabaltzen dituen arren, praktikan ez da ahal beste garatu tresna hori, dela ekonomia sozialeko enpresen faltagatik, dela kontratazio mahaietako teknikari administratiboen ezagutza eta prestakuntza faltagatik, aurkakotasun agerikoa ez denean.
- Ekonomia sozialeko ekimenak sustatzeko zailtasunen artean bigarren argudio batek ere onarpen zabal xamarra aurkezten du: figura juridiko konkretuak lehenestearen aurkako errezeloa, esan dezagun. Enpresa handiek kontratu publikoetara hautatu ahal izateko ekonomia sozialekoak diren figura juridikoak modu instrumentalean erabili izana praktika orokortu bat izan bide da. Hortaz, arduradun publikoek erreparo handia agertzen dute figura juridiko konkretuak sustatzeko neurriak hartzearekin, horien atzean nor (eta zein balio mota) sustatzen den ez baitago argi.

### **b) Sustapeneko praktika nagusiak**

Garapen agentzia ezberdinetan identifikatu eta aztertu diren esperientzia nagusien analisitik, ondorio orokor bat atera genezake politika publikoen tipologia eskemaren arabera: enpleguan eragiten duten neurrietan ekonomia soziala sustatzeko neurrien diskriminazioan praktika mugatua ikusten

dela. Horiez gain, herri erakundeen eskaria ekonomia sozialeko eskaintza bitartez hornitzeko praktikak ere nahiko mugatuak dira, eta ekimen gehiago ikus litezke neurri leunen aldetik.

Neurri leunen aldetik, esperientzia nahikotxo hauteman dira ekonomia sozialeko erakundeen garapena erraztera bideratuak. Horien artean aipagarrienak dira honakoak:

- *Co-working* espazioen eta enpresa hazitegien existentzia: orokorrean mota ezberdinetako ekimenei irekiak diren aren, batzuetan ekonomia sozialeko erakundeak gerturatzeko saiakera ere antzematen da.
- *Ekintzaileen arteko topaketa eta jardunaldiak*: zenbaitetan ekonomia sozialeko balioak eta praktikak sustatzeko ekimenak egiten dira.
- *Lurralde mailako sareetan parte hartzea*: lurraldeko eragile ezberdinek osaturiko sareetan espazio partekatuak ageri dira garapen agentzia eta ekonomia sozialeko eragileen artean.
- *Ekonomia sozialeko sareetan parte hartzea*: zenbait eskualdetan Kooperatiben Mahaiak eratu dira. Garapen agentzien sareen baitan ekonomia sozialeko ildoa sustatzeko sareak ere sortu dira (Red REDEL, esaterako)

Neurri sendoei helduz, heterogeneotasun eta aplikazio maila ezberdinak ageri dira eskualdez eskualde, kasik ezin liteke patroiz bateraturik ezarri. Identifikaturiko esperientzien artean, nagusienak hauexek lirateke:

- Agentziek bideratzen dituzten ekintzailtza programetan, ekonomia sozialeko logiketan garatu nahi duten ekimenen akonpainamendua ekonomia sozialeko eragile aholkulariei (Elkarlan eta ASLE, nagusiki) berbideratzea nahiko praktika orokortua da.
- Agentzia gutxik dute ekintzailtza sozial edo kooperatibora orientaturiko programa propio bat: Koopfabrika Beterri-Buruntzan, eta Azaro Fundazioak bideraturiko programak Lea Artibain.
- Eskarian eragiteko politika publikoen esparruan egoera kaxkarragoa da: inon ez da zerbitzuak ituntzeko formula baliatzen, eta kontratazio publikoan klausula sozialen aplikazioan adibide eredugarri zenbait badiren arren, orokorrean aplikazioa mugatua dela esan genezake.

Bukatzeko, azken maila batean sailkatzen dira txosten honetan ikuspegi ekosistemikoa edo komunitarioan sakontzen duten praktikak, nagusiki elkargo publiko-kooperatibo-komunitarioen bidez egituratutiko praktiken bitartez.

Zentzu honetan esperientziak oso bakanak dira, eta nagusiki ematen dira kapital publikoz parte harturiko laneratze enpresen edo enplegu zentro berezien esparruan. Kasu konkretu batzuk agertzen dira garapen agentzien edo horiek osatzen dituzten udalen kapitala dutenak enpresen kapital sozialean: Lanerain (Debegesa), Oarsotek (Orasoaldea), Usoa (Barakaldo), etab....baina esperientzia nahiko bakanak dira. Bestalde, udal ekipamenduen kudeaketa kooperatibo-komunitarioen esparruan apenas agertzen den esperientziarik, ziur aski, garapen agentzien eskuduntzetatik kanpo geratzen delako ekipamendu publikoaren kudeaketaren esparrua, bai behintzat kultur, aisialdi, hezkuntza edo kirol ekipamenduei dagokienean.

### **1.2.3. Udal mailako neurriak: aplikazio aukeren eta inpaktuaren araberako lehenespen proposamena**

Orain arte jorratu ditugun alderdi ezberdinak jaso eta nolabait laburbilduz, honako ondorioak atera genitzake:

- Politika publikoen esparruan azken bost urteetan hautematen hasi diren bigarren belaunaldiko politikek bi orientabide nagusi markatzen dituzte: tokiko esparruaren protagonismo berritua, alde batetik, eta ikuspegi ekosistemikoa gailentzea bestalde, halako moduz ze politika publikoen helburua jadanik ez baita ekonomia sozialeko eragileetan eragitea soilik, lurraldean dauden eragile ezberdinen harreman dentsitatea eta artikulazio maila sendotzea eta ahalbidetzea, baizik.
- EAEn kasurako, ikusi da erkidego mailan ekonomia sozialak erakundetze eta aitortza maila garrantzitsua duen arren, indargune hori ahultzen doala tokiko mailara gerturatu ahala. Era berean, erkidego mailako politiken lehentasuna ekintzailatzaren gaian zentratzen ari da geroz eta gehiago, honek ekonomia soziala eta tokiko eskalaren arteko lotura sendotzea eskatzen duelarik.
- Tokiko eskala eta ekintzailatzaren gaia uztartzen dituzten erakunde espezifikoak EAEn garapen agentziak lirarteke. Ikusi da erakunde eragite esparru zabala dutela enplegu politiken eta ekintzailatzaren esparruan, baina ez hainbeste bestelako neurriei dagokienean. Zentzu horretan, garapen agentzietan lan sakonagoa eta koordinatuagoa egiteko aukera handiak daude, batik bat politika leunen esparruan: garapen instituzional eta zabalpen kognitiboari dagokionean oro har, eta konkretuki, ekintzailatza sozial eta kooperatiboko programa espezifikoak lantzeko zein bestelako plan sektorialak (landa garapenerako, gizarte

inklusionerako, sylver economy, garapen turistikoa edo kirol espezializazioa, etab.) ekonomia sozialeko ekintzailetzetan oinarritzeko.

EAEko antolaketa instituzionalaren azken katebegiari helduz, beraz, udalen mailan esku hartzeko aukerak ugariak direla esan behar litzateke lehenik. Erreferentziazkoak izan daitezke, zentzu horretan, Frantzian zein Katalunian eratu diren udal mailako sareak ekonomia sozial eta solidarioa bultzatzeko<sup>4</sup>.

Era berean, neurri konkretuetara joz, kontuan hartu beharreko dokumentuak dira zinez Olatukoop sareak ekonomia sozial eraldatzailea udalerrietan sustatzeko eginiko 15 puntutako proposamena<sup>5</sup> (zeina hurrengo atalean landuko baita, Kataluniako XES erakundeak eginiko proposamenean oinarritzen baita), eta baita REAS saretik garaturiko tokiko politika publikoen gida ere.<sup>6</sup>

Bi dokumentuotan izaera ezberdineko neurriak kontenplatzen dira, neurrien zerrenda xehatua eginez eta esperientzia konkretuak erreferentziak aipatuz. Neurri horien artean agertzen dira plano instituzionalari eragiten diotenak (Tokiko Kontseiluak, Garapen Sozioekonomikorako Agentziak, Interkooperazio dinamikak, udalen mailako sareak, udalen arteko kontsumo kolaboratiboko praktikak...), neurri kognitiboak (hezkuntza eta prestakuntzari dagozkionak, ezagutza eta hedapenari loturikoak, kontakizuna, etab.), udaletako eskari publikoari eragiten diotenak (erosketa publiko arduratsua, aurrekontu parte hartzaileak, udal ekipamenduen edo zerbitzu publikoen kudeaketa kooperatiboa, etab), enpleguari eragiten diotenak (ekintzailetza programak, berreskuratzea programak, ...) zein bizitzaren sostengarritasunean eta burujabetza sektorialetan (etxebizitza, energia, elikadura) sakontzeko proposamen konkretuak ere.

Bi dokumentuok oso presente egongo dira, beraz, txosten honetan jorratzen dugun atal propositiboan. Neurri horiek zerrendatzeaz harago, esku hartze eredu sailkatze sinplifikatu eta argi bat proposatzea da lan honen helburu nagusia. Honetarako, lehen lehenik, udal mailan garapen aukera gehien eta eragite ahalmen gehien duten neurrian identifikazio lan bat proposatuko dugu jarraian.

---

<sup>4</sup> Réseau des collectivités Territoriales pour une Economie Solidaire Frantzian eta Xarxa de Municipis per l'Economia Social y Solidària, Katalunian. Sare hauen baitan ekimen eta esperientzia trukaketa interesgarrian egiten ari dira, tokian toki abiarazitako ekimen esperimentalak partekatu eta orokortzeko marko egokiak izan daitezkeelarik.

<sup>5</sup> <https://olatukoop.eus/2019/11/15-neurri-udalerrietan-ekonomia-sozial-eraldatzailea-sustatzeko/>

<sup>6</sup> [https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/guia\\_politicas\\_publicas\\_ecoSol.pdf](https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/guia_politicas_publicas_ecoSol.pdf)

Neurri instituzional zein kognitiboei dagokienez, eta baita neurri ekonomikoei dagokienean ere erkidego mailan esku hartze marko definitu eta egonkor bat egon badagoela abiapuntutzat hartuz (beti ere udal mailan gehiago garatu daitekeena, noski), hauexek dira gure iritzian udal mailan lehenetsi litezken jarduera ildoak:

- **Politika sendoen artean, eskariari dagozkion neurriek agertzen dute lehenik potentzialtasunik handiena, nagusiki bi ildok: erosketa publiko arduratsuak, alde batetik, eta udal ekipamenduen kudeaketa kooperatibo-komunitarioa gauzatzeko bestelako mekanismoak garatzeak, bestalde.** Bi horiek sarri askotan aldi berean gauzatu litezkeen arren (zerbitzu publikoen azpikontratazoa den kasuan), ez du zertan beti hala izan.

Erosketa publiko arduratsuaren tresnak potentzialtasun handia agertzen du, dudarik gabe. Arestian aipaturiko 9/2017 Sektore Publikoko Legeak ezartzen duen gisan, herri erakundeek esfortzu berezia egin behar lukete horien eskari publikoa enpresa txiki eta ertain, eta konkretuki, ekonomia sozialeko erakundeetara bideratzeko. Lege honen analisi xehatuak lan honen helburuak gainditzen dituen arren, hiru alderdi konkretu seinalatuko ditugu, gure iritzian esku hartze aukerak zabaltzen dituztenak:

- o Kontratu publikoak lote gehiagotan banatzea aholkatzen duen zuzentarau europarrak, lizitazio publikoan onuradun izateko aukera gehiago eskaintzen dizkie enpresa txiki eta ertainei, enpresa handiek dituzten eskala ekonomiak damaien abantaila mugatuz.
- o Erreserbaturiko kontratuen mekanismoak ekonomia sozialeko erakundeen jokalekua zabaltzeko betebeharra ezartzen du, herri erakundeek legez dituzten kontratuen ehuneko bat ekonomia sozialeko erakundeei erreserbatzeko aukera eta betebeharra ezartzen baitu (nagusiki laneratze enpresa eta enplegu zentro bereziei, baina baita bestelako erakundeei ere)
- o Azkenik, gizarte klausulen tresnak, ekonomia sozialari loturiko formula juridiko konkretuak lehenesteko aukerarik ematen ez duen arren, ekonomia sozialari berezkoak zaizkion printzipioekin funtzionatzen duten enpresak hobeto baloratuak izan daitezzen helduleku legalak eskaintzen ditu, beti ere kontratu publiko orok gorde behar duen konkurrentzia libreko praktiken baitan.

Esan bezala, erosketa publiko arduratsuaren bitartez azpikontrata liteke udal zerbitzu bat ekonomia sozialeko eragile batek eskaini dezan, baina ez da esku hartze eredu

honetan dagoen tresna edo mekanismo mota bakarra. Badira bestelako mekanismo juridikoak lankidetzan publiko-kooperatibo-komunitario hau gauzatzeko. Hiru aipatu nahi genituzke lan honetan:

- o Herri erakundeek ekonomia sozialeko erakundeetan bazkide kapitalista gisa jarduteko aukera, bai laneratze enpresa eta enplegu zentro berezietan, baina baita bazkide kolaboratzaile gisa ere enpresa kooperatiboetan.
  - o Zerbitzu publikoak ituntzeko aukera, EAEn hezkuntza sektorean gertatzen den gisan. Esku hartze eredu hau bera garatu nahi da gizarte zerbitzuen esparruan esaterako (Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak dioen bezala), eta baliagarria izan liteke bestelako ongizate zerbitzuetan ere (dela etxebizitza, elikadura, energia, haurtzaindegia, jantoki zerbitzu...)
  - o Lankidetzan hitzarmenen tresna ere balia liteke, udal zerbitzu konkretuen eskaintza partekatua elkargo publiko-kooperatibo-komunitarioen bitartez eskaintzeko, edota konkretuki, ekipamendu publiko baten lagapena bideratzeko modu kooperatiboan kudeaketzeko, edo lursail publiko bat jarduera agroekologikoak garatzeko edo etxebizitza kooperatiboak eraikitzeke erresebatuz, besteak beste.
- **Bigarren maila batean, politika sendoen artean, ekonomia sozialeko enpleguari eragiten dioten neurriek dute aukerarik gehien udal mailan.**

Esparru zabal honetan udal mailan hartu litezkeen neurriak ere gradazio eta konplexutasun maila ezberdinak izan ditzakete: udal batek herritarren erabiltzaile sareak edo kontsumo taldeak dinamizatu ditzake, horien eskaria ekonomia sozialeko eragileetara orientatuz. Edo ekintzailtza sozial eta kooperatiboko programa espezifikoak landu ditzake. Edo enpresen berreskuratze eta transformazio prozesuak ekonomia sozialeko formuletarako bideratu, dela zuzenki edo dela ekonomia sozialeko aholkularitza zerbitzuekin lankidetzan. Azkenik, sortutako lanpostu berri horien bideragarritasunean lagun dezake, finantzazio publiko edo etikoko mekanismoak erraztuz, edo zuzenean, eskari publikoaren bitartez eutsiz.

- **Hirugarren maila batean, politika sendoen esparruan beti ere, diru laguntza ekonomikoaren tresna legoke, dela zerga ikuspegia landuz, dela gastu publikoaren bitartez.**

EAEko analisisian ikusi da mekanismo hauek dezenteko garapena agertzen dutela bai erkidego mailan (gastu publikoari dagokionean) bai herrialde mailan ere (zerga bilketa eskuduntzari dagokionean). Dena den, badira udal mailan landu litezkeen bestelako neurri fiskalak (ondasun higiezinaren gaineko zergak, zaborra edo uraren gainekoak, etab), edo gastuaren exekuzioan udal mailan garatu litezkeen egitasmo markoak ere (Kataluniako Ateneu Cooperatiu-en esperientzien gisan). Gaitasun finantzari handiagoa duten udalerrietan ere garatu litezke plan estrategiko eta esku hartze programa propioak, aurrekontu partida propioarekin.

- **Azkenik, politika leunen esparruan, hamaika dira udalerriz berdinetan dauden eragiteko aukerak, bai esparru instituzionalean eta baita kognitiboan ere.**

Ehundaka dira udal mailan ekonomia sozialaren ikusgarritasuna eta ezagutza maila hobetzeko, eta beraz, honen garapena erraztuko duten baldintzak sortzeko abiatu daitezkeen dinamikak, asko eta asko, gastu publiko oso txikiarekin gainera. Jardunaldi edo enkontruen antolaketatik hasi, udal mailako lan talde edo mahai sektorialak osatuz, bitartekaritza edo aholkularitza zerbitzuak eskainiz (finantza etikoetan, ekintzailletzan, etab), sektorearen artikulazio mailan eraginez (merkatu sozialak edo elkartruke plataformak eratuz), prestakuntza programak eta ikerkuntza lanak finantzatuz... Atal propositiboan landuko ditugu areago neurri horiek guztiak.

### **1.3. KATALUNIako POLITIKA PUBLIKOEN ANALISIA**

Jarrain aztertuko ditugu Kataluniako herrialdean aurrera eramandako zenbait esku hartze programa, horiek hartu duten izaera eredugarriagatik. Kotsentsuak nahiko zabala dirudi zentzu honetan, Rafael Chaves ikerlariak dioen bezala (2019:21): *"el programa referente en esta nueva generación de políticas de fomento de la economía social (y solidaria) es el de la ciudad de Barcelona, con Jordi Via i Cop nombrado Comissionat d'Economía Cooperativa, Social y Solidària, quien va a promover el Pla d'Impuls de l'economía social y solidària de la ciutat de Barcelona (2016-2020).*

Arestian jorraturiko bigarren belaunaldiko politika publikoen erreferentziazko kasua Bartzelonako *Pla d'Impuls de l'economía social y solidària de la ciutat de Barcelona (2016-2020)* (PIESS aurrerantzean) izan litekeen arren, ez da Kataluniako herrialdeetan zehar aipaturiko ekimen interesgarri bakarra, jarraian aztertuko dugun moduan.

#### **1.3.1. Ikuspegi orokorra: ESE sustatzeko neurrietatik, politika eraldatzaileetara.**

García Janék (2019) lagunduko digu ikuspegi orokor bat hartzen. Autore honen hitzetan 2016tik aurrera abiatuko dira lehen aldiz ekonomia sozial eta solidarioko (ESS aurrerantzean) politika publikoak. Ordura artekoak sektore ekonomiko honen sustapenerako neurrietan oinarritzen ziren arren, 2016tik aurrera ekonomia sozial eta solidarioko politikak jarriko dira abian, ikuspegi integralago batetik.

Sektorearen sustapeneko neurriek sektoreko erakundeak indartzea dute xede, eta nagusiki kooperatibak eta lan elkarteak sortu eta egonkortzeko laguntza ildoetan gorpuztu izan dira. Baita, neurri apalagoan bada ere. Udalerri ezberdinek zenbait zerbitzu eskaintzeko laneratze enpresa eta enplegu zentro bereziekin izandako kontratazio politiken bidez. Politika mota horiek urte luzetan zehar planteatu izan dira Katalunian, berrikuntza handiegirik gabe.

Alabaina, García Janéren (2019) irudiko 2016an ikuspegi aldaketa bat emango da, 2015ko udal hauteskundeek utzitako indar korrelazio ezberdin batek ahalbidetuko duena. Orditik honako neurriak, sektore konkretu bat edo enpresa eredu konkretu batzuk sustatzera baino, bestelako eredu

sozioekonomiko bat hedatzera bideratu dira bere osotasunean, ekoizpen kateko katebegi guztietan eraginez (kontsumoa, ekoizpena, banaketa, finantzazioa) eta mota ezberdinetako ekimenak sustatuz, ez soilik izaera ekonomiko enpresarialekoak. Ikuspegi berri honetan txertaturiko eragile instituzionalen sarea ere garrantzitsua izan da.

Kasurik esanguratsuenak aipatzen hasita, hauexek zitatzen ditu autoreak. Lehen lehenik, Generalitateko Lan, Gizarte gai eta Familiako Sailak finantzaturik, lurralde osoan hedatuko den *Ateneu Cooperatiu* sare bat jarriko da abian, ekintzailletza eta enplegu berriak sortzeko ekonomia sozialeko eragileetan oinarrituriko zerbitzu publiko gisa diseinatuak. Bestalde, Bartzelonako udalean sorturiko erakunde berria, *Comissionat deritzona*, eta honek abiaturiko PIESSE plana, eredugarritzat jotzen dira. Azkenik, udalerrri mailan 2017an formalizaturiko *Xarxa de Municipis per l'Economia Social y Solidària* (XMESS aurrerantzean) sareak, plataforma berri bat eskaini du udalerrri ezberdinetako praktikak partekatzeko lehenik, eta esku hartze eredu komunak zehazteko bigarren.

Erakundetze maila honek, halaber, erantzun bat eman nahi dio sektoreko zenbait eragilek agerturiko jarrera proaktibo bati. Autoreak berretsi egiten du arestian mahai gaineratu dugun hipotesia, bi prozesu paraleloren gurutzaketarena, hain zuzen ere: kooperatiben sareetatik, ekonomia solidarioko zein hirugarren sektoreko erakunde ordezkarietatik tokiko mailan har litezkeen neurrien proposamen xehatuak iristen hasiko dira, juxtuki, enplegu sustapenean oinarrituriko tokiko garapen politikek porrot egin izan dutela orokortzen hasten den une berean. Gurutzaketa honek sorturiko aukera berriak gauzatzeko, gainera, aurretiaz garaturiko izaera didaktikodun baliabide ugari ere izango da mahai gainean<sup>7</sup>.

Elementu horien guztien lerratzeak egingo du posible Katalunia herriak esperientzia eredugarriak izatea gure kasurako.

### **1.3.2. ESS erakundeen eskaerak**

Esanda bezala, analista ezberdinen iritzian funtsezkoa izan da politika publikoen garapenerako sektoreak berak jokatu izan duen interpelazio eta akuilatze lan hori. Dokumentu ezberdin

---

<sup>7</sup> Dokumentu horien artean aipatzen ditu autoreak, besteak beste, honakoak: Garcia Jané, J. [coord.], (2014), *Guia d'economia social i solidària per a l'administració local*, DIBA; Boixader, J. [coord.], (2016), *Experiències d'economia social i solidària als municipis*, i Garcia Jané, J. [coord.], (2016), *21 propostes per fomentar l'economia social i solidària des del ajuntaments*, DIBA.

ugaritan jasoak geratzen dira sektorea garatzen joan den eskakizun zerrenda. Lan honetarako guk bi dokumentu nagusitan jarriko dugu arreta: *Xarxa de Economia Solidaria* (XES aurrerantzean) saretik garaturiko proposamena, alde batetik, eta Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederaziotik eginiko proposamena, bestalde.

XESen dokumentuak harrera zabalagoa izan du Euskal Herrian, besteak beste, Olatukoop sareak bere egin baitu dokumentu gisa udalerrietan ekonomia sozial eraldatzailea sustatzeko bide orri modura. Dokumentua osorik sarean kontsulta litekeen arren<sup>8</sup>, honakoa litzateke neurri zerrenda laburtua:

*Taula 6: XESen proposamena*

---

**UDALERRIETAN EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA SUSTATZEKO  
15 NEURRI**

---

- 1.- Ekonomiaren matrize berri bat bultzatzeak aldaketaren eragile sozioekonomiko guztien ekarpena behar du.
- 2.- Tokiko eraldaketa sozioekonomikoa gauzatzeko, tresna egokiak behar dira.
- 3.- Gertuko sustapen ekonomikorako espazioak.
- 4.- Ondare kolektiboaren kudeaketa kooperatiboa edota komunala.
- 5.- Aldaketa sozioekonomikoa bermatzeko, epe luzerako kultura-eta hezkuntza-aldaketa landu behar da.
- 6.- Ekimen sozioekonomiko berriei aholkularitza, prestakuntza eta akonpainamendua.
- 7.- Finantzazioa erraztea finantza etikoen sistema integral baten bidez, eta kredituaren birlokalizazioa sustatzea.
- 8.- Interkooperazioa, Tokiko Merkatu Soziala eta kontsumo arduratsua babestea.
- 9.- ESEk gizarte-behar guztiak hornitzeko aukera izan behar du, baita administrazio publikoenak ere.
- 10.- Enpresak berreskuratzea eta enpresa erreleboa.
- 11.- Zerbitzu publikoen udalekotzeak eta kooperatibizazioak.
- 12.- Burujabetzak: elikadura, energia, etxebizitza.
- 13.- Ezagutzaren gizartea demokratizatzeko, eremu publiko digitala kudeaketa komunitarioko gune gisa onartu behar da eta plataformako kooperatibismoa sustatu behar da.
- 14.- Udalerrien eraldaketa sozioekonomikoari buruzko kontakizuna sortu behar da.
- 15.- Ekonomiaren eraldaketa feminista.

Iturria: Olatukoop

Zerrendaturiko neurri horiek gure sailkapen teorikoko galbahetik pasaz, izaera leun eta sendoko neurrien bilduma osatu baten aurrean gaudela esan behar da.

---

<sup>8</sup> <https://olatukoop.eus/2019/11/15-neurri-udalerrietan-ekonomia-sozial-eraldatzailea-sustatzeko/>

Neurri leunen aldean, badira erakundetze mailan edo aitortza instituzionalean sakontzea eskatzen duten neurriak, nagusiki lehen hiruak: Ekonomia Sozial Eraldatzaileko Tokiko Kontseiluak eratzea, Tokiko Garapen Sozioekonomikorako Agentziak sortzea (edo daudenak ESE sustapenera bideratzea), Tokiko Sustapen Sozioekonomikoko zentroak eratzea, etab.

Neurri leunekin jarraituz, eremu kognitiboa landu nahi duten puntu ezberdinak ere badira, hezkuntzaren esparruan eragin nahi dutenak, kontakizun propioa sortzera bideraturiko neurriak edo ezagutzaren gizarte demokratizatzerara bideraturikoak, besteak beste.

Izaera sendoagoko politiketara jauzi eginez, marko teorikoan garaturiko esku hartze eredu gehienak jasota daude proposamen honetan. Erakundeen eskaintza indartzera bideraturiko neurriak badira (aholkularitza, prestakuntza, finantzazioa...), horiek eskari publikoarekin lotzeko neurriak ere bai (zerbitzu publikoen kooperatibizazioa, ondare kolektiboaren kudeaketa kooperatibo/komunala,...) eta baita ekintzailertzan edo enpleguan eragiten duten neurriak ere (ekintzailertzei akonpainamendua, enpresa transmisio eta erreleboak, ... ).

Bistakoa da, beraz, ekonomia solidarioko sareak tokiko mailan aplika litezkeen neurrien inguruko gogoeta eta identifikazio lan mardula egina zuela aurretik. Proposamen honek bat etortze maila handia erakusten du, halaber, Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederaziotik eginiko 10 neurriekin.

Udalerriak kooperatibizatzeke 10 neurriak, laburrean, hauexek lirarteke:

*Taula 7: Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioaren proposamena*

---

**UDALERRIAK KOOPERATIBIZATZEKO 10 NEURRI**

---

- 1.- Kooperatibismoa eragile sozioekonomiko gisa aitortzea
- 2.- Sustapen ekonomikoa ikuspegi kooperatiboarekin egitea
- 3.- Udal ekipamenduen kudeaketa kooperatibo edo komunitarioa
- 4.- Tokiko garapen kooperatiboa eta finantza etikoak
- 5.- Kooperatiben jarraikortasun enpresariala eta interkooperazioaren sustapena
- 6.- Erosketa publiko arduratsua eta ituntze publiko-soziala
- 7.- Tokiko ekonomiara irismena eta digitalizaziorako laguntzak
- 8.- Hezkuntza esparruan kooperatibismoaren sustapena
- 9.- Ikerketa eta garapen kooperatiboa
- 10.- Ekonomia feminista eta zaintzen demokratizazioa.

Iturria: Geuk moldatua esteka honetatik  
<https://www.cooperativestrebail.coop/sites/default/files/notas-prensa/arxiu/llibret10mesures.pdf>

Neurri guzti horiek, aldez edo moldez, jasoak agertzen dira XES saretik luzatutako proposamenean, zeinak agerian uzten baitu Kataluniako adibidearen beste elementu interesgarri bat: ekonomia sozialeko eragileen lanketa partekatu bat agenda bateratu batekin lan egiteko tokiko eragileekin batera. Dokumentu ezberdinen artean agertzen den sintonia handiak hori aditzera ematen duela esango genuke behintzat.

### **1.3.3. Harturiko neurriak: XMESS sarea eta PIESS (Bartzelona)**

Maila instituzionalean harturiko neurriek, esanda bezala, neurri handian erantzuten diete bai sektoretik bertatik eta baita tokiko garapeneko adituen aldetik ere egindako aurretiazko lan propositiboek.

Zentzu horretan, interesgarria da Boxaderrek (2014) egiten duen lehen bereizketa bati erreparatzea: estrategiak, ekintza ildoak eta tresna konkretuak. Esku hartze estrategiek lurralde politikak ekonomia sozialarekin lerratzea bilatzen dute, eta sei talde handitan banatzen ditu: ahalbidetu, piztu, erraztu, proiektatu, berritu eta trantsizioa bizkortu. Estrategia horien baitan ekintza ildo ezberdinak (sentsibilizazioa, laguntza tekniko edo ekonomikoa, lankidetzaren sareak, ...) eta tokiko kudeaketaren tresna propioak (aurrekontua, fiskalitatea, erosketa publikoa, gaitasun araugilea, hitzarmenak, ondare publiko eta munizipala...) barreiatu daitezke.

García Janék (2014) maila estrategikoan herri erakundeek ekonomia sozial eta solidarioko politika publikoak egiteko 6 modu nagusi identifikatzen ditu:

- Aldeko baldintzak sortzea, tokiko garapen eredua ESSko balioetan oinarrituz (lankidetzaren, elkarrekotasuna, elkartasuna, etab.)
- Baliabideak erraztea: informazioa eta prestakuntza, laguntza teknikoak, espazioen lagapena...
- Sentsibilizatu eta ezagutzera eman: ESS eredua gizarteratu hezkuntzaren esparruan, udaleko sail ezberdinetan...
- ESS baliatu zerbitzu publikoak eskaintzeko: erosketa arduratsuen bidez, udal zerbitzu ezberdinak azpikontratatu, etab.
- ESSko egitasmoetan parte hartu: kapital sozialean zein erabakitzeko guneetan, batik bat egitasmoen hastapen eta egonkortze faseetan
- Finantzazioa erraztu: diru laguntzen mekanismo tradizionalaz gain, bestelako eredu berritzaileagoak probatuz (*matchfunding*, finantza etikoak, etab.)

XMESS plataformak, 2017ko maiatzetik 32 udalerriren parte hartzearekin hasi eta egun dituen 41 udalerriko sare horren

baitan garaturiko ekintza ildo nagusiak jaso ditu 2019ko apirilean argitaraturiko praktika onen bilduman<sup>9</sup>.

Bertan agertzen denez, 2017-2019ko epealdian hiru ekintza ildo lehenetsi dira: lehena, udalerri mailako ESS erakundeak indartzea izan da, baliabideak partekatuz eta elkarrekin lan eginez (esperientzien bankua, jardunaldi teknikoak, etab.); bigarrena, harreman sarea hedatzea izan da, bai tokiko garapenean eragiten dute udalez gaindiko erakundeekin eta baita ESSko sare ezberdinekin ere; hirugarrena, sareak eginiko lanak ikustaraztean oinarritu da, bai parte hartzen duten udalerri guztietan bai bestelako lurralde esparruetan ere, horretarako diseinaturiko komunikazio plan batekin.

Ekintza ildo horiez gain, sare honen baitan garaturiko bestelako ekimenen artean, berebiziko garrantzia dute jarraian zehazten diren lau ekintzek:

- ESSko teknikariak prestatzea: udalerri mailan ESSko formazio espezifikodun teknikariak sustatu dira, horiek izan beharreko ezagutza eta konpetentziak ezartzeaz gain, helburu eta lan ildo konkretuen gida bat ere erraztuz.
- ESSko udal zerbitzua finkatu: udalerri mailan erakunde motorra izango den espazioa sortu da, *Regidoria de ESS* propioak sortuz, edo tokiko garapen sozioekonomikorako erakundeen azpi-talde gisa.
- ESS detektatu, ezagutu eta mapeatzeko tresnak garatu dira: mota guztietako behatoki, txosten, mapeo ariketen bitartez, udalerri bakoitzak duen ESS ehunaren gaineko diagnostikoa burutu ahal izan du.
- ESS esperientzien bankua: esperientzien bilduma hori, 5 politika publiko ereduren sailkapenarekin antolatu dute:
  - o Ezagutze eta planifikazio neurriak: ESS ezagutu, neurtu eta politikak ebaluatzeko neurri sorta;
  - o Neurri normatiboak: ESSko erakundeen funtzionamendua baldintzatzen duten arau eta zerga-sistemen marko legala;
  - o Ongarritatze neurriak: ESSko ekimen berriak sortzea ahalbidetuko duten epe ertain/luzeko neurriak
  - o Bultzatze neurriak: bi talde handitan banatuta, sentsibilizazio neurriak eta ekimen berriak sortu, egonkortu eta haztera bideraturikoak;
  - o Baliatze neurriak: lurralde bateko gizarte beharrian ezberdinak (etxebizitza, elikadura, mugikortasuna, zaintza, energia...) asetzeko ESSko erakundeak baliatzea.

---

<sup>9</sup> [https://xmess.cat/wp-content/uploads/2020/01/ABC\\_XMESS\\_Digital\\_GEN20.pdf](https://xmess.cat/wp-content/uploads/2020/01/ABC_XMESS_Digital_GEN20.pdf)

Sare horren baitan partekaturiko udalerrri mailako praktiken bilduma ezin interesgarriagoa izanik ere, ezin ukatuzkoa da Bartzelonako hiriburuan gauzatutako PIESS planak erreferentziazko tokia irabazi duela guztien artean.

Erreferentziazkoa tokia, arrazoi askorengatik: bai aurrekontu aldetik eginiko apustu eskuzabalagatik, bai duen ikuspegi integralagatik, bai izan duen ko-eraikuntza ereduagatik, ...Chavez-en irudiko (2019) plan honek haragiztatzen du ondoen bigarren belaunaldiko politika publikoen esentzia.

Plan horren baitan garaturiko lan lerro guztien analisi xehatuak guztiz gaintzen duen arren gure oraingo saioa, interesgarria deritzogu gutxienik ekintza ildo nagusien identifikazioa burutzea, baita bestelako kontsiderazio analitikoago batzuk burutzea ere atal hau ixteko.

Plana sarean da eskuragarri edonorentzat<sup>10</sup>, eta bertan zehazten den bezala, 6 ekintza lerro nagusitan eraikia izan da:

- 1.- Akonpainamendua eta prestakuntza
- 2.- Finantzazioa
- 3.- Interkooperazioa
- 4.- Komunikazioa
- 5.- Ekipamendu eta baliabideak
- 6.- Lurraldetzea eta ekintza komunitarioa

Sei ekintza lerro horien baitan garaturiko lan ildo konkretuak eta ekintza puntualak zenbatu ezinak dira, kasi. Konkretura jaitsi beharrean, abstrakziorako ariketa eginez, beraz, plan honetan garaturiko neurriak gure marko teorikoan ezarritako politika publiko mota guztiak barnebiltzen dituzte, kasu askotan modu berritzaileak proposatuz gainera. Horietan argiena izan liteke finantzazioaren kasua, diru-laguntzetarako partida eskuzabal bat ezartzeaz batera, bestelako neurri berritzaile sorta ugari ere probatu baitira, besteak beste: udala eta finantza etikoen arteko lankidetzaren egonkorrerako markoa ezartzea, udal zerga sistema mesedegarriago batean sakontzea, herritarrak zein EESko erakundeak eta finantza etikoak elkarlotzeko dinamikak sustatzea, etab.

---

10

<http://www.economiasolidaria.org/files/plaAltresEconomies.pdf>

PIESS delakoak ESS sustatzeko politika publiko mota guztiak barnebiltzen ditu, eta lau urterako onarturiko aurrekontu eskuzabal batekin lagundua izan da. Plan honen gauzatze eta lorpen mailaren ebaluazioa albo batera utziaz, haizu bekigu planaren diseinu eta egituratzeari dagozkion zenbait ezaugarritan gehiago sakontzea, orain artean landu dugun argudiatze lerroarekin oso bat baitatuz.

Planean jasoa datorren bezala, PIESS plana ESS eta udalaren arteko elkarrizketa gurutzatuaren emaitza izan da, arestian aipaturiko *bottom up* ereduari segiz. Elkarrizketa hori planaren fase ezberdinetan eman da gainera: hastapeneko ESSren gaineko diagnostikoa sektoreak berak egina da, ESStik egindako proposamen ezberdinak oso kontuan hartuak izan dira, PIESSa diseinatzeko prozesua bera ko-erakuntza prozesu gisa garatu nahi izan da, ESS eragileen parte hartzea ahalbidetzeko espazio eta dinamika ezberdinen bitartez...*Comissionat* deituriko udal organoak lidergoa eraman arren, prozesuan ESSko zein ekonomia kolaboratiboko erakunde ordezkari nagusiek izan dute hitza eta erabakia. Honez gain, ESSren gaineko errelatoa udal sail ezberdinen artean hedatu izana, eta herritarren parte hartze zuzena ahalbidetzeko kanalak erraztu izana ere agertzen dira planaren oinarrien artean.

#### **1.3.4. Harturiko neurrien interpretazio analitikoa**

ESStik eginiko proposamenak jaso eta abian jarri diren plan eta politika nagusiak aztertu ostean, atal honen itxiera Kataluniako kasuaren gerturatze analitiko batekin egingo dugu, honek jarraian garatzen dugu atal propositiboa hobeto ulertzeko parada eskainiko baitigu.

Azkenekotik hasiz, bistakoa da PIESS planak bete betean bat egiten duela arestian aipaturiko bigarren belaunaldiko politika publikoen lau ezaugarriekin (Chavez, 2019): harremanezko izaera, holistikoa, ekosistemikoa eta *mainstream* izatearena, hain zuzen ere.

Teorian bederen, plana ESSko erakundeekin batera eginiko ko-erakuntza prozesu batean oinarritu da (harremanezko izaera); *Comissionata* izan da plan horrek ikuspegi transbertsala, zeharkakoa eta holistikoa izan zezan bermatzeko ardura hartu duen udal erakunde berria, neurrien integritasuna bilatuz eta bestelako udal politikekin koherentzian mantentzea bilatuz. Gainera, bere bokazio ekosistemikoa agerian uzten du plana lurraldetzeko eta ekintza komunitarioan txertatzeko agerturiko borondateak.

PIESS planetik harago, Katalunia mailan XMESSaren baitan egindako politika publikoen ikuspegiak, lau esku hartze estrategiko talde handitan bilduko ditu García Janék (2019), gure atal propositiboan garatu dugun eskematik oso gertu daudenak: ongarritzea, ezagutaraztea, laguntzea eta baliatzea. Lehenak baldintza mesedegarriak bilatzea dute xede, bigarrenak ESS gehiago gizarteratzea, hirugarrenak ESS bera indartzea eta laugarrenak, ESSko egitasmoak lurraldeko gizarte beharrianekin lotzea.

Oro ez da urre, nolana ere, eta plan eta egitasmo horien ebaluazioa egiteko tenorea heltzen ari den honetan, García Janék (2019) aurreratzen ditu dagoeneko panorama orokor honetan atzemandako hutsune eta ahulguneetako batzuk. Soilik apuntatuko ditugu lurralde garapena eta politika publikoekin zerikusi hertsiena dituzten zenbait elementu:

- o Politiken ko-eraikuntza eta neurrien ko-kudeaketa maila apala izan da, argi geratu den arren eskema horien arabera gauzaturiko neurrien emaitzak hobekak direla.
- o Udal mailan lorturiko zeharkakotasun maila ere zalantzazkoa da, nahiz eta identifika litezkeen tokiko garapenaz gain, gizarte zerbitzuak, herritarren parte hartzea, ingurugiro politikak edo kontratazio mahaiak barnebildu dituzten dinamikak.
- o Erosketa publiko arduratsua burutzeko eskueran dauden tresnak ez dira behar beste garatu ESSren mesedetan, nagusiki kontratu erresebak egitea ahalbidetzen dutenak;
- o Udalak, *Ateneu Cooperatiuak* eta ESS lurralde sareen arteko artikulazio mailan zenbait disfuntzio eta bikoizketa antzeman dira, eragile bakoitzak bete beharreko funtzioaren inguruko gogoeta berrituak sortu dituztenak;
- o ESSak presentzia mugatu du, oraindik orain, tokiko garapenerako eta gizarte beharrianak asetzeko premiazkoak diruditen zenbait esparru eta kolektibotan (landa gunetan, oinarri teknologikodun industria eta zerbitzuetan, zaintza zerbitzuetan...) eta gainera, ekintzailtza berri asko ez dira kokatzen lurraldearentzat behar beharrezkoak diren jardueren adar horietan.
- o ESSari kostatzen ari zaio oro har, baretik haztea: lurralde beharrianetan funtsezkoak diren jardueretan (energia, etxebizitza, ura, finantza, ...) esperientzia erreferentzialak izan badiren arren, nekez lortuko dute horiek lurraldeko biztanleen gehiengoaren premiak asetzea, ezta epe ertain batean ere. Hortaz,

lankidetzta publiko-kooperatibo-komunitarioan oinarrituriko esperientzia berrietan sakontzea da premiazkoa.

- o Barnetik hazteaz gain, kanporantz egitea ere kostatzen ari zaio ESSri, bazterretatik haztea, hain zuzen ere: lurraldean gizarte eraldaketaren aliatuak izan daitezkeen horiek erakarritu (sindikatuak, enpresa ertain eta txiki arduratsuak, enpresa handietako soldatapeko langileak,...) eta lidergo argiagoa hartuz zenbait esparrutan: dela trantsizio ekologikoan, dela lan eta aberastasunaren banaketan, dela zaintzen esparruan, etab.

Ikasketa guzti horien emaitza da, zentzu batean, txosten honetan egiten dugun Udalgintza Eraldatzaileko eta Lurralde Burujabetzen proposamena: ekonomia soziala sustatzeko dauden politika publiko mota guztiak aktiba ditzaketen plan eta esku hartze ereduak abian jartzeko, bi gauza zaizkigu beharrezkoak, besteak beste:

- Alde batetik, esku hartze ereduaren eskema sinplifikatu bat gizarteratzea, udal zein lurralde mailan interesaturik egin daitezke eragile, teknikari, herritar etabarrak informatzen eta gaitzen joaten lagun dezakeena.
- Burujabetza sektorialen analisi xehatuagoa, ekonomia sozialak lidergoa har dezakeen esparru horietan sakontzeko, ekintzazailtza berriak jarduera horietara bideratzeko eta lurraldearen beharrezkoak ekonomia sozialeko logiketatik erantzuten joateko.



## **2. UDALGINTZA ERALDATZAILERAKO PROPOSAMENA: ATAL PROPOSITIBOA**

### **2.1. ESKU HARTZE EREDUEN PROPOSAMENA**

#### **2.1.1 Sarrera**

Jarraian garatuko dugun atalean, aurretiaz landuriko analisi teorikoan oinarri hartuz, udalgintza eraldatzailean eta lurraldeen burujabetzan sakontzeko Koopfabrikatik luzatu nahi den esku hartze ereduen proposamena xehatuko dugu.

Atal honen helburu nagusia, hortaz, esku hartze proposamen sinplifikatu bat garatzea da, lurralde eskala bakoitzean interesaturik egon litezkeen eragile ezberdinentzat (ordezkari publiko, teknikari, eragile sozioekonomiko, etab.) baliagarria izan litekeen materiala osatzeko esperantzan.

Gure proposamena aurretiaz landuriko politika publiko eta esku hartze proposamen ezberdinen sintesian oinarritzen da, eta hiru estrategia nagusitan antolatzen dira esku hartze ereduak: ekonomia soziala (ES aurrerantzean) ONGARRITZERA bideraturiko neurriak, lehenik; lurraldearen beharrezanean erantzuteko ESko formulak ERABILTZEKO neurriak, bigarren; eta ESko eragileekin lankidetzan tokiko garapen markoak ERALDATZERA bideraturiko neurriak, azkenik.

Laburbilduz, gure esku hartze ereduen proposamena, beraz, hiru estrategiatan sailkatzen da funtsean: ongarritu, erabili eta eraldatu.

Horietako estrategia bakoitzean jarduera ildo ezberdinak eta tresna konkretu anitzak aktiba litezke, eta antolakuntza erari edo gobernantza ereduari dagokionean, ESko eragileen, ehun komunitarioaren eta herri erakundeen artikulazio eta inplikazio maila ezberdinak konbina litezke. Proposamen honen logika izango da esku hartze ereduen aurkezpen ordenatua egitea, horien integritasunaren arabera gradazio maila ezberdinean antolatua, prozesu gradualtzat hartu litekeena.

Atal analitikoan landuriko aspektu zentralak laburbilduz zera esan genezake:

- Lurralde mailan ESko esperientziak sustatzeko abian jarri litezkeen mekanismoak ugariak dira.
- Mekanismo horien antolaketa, oinarritzko bereizketa bikoitz batetik abiatzen da. Bereizi behar lirateke:

- o Ekonomia sozialeko erakundeetara bideraturiko neurriak (eskaintza edo eskariaren aldetik) edo enpleguari eragiten diotenak;
  - o Politika leun eta sendoak horietako bakoitzean.
- Bestalde, jarduera ildoetara dagokienez, udalerrri kataluniarretan proposaturiko sailkapena baliatuko dugu abiapuntu gisa. Honen arabera, neurri ezberdinak har litezke:
- o ESE ezagutu eta ezagutarazteko
  - o ESE normatiboki garatzeko
  - o ESE ongarrizteko
  - o ESEko esperientzia berriak bultzatzeko (sentsibilizazioa eta ekintzazailtza)
  - o ESEko esperientzia baliatzeko lurralde beharrezkoak asetzeko;
- Sailkapen horri gehitu behar genioke bigarren belaunaldiko politikak ekarritako ikuspegi berrikuntza, politika publikoen gobernantza ereduak eragiten diena nagusiki, ez hainbeste baliaturiko tresnei. Politika berri horietan lurraldeko eragile ezberdinen artikulatze maila handiagoko ereduak hobesten dira, ESri eta tokiko mailari protagonismo berria eskaintzen zaiolarik.

Xehatu dezagun gure proposamenaren azalpena kasu konkretu baten gainean, esku-hartze logika nagusiak modu argiagotan ikustarazteko.

### **2.1.2. Esku hartze maila ezberdinen gradazioa.**

Hurrengo atalean gure proposamenaren aurkezpen orokorra burutuko dugun arren, sarrera bezala sektore konkretu baten gainean egin litezkeen esku hartzeen sailkapenak argitu lezake gure proposamen orokorraren muina.

Aipatu den bezala, gure proposamenean esku hartze ereduak horien integraltasunaren arabera gradazio batekin antolatzen dira. Integraltasuna diogunean zera esan nahi dugu: zein punturaino baliatzen diren politika publiko leun edo sendoak, modu isolatuan edo uztartuan (tresnak), eta zein punturaino antolatzen diren eragile ezberdinen artikulazio leun edo konplexuagoen bitartez (governantza).

Ikuspegi honen arabera, lehen maila batean leudeke tresna leunen bidez antola litezkeen gobernantza eredu sinpleko esku hartzeak, guztiak ere sektorea ongarrizera bideratuak.

Bigarren maila batean leudeke gobernantza eredu sinpleak mantendu baina politika publikoko tresna indartsuagoak, modu uztartuan, baliatzen dituzten esku hartzeak., denak ere ES erabiltzera bideratuak.

Azken maila batean, berriz, integraltasun mailarik handieneko esku hartze ereduak leudeke: tresna sendoak aktibatuz gobernantza eredu publiko-kooperatibo-komunitarioak baliatzen dituztenak, gure irudiko, eredu sozioekonomikoa eraldatzeko erreferente izan litezkeenak.

Jarraian sinplifikatzen ditugu hiru esku hartze ereduak eta horien osagai nagusiak:

*Irudia 2: Esku hartze ereduaren eskema sinplifikatua*



Iturria: geuk egina

Eredu horiek lurraldeko jarduera esparru konkretuetan nola bideratu ebaztea litzateke gure proposamenaren hurrengo urratsa.

Begien bistakoa da, herri erakundeek borondaterik handiena agertuta ere, jardute esparru guztiek ez dituztela *a priori* baldintza berdinak eskaintzen. Sektore batzuek, jar dezagun esaterako uraren kudeaketa, ESKo esperientzia gutxi izan ditzakete eta horietan ekintzailetza berriak sortzeko zailtasun teknikoak (hasierako kapital premia) egon litezke, eta hortaz, nekez planteatu litezke esku hartze eredurik konplexuenak.

Beste sektore batzuetan aldiz baldintza hobekak detekta litezke apustu konplexuagoak egiteko, besteak beste badiarelako ESKo esperientzia traktoreak eta sektoreak gizarte berrikuntzarako aukera asko ematen dituelako, adibideak ematen hasita elikadura, energian edo gizarte zerbitzuen kasuak izan litezke horietako batzuk (izan ere, lurralde burujabetzen proposamen atalean landuko direnak, besteak beste).

Gara dezagun gure proposamena esku hartzerako aukera handiak ematen dituen jarduera batean, gizarte zerbitzuen esparruan, hain zuzen ere.

Sektore honen diagnostiko oinarritzko bat eginez zera esan liteke: gizarte zerbitzuen alorrean tokiko mailak protagonismo osoa duela alde batetik, udalerriek izan ohi dituztelako eskuduntza batzuk, eta eginkizun dezentez gehiago.

EAEren kasuan 12/2008 gizarte zerbitzuen legeak marko normatibo egokia eskaintzen du gizarte ekimeneko eragileekin ituntze harremanak edo diskriminazio positiboko neurriak hartzeko. Gainera, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 legeak aukera berriak eskaintzen ditu, kontratu erreserbak egiteko bai laneratze enpresa eta enplegu zentro berezientzat, eta baita, kasu honetan, ekonomia sozialeko bestelako enpresa ereduentzat ere.

Hori gutxi balitz, sektorean elkartegintza mugimendu indartsuak atzeman litezke, erabiltzaileen elkarteek sustatuak (gehiago desgaitasunaren alorrean, baina baita pertsona nagusien eta adingabeen kolektiboetan ere).

Bada, halaber, ESKo enpresen kudeaketa esperientzia interesgarrien multzo bat ere, kudeaketa logika arruntenetatik (egoitzen edo etxez etxeko zerbitzuen kudeaketa kooperatiben bidez) esperimentazio berritzaileagoko formuletara (zaintza kooperatiba integralak osatzeko saioak Hernanin, Oiartzunen, Zizurkilen, etab.)

Eta azkenik, baina agian garrantzitsuena dena, gizarte beharrian agerikoak eta ase gabeak aurkezten dituen sektore baten aurrean geundeke, epe motz ertaineko joerek larriagotu ditzaketenak gainera: gizartearen zaharkitze prozesuek, pertsonen bakartze prozesuek, ehun komunitarioen eta sistema publikoen narriadura progresiboak, etab.

Itxura guztien arabera, gizarte premia larriak eta ondorioz, esku hartze aukera erraldoiak aurkezten dituen sektore baten aurrean geundeke. Galdera beraz hauxe litzateke: zer egin genezake sektorean ESKo esperientziak sustatzeko? Antola ditzagun erantzun posible batzuk gure esku hartze ereduen arabera.

Lehen maila batean ES ONGARRITZEKO neurriak leudeke. Eredu honen baitan, tresna leunak eta gobernatza eredu arruntak balia litezke, eta helburu nagusia ESKo esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak sortzea litzateke.

Plantea litezkeen neurri sortak zenba ezinak dira kasu honetan: ES ezagutu zein ezagutarazteko, normatiboki zein instituzionalki garatzeko, eta ES artikulatzeko neurri guztiak leudeke lehen maila honetan. Jar ditzagun adibide ezberdinak:

- Gizarte zerbitzuen esparruan diharduten ESKo eragileen mapeo bat eta esperientzien banku bat burutu;
- Esperientzi horiek gizarteratu: esperientziak partekatu eta trukatzeko mintegi eta jardunaldiak antolatu;
- Bestelako sentsibilizazio dinamikak antolatu, jendartean zaintzaren erronkak eta horien izaera kolektiboa barneratzen joateko;
- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak saretu: familiak edo kolektibo zaugarriak elkartu eta horien arazo partikularrak maila kolektiboan asetzeko aukeren inguruan sentsibilizatu eta ahaldundu;
- Erabiltzaile elkarteak edo kooperatibak sortzen lagundu;
- Udal mailan testuinguru instituzional egokiak sortu: sail ezberdinetako teknikariak prestatu, lan talde espezifikokoak sortu, kontratazio mahaietan zuzentarauak ezarri, etab.
- ESKo esperientziak sortzeko marko normatibo egokiak garatu: kontratazio publikoan kontratu erreserbak gauzatzeko protokoloak zehaztu, gizarte klausulak diseinatu, praktika onen gida-liburuak taxutu;
- Zaintza sare komunitarioak sustatu: borondatezko lanaren bitartez zaintza premiarik handienak dituzten pertsonen beharrianak asetzeko ehun komunitarioa antolatzen lagundu;
- Gizarte zerbitzuetako prestazioen onuradun diren familiak, udal zerbitzuren bat kontratatatu behar duten kasuan (eguneko zentro, etxez etxeko laguntza, zaintzaile baten

- kontratazioa...) lurraldean egon litezkeen ESko esperientzietara (elkarte, kooperatibak, ...) bideratu;
- Udal mailan zaintzen plataforma herritarrak sortu, erabiltzaileak, herri-erakunde konpetenteak (gizarte zerbitzuak, berdintasun teknikariak, sustapen ekonomikoko arduraduna) eta ESko eragileak elkartu eta politika publiko berritzaileak diseinatu eta planifikatzeko;
  - ...

Ikus litekeenez, lehen maila honetan neurri konkretuen zerrenda nahi beste luza liteke, amaiezina da hartu litezkeen neurrien kopurua, dugun zaintza eredu sostengaezinak sorturiko gizarte premien neurrikoa, dena esan behar. Nolanahi ere, lehen maila honetan soilik bilatzen da ESko esperientzia berriak sor daitezen baldintzarik egokienak sortzea, edo bederen, horiek garatzea oztopatzen duten elementuak ezabatzea. Lidergoa, kasu guztietan, herri-erakundeek hartuko lukete, zentzu guztiz gainera, horiek baitira, legez, gizarte zerbitzuetan eskaintako zerbitzuen kalitatearen bermatzaile nagusiak eta bakarrak.

Bigarren maila batean leudeke ES ERABILTZEKO neurriak. Gure eskemarekin jarraituz, multzo honetan barnebilduko lirateke herri erakundeen bultzadaz ES erakundeak indartzera bideraturiko neurri guztiak. Helburua, kasu honetan, ez litzateke esperientzia berriak sortzeko baldintzak erraztea, baizik eta dauden ESko esperientziak indartzea.

Politika publiko sendoak baliatuko lirateke horretarako, nagusiki bi: eskaintzaren aldekoak eta eskariaren aldekoak. Eskaintzaren aldetik, ESko enpresak indartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoko neurriak lirateke nagusiak. Eskariari dagokionez aldiz, zerbitzu publikoak eskaintzeko ESko enpresak baliatzea litzateke estrategia orokorra, honetarako dauden tresna normatibo guztiak erabiliz.

Neurriak apur bat gehiago xehatuz, eskaintzaren aldetik martxan jar litezke:

- ESko enpresei laguntza teknikoa eskaintzea;
- ESko enpresentzat hobari fiskalak garatzea;
- ESko enpresentzat finantzazio lerro propioak garatuz (laguntza zuzenak, krediturako abalak, etab.) eta berritzaileak diseinatzea, esaterako, finantza etikoko sareekin uztartuz, edo finantzazio herritarra eta instituzionala uztartzen dituzten dinamikak mahai gaineratuz (*matchfounding*)

Eskariaren aldetik, neurri ezberdinak hauexek lirateke:

- Udal ekipamenduak lagatzea ESren zerbitzura, esaterako, eta desiragarria den kasuetan, eguneko zentro edo zahar egoitza publikoak kooperatiba edo elkarten kudeaketarekin eskainiz, edota etxez etxeko zerbitzuetan eskaintza kooperatiboa duten ekimenak lehenetsiz;
- Kontratu publikoak ESko erakundeetara bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez.

Azken maila bat falta zaigu gure esku hartze proposamenean, gure irudiko eredu ERALDATZERA bideraturiko neurriek jasotzen dutena. Udalgintza eraldatzaile mota hau, eraldatzailea izango bada, gizarte berrikuntza nabarmenak barneratzen dituzten ekimenean oinarritzen delako izango da. Berrikuntza horiek, gure analisisan, bi esparruri eragiten diete nagusiki: baliaturiko tresnen izaera berritzailea, eta sorturiko gobernantza eredu berritasuna, bestalde.

Tresna berritzaileei dagokienean, politika sendoekin jarraituz, ES Erabiltzeko baliatzen diren neurriei (ESko erakundeei eragiten dietenak) ekintzaitzara bideraturikoak batuko genizkieke. Modu honetan, herri-erakundeak ESko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo bilakatuko lirateke, ez soilik baldintza egokiak erraztera mugatuz, prozesu horietan instituzionalki parte hartuz baizik.

Zentzu horretan, neurri ezberdinak hauexek lirateke:

- Ekintzaitza sozial eta kooperatiboko programa publiko eta dohainekoak eskaini udalerrian bertan (*Ateneu Cooperatiuen* moduan), edota dagoeneko martxan dauden mota honetako programetara (Koopfabrika, kasu) bideratu herritar ekintzaileak;
- Zaintza langileak erregularizatu eta kooperatibizatze dinamikak aktibatu: langile horiei beharrezko prestakuntza tekniko eta teorikoa eskaintzeaz gain, langile asko eta askoren egoera irregularrak konpontzeko formula kooperatiboaren tresna azaldu eta egikaritzen lagundu.
- Lan elkartuko edo izaera integraleko (erabiltzaile eta langileak uztartuz) kooperatiba horietan bazkide kolaboratzaile gisa parte hartu, kapital sozialean (eta ondorioz, erabakietan) parte hartuz; edo bestelako parte hartze motak arakatu: udal teknikariak kokatuz kooperatibako kontseilu errektorean, esate baterako;

Gizarte zerbitzuen ekintzaitza prozesuetan parte hartze aktiboa izateaz gain, neurriok eraldatzaile bihurtuko lituzkeen bigarren elementua, sorturiko ekimen berrien gobernantza eredu publiko-kooperatibo-komunitarioak definituko luke.

Modu honetan, eta berdin xamar izanik ere zein den baliaturiko tresna konkretua (dela hitzarmena, dela ituntzea, dela fundazio publikoa edo gizarte ekimeneko kooperatiba bat sortzea,...), tokiko garapeneko hirukia osatzen duten hiru erpinen parte hartzea formalizatuko luketen egiturak jarriko lirateke martxan:

- o Alde batetik, gizarte zibilak edo ehun komunitarioak hartuko luke parte, kasu honetan zerbitzuen erabiltzaileek, hau da, kolektibo zaugarriek eta horien familiek, nagusiki jardueraren diseinu eta planifikazioan;
- o Bigarrenik, ESKo enpresen parte hartzea bideratuko litzateke, zerbitzuaren planifikazio eta kudeaketan, batik bat. Kudeaketa eredu horietan, erabiltzaileen parte hartzea bermatzen duten egituren alde jo behar litzateke, esaterako kooperatiba integralen formula erabiliz eta erabiltzaileak organo subiranoen parte bihurtuz; edo bestelako eredu buruan, laneratze enpresak edo enplegu babestuko formulak baliatuz, adibidez, langileen parte hartzea hoberen bermatzen duten ereduak hobetsiz (lan elkarte edo lan kooperatibak);
- o Eta azkenik, herri-erakundeen esku hartzea legoke, aipaturiko funtzio guztietan (diseinu, planifikazio, kudeaketa) parte hartuz, gizarte zerbitzuak ardura publikoko zerbitzuak diren neurrian, eta horiei funtzio gehigarriak erantsiz: zerbitzuaren ikuskaritza eta kalitatearen kontrola, ezarritako gizarte helburuen betekizunaren eta herritarren eskubideen unibertsaltasunaren bermatzaile nagusi izaten jarraitzeko.

Elkargo publiko-kooperatibo-komunitario horiek izaera juridiko ezberdinak har litzakete, esanda bezala, baina funtsean "zaintza plataforma herritarren" ideia legoke, zaintza zerbitzuen kontrola herritarrek berreskuratzeko formulak espermentatuz, erabiltzaileak beraiek zerbitzuaren diseinuan parte hartuz, langileen lan eta bizi-baldintzak kolektibizazioaren eta parte hartzearen bitartez duinduz, eta herri erakundeen eskaintza publikoen gizarte berrikuntzak saiatuz.

Alternatiba eraldatzaile horien formulaziorik aurreratuenak litzateke "herritar kooperatiba integralen" proposamena, bereziki interesgarria izan litekeena populazio baxuagoko landa eremuetan planteatzeko. Ideia nagusia litzateke zerbitzu integralak eskaintzen dituen herritar plataforma edo kooperatiba bat sortzea, aipaturiko eragile guztien parte

hartzearekin, eta kooperatibak eskainitako zerbitzuen artean bat izatea gizarte zerbitzuen, baina plataforma bera baliatuz herritarren bestelako gizarte premiak ere modu kolektiboan asetzeko: dela garraio eta mugikortasun premiak, etxebizitzarenak, dela elikadurazkoak, hornidura elektrikoak, etab.

Nola egituratu liteke ideia hau? Esaterako, lursail publiko bat erreserba liteke *senior cohousing* ereduko etxebizitza kolaboratibo bat eraikitzeko, enpresa kooperatibo bati esleituz eraikuntza, eta eraikina bera erabilera-lagapen ereduko erabiltzaile kooperatiba baten bidez kudeatuz. Etxebizitza honetan zerbitzu komunak (jantoki, gizarte zerbitzu, aisialdi) lurraldeko bestelako ESko eragileen bitartez ase litezke: nekazal-ekoizpen agroekologikoko kooperatibak, catering eta banaketarako laneratze enpresak edo kooperatibak, aisialdi elkarteak, gizarte langile kooperatibak, etab. Azkenik, etxebizitzaren hornidura elektrikoa kontrata liteke energia berriztagarrien merkaturatzean diharduen ekimenen batekin.

Ikus liteke gizarte zerbitzuen edo zaintzen esparrua lursail ongarriritua dela asmamenerako, ugariak direnez oraingo ereduaren arrakalak, hainbatekoak baitira bestelako ereduak sortzeko aukerak. Erronka litzateke aukera horiek ugaritzen joatea lurralde mailako jarduera ezberdinetan, burujabetza sektorialen proposamenean sakonduz.

### **2.1.3. Esku hartze maila ezberdinen azalpena: ONGARRITU / ERABILI/ ERALDATU**

Arestian aipatu bezala, jarraian planteatuko dugun esku hartze ereduaren proposamenak, proposamen ireki eta malgua izan nahi luke, sektorez sektore eta jarduera adar bakoitzean aplikagarrienak eta desiragarrienak izan litezkeen neurriak hartzeko bidea erraztuko duen gida liburu baten itxuran.

Lurralde mailako jarduera guztiek ez dituzte aukera berdinak eskaintzen. Horietako batzuetan baliteke ESko esperientzia indartsuak egotea, trakzio lana egin dezaketena, edo ez egotea. Baliteke, bestalde, ekintzailatzarako marjina handia duten sektoreak izatea, edota kontrara, merkatu kopatuak izatea kasi, bizpahiru enpresa handik eskaintzen dutelako zerbitzuen gehien gehiengoa (sarrera kostuak handiak izanik, beraz). Baliteke, bestalde, normatiboki eta instituzionalki erraztasunak agertzea ESko esperientzia berriak agertzeko, edo alderantziz, oztopo politiko zein teknikoak agertzea horien garapenerako.

Esku hartze eredu bakoitzaren aplikagarritasunak, beraz, kontuan hartu beharko ditu lurralde eragileen aldekotasun garduaz gain, jarduera adar bakoitzak eskaintzen dituen aukera posibleak.

Horiek esanda, garatu dezagun bada gure proposamena<sup>11</sup>:

---

<sup>11</sup> Atal honetan aurkezten dugun esku hartze ereduen proposamen orokorrak eta neurri konkretuen zerrendak asko zor die lan hau osatzen berebiziko ekarpena egin duten aditu ezberdinei. Horiei guztiei eskerrak emateaz gainera, zerrenda ditzagun banan bana adituok:

- Sustapen kooperatiboa: Santi Merino, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko letratua.
- Gizarte zerbitzuak: Mikel Gorostizaga, Agintzari Talde Kooperatiboko lehendakaria.
- Tokiko garapena: Andoni Egia, Beterri-Buruntza eskualdeko udalerrietako tokiko garapen politiken teknikaria.
- Gizarte ekintzailletza: Beñat Irasuegi, Koopfabrika ekonomia sozial eta kooperatiboa sustatzeko programako kidea;
- Argindar sektorea: Olatz Azurza, Ingenieritza elektrikoan doktorea (UPV/EHU) eta Goiener Elkarteko lehendakaria
- Lehen sektorea: Mirene Begiristain, Ekonomia finantzarian doktorea (UPV/EHU) eta nekazaritza agro-ekologian aditua.
- Etxebizitza: Aitziber Etxezarreta, Ekonomia aplikatuan doktorea (UPV/EHU) eta aditua etxebizitza politiken eta etxebizitza kooperatiben gaian.

## Ongarritu

### ESrentzat baldintza egokiak sortu

- Tresna leunak: Instituzionalak eta kognitiboak
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Lehen eredu hau lurraldea ongarriztatzera bideraturiko neurri leunen multzoak osatuko luke, neurri instituzional zein kognitiboak, funtsean, ESko esperientziak hobeto detektatu, ezagutu eta ezagutaraztea helburu dutenak, jendarte mailan lurraldeko beharrizan ezberdinak asetzeko **ESko eragileen egokitasunaren inguruko pertzepzioa hedatu** dadin.

ESren gizarte aldekotasun hori lortzeko, dauden esperientziak hobeto ezagutu eta gizarteratzeaz batera, **parte hartzearen eta elkartegintzaren kultura sendoa duten herritar sare ezberdinak bultzatzea** litzateke biderik eraginkorrena, herritarrak elkarre, kooperatiba eta sare ezberdinetan artikulatzeko bideak

Lehen eredu honen baitan garatu litezke, beraz, honako jarduerekin zerikusia duten neurri multzoak:

- Ikerketa eta lurralde diagnostikoak: ESko eragileen detekzio eta mapeo ariketak, ESri buruzko kontakizun partekatua eraikitzeko dinamikak,
- Elkartruke, interkooperazio eta *networking* dinamikak: ESko merkatuak eta azokak, udal sareak, sare sektorialak,...
- Hedakuntza eta sentsibilizazio dinamikak orokorrak: jendaurreko aurkezpen, jardunaldi, mintegi, enkontruak, ...
- Hezkuntza maila guztietan egin litezkeen hedapen saioek: bigarren hezkuntzan, lanbide heziketan zein unibertsitate zikloetan.
- Erakundetzean sakontzeko neurriak: lan mahai eta taldeak, udal batzordeak, sail ezberdinez osaturiko batzordeak edo sail ezberdinetan eragiteko gaitasuna dutenak (Kataluniako udal *regidoriak* edo Bartzelonako *Comissionataren* tankeran);
- Udal teknikarien prestakuntza saioak ESaren inguruan: sail konkretuetan (sustapen ekonomikoa, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, parte hartzea, kultura, etab.) eta baita kontratazio mahaietako teknikariak ere.

- Ekintzailletza sozial eta kooperatiborako eta *coworking* dinamiketarako lokal edo ekipamendu publikoen lagapena;
- Kontsumo taldeak edo erabiltzaile elkarte edo kooperatibak sortzeko pizgarriak sortu;
- ....

Lehen ereduko neurri horiek edozein jarduera adarretan aktiba litezke baina bereziki interesgarriak izan litezke jendartean zerbitzu publikotzat jotako ongizate zerbitzuei loturiko jarduera adarretan: hezkuntza, etxebizitza, gizarte zerbitzuak... Helburua litzateke, kasu hauetan, eskaintza publiko zabal eta indartsu bat babesteaz batera, herrigintzaren esparruko dinamikak indartzea, zerbitzu horien kudeaketa komunitarioan sakontzeko lehen urratsak emanez.

Mota honetako zerbitzuen kanporatze edo externalizazio prozesuek, horiek ESko enpresen mesedetan izanda ere, oposizio politiko garrantzitsua ager lezakete jendarte mailan, funtsean, oinarritzko eskubideen pribatizazio prozesu gisa hautemanak izan bailitezke, horiek dituzten ondorio kaltegarri guztiekin (lan baldintzen narriadura, estalpen maila unibertsalaren kaltetzea, zerbitzuaren kalitatearen gutxitzea, etab. ). Sektore horietan, beraz, jendarte eraldaketaren bidean estrategiarik eraginkorrena litzateke hertsiki publikoki ematen jarraitzen diren zerbitzuak sare herritar auto-antolatu indartsuz osagarritzea, horiek zerbitzu komunitarioen lorratzean jartzeko.

Norabide horretan har litezkeen neurri konkretu inspiratzaile batzuk, jarduera adar ezberdinetan, hauexek izan litezke:

- Guraso elkarteek kudeaturiko jantoki eta haurtzaindegi zerbitzuak hezkuntza sektorean;
- Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen elkarte edo kooperatibak sortu, familia bakoitzak dituen beharrian espezifikoak komunean jarri eta erantzun mutualizatu eta kolektiboak pentsatzeko.
- Erabiltzaileen elkarteak edo kooperatibak sortzea etxebizitzaren gaian, ekipamendu dotazionalak *co-housing* formulen bidez kudeatu daitezten, edo promozio berriak ustiatze-lagapen kooperatiben mesedetan esleitzeko;
- Erabiltzaile elkarteak sortzea, argindarraren kontratazioa soilik energia berriztagarrien merkaturatzean diharduten kontsumo kooperatiben bitartez horni dadin;
- Finantza etikoko elkarteak sortzea udalerrietan, herritar aurrezkiak bertara bideratu eta ekimen sozioekonomiko eraldatzaileak finantzatzeko funts herritarrak sortzeko;

- Kontsumo taldeak sustatzea oinarritzko elikagaien eskaera tokiko produktu agroekologikoen sektorera bideratzeko;
- Ekoizle eta tokiko baserritarren beharrian ezberdinen mutualizazioa: hazi bankuak, banaketa, eraldaketa prozesuak, etab.

## Erabili

### ES indartu

- Tresna sendoak: ES erakundeetan eragin (eskari zein eskaintzan)
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Bigarren eredu honetan **lurraldean dagoen ESko enpresa-sarea indartzera eta baliatzera** bideraturiko neurriak barnebilduko lirateke.

Horretarako neurri sendoagoak aktibatuko lirateke, herri erakundeen inplikazio instituzionalari dagokionean: alde batetik, **ES erakundeak indartzera bideraturiko laguntza tekniko eta ekonomikoak** leudeke (eskaintzaren aldea) eta bestalde, erakundeon merkatua zabaltzera bideraturikoak, nagusiki **ondasun eta zerbitzu publikoen eskari publikoa ESko enpresen eskaintzaren**

Bigarren eredu honetan har litezkeen neurriak bi atal osagarritan banatu behar genituzke, alde batetik eskaintzaren aldeko politikak, ESko erakundeengan eragiten dutenak zuzenki, eta bestalde, eskariaren aldekoak, ESko jarduerarengan eragiten dutenak, hain zuzen ere.

Lehen horien artean, ESko eskaintza indartzeko neurrietan leudeke, besteak beste, honakoak:

- Udal mailako diru laguntza lerro edo programa espezifikoak garatzea
- Udalak eta finantza etikoko erakundeen arteko lankidetzak marko egonkor bat sortzea
- ESko enpresa eta finantza etikoko erakundeen arteko lankidetzak areagotzea
- Herritarrak eta finantza etikoen arteko harremanak sendotzea, kreditu herritarra tokiko eskalara lotzeko helbururekin
- Udal mailan zerga trataera berezituak garatzea ESko erakundeentzat
- Prestakuntza teknikoko zerbitzuak eskaintzea ESko erakundeetara
- Ekintzailak ekimen berriak ESko aholkularitza zerbitzuetara bideratzea

Bigarren multzoan, erosketa publiko arduratsuarena da tresna nagusia, nagusiki legeak ezartzen dituen hiru mekanismo nagusietan sakonduz:

- Azpikontrataturiko zerbitzuak ahalik eta lote kopuru handienetan banatzea, enpresa txiki eta ertainen mesedetan;
- Kontratu erreserbak baliatzea ESKo enpresen mesedetan
- Gizarte klausulak diseinatzea, ESKo enpresei berezkoak zaizkien balio eta printzipioetan diharduten enpresen balorazio hobeko baten mesedetan;

Bigarren ereduko neurri hauek hartzeak aurretiazko baldintza bat du: lurraldean ESKo enpresen sare bat existitzea, hain zuzen , zer sustatua izatea, alegia. Jarduera adarren batean "zer sustaturik" agertzen ez den kasuetan, bistakoa da hutsune hori ekintzailatza publiko zein pribatuko programa espezifikoeekin osatu behar litzatekeela. Honek hirugarren ereduko neurrietara gerturatuko gintuzke nahiz eta zaila izan ehun komunitario antolatu baten falta ere ager daitekeelako.

Neurri horiek, beraz, bereziki interesgarriak dira jadanik azpikontrataturik agertzen diren udal zerbitzuetan (kale garbiketa, garraioa, hondakinen bilketa eta trataera, argindarra, turismo eta merkatal zerbitzuak, etab.), bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, dagoeneko kanporaturiko zerbitzuak izanik, nolabait herritar berreskuratze prozesu gisa hauteman litezkeelako, oposizio politiko handiegirik izan gabe (ordura arte zerbitzuaren onuradun izan diren enpresen aldetik salbu); eta bestalde, jarduera adar horietako gehienetan ehun komunitario antolatu bat agertzen ez denez, eredu eraldatzaileagoak planteatzeko aukerak mugatuagoak baitira.

Norabide horretan har litezkeen neurri konkretu inspiratzaile batzuk, jarduera adar ezberdinetan, hauexek izan litezke:

- Kontratu erreserbak ezartzea laneratze enpresa eta enplegu zentro berezientzat udal zerbitzu ezberdinetan: kale garbiketentzat, hondakinen bilketa eta trataerarako, segurtasunerako, gizarte zerbitzuetarako, kultura eta aisialdirako, etab.
- Udal ekipamenduen hornidura elektrikoa energia berriztagarriekin diharduten kooperatibei kontratatzea;
- Argindar merkaturatzean diharduten erakunde publikoen jarduera zabaltzea banaketa kooperatiben bitartez;
- Babes ofizialeko lursailen promozio eta eraikuntza enpresa kooperatiboei esleitzea;
- Ekipamendu publiko ezberdinen jantoki zerbitzuak (eskola, haurtzaindegi, kiroldegi, zahar egoitza, ) tokiko ekoizpen agroekologikora bideratzea gizarte klausulen bidez;

- Hertsiki publikoak ez diren gizarte zerbitzuak hirugarren sektoreko enpresen bitartez hornitu, hitzarmen motako harremanetatik, kontratazio edo ituntze ereduera pasaz;
- Gizarte zerbitzuetako udal ekipamendu (eguneko zentro) eta zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, telelaguntza, etab) elkarte eta kooperatiben bitartez eman;
- Kiroldegietako langileen kooperatibizazio prozesuak sustatu;
- Eskola Kirola edo oro har eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten enpresetako langileen kooperatibizazioa bultzatu;
- Aisialdi zerbitzuetan diharduten elkarten kooperatibizazioa sustatu;
- Landa inguruko mugikortasuna hobetuko lukete garraio zerbitzu kolektiboak antolatu;
- .....

## Eraldatu

### Udalgintza eraldatzailea

- Tresnak sendoak: ES erakundeetan eta horien enpleguan eragin
- Gobernantza konplexua: elkargo publiko-kooperatibo-komuntarioak

Hirugarren esku hartze eredu honetan lurraldeko ESKo eragileak indartu eta baliatzeaz gain, **lurraldeko garapen ereduaren eraldaketan sakontzeko pausuak** ematen hastea litzateke xede nagusia, bizitzaren iraunkortasunaren paradigman.

Esku hartze horien izaera eraldatzailea, baliaturiko **tresnen berritasunak eta artikulaturiko mekanismoen gobernantza eredu partekatua**k bermatuko lukete. Tresnen kasuan, enpleguan eta ekintzailertzan modu aktiboan eragitea esan nahi luke, ekintzailertza sozial eta kooperatiboko programa konkretuak eskainiz, eta are, ekintzailertza ezberdinen kapitalean parte hartuz, zuzen zuzenean. Gobernantza ereduaren kasuan, eredu publiko-kooperatibo-komuntarioan sakontzea litzateke xede nagusia, hiru

Hirugarren esku hartze eredu honetan sakontzeko beharrezkoa litzateke lurraldeko eragileen engeiatze maila handiago bat, esku hartze mekanismoek konplexutasun maila handiagoa agertzen baitute, bai planteaturiko neurriei dagokienez, baita sorturiko dinamiken kudeaketari dagokionean ere.

Helburua, udal zerbitzuetatik zerbitzu komuntarioen logikara pasatzea litzateke, lurraldeko tokiko zerbitzu ezberdinetan herri erakunde, ekonomia sozialeko enpresa eta herritar antolatuen sareak uztartuz, eta eskaintza parte hartua eta partekatua garatuz. Honela, abiapuntuko eskema posible bat litzateke jabego publikoko ondasun, ekipamendu edo zerbitzuak, herritar sareen parte hartzearekin diseinatu eta planifikatzeko mekanismoak sortzea, azken buruan zerbitzua bera herritar horiek sorturiko enpresen bitartez, edo bestelako ekonomia sozialeko enpresen bitartez eskaini ahal izateko. Baina badira bestelako planteamendu posibleak ere: kooperatiba bat enpresa publiko baten kapitalean sartzea, herri erakunde bat kooperatiba edo laneratze enpresa baten kapitalean sartzea, etab.

Aparteko eredu gisa aurkezten dugu hirugarren hau, aurretiaz landuriko bi ereduaren gaintzea delako: erosketa arduratsuko

logikak gainditzen ditu herri erakundeen parte hartze handiagoa bilatzen duelako zerbitzua ematen duen enpresa-egituran, eta bestalde, lehen ereduko elkartegintza sustatzeko neurrien hurrengo urrats gisa planteatzen da, elkarte horiek zerbitzuaren diseinu, planifikazio eta eskaintzan buru belarri inplikatzeko direlako.

Hirugarren eredu honen baitan garatu litezke, beraz, honako jarduerekin zerikusia duten neurri multzoak:

- Ondare kolektiboaren kudeaketa kooperatibo eta komunaleko neurriak
- Ekintzaile sozial eta kooperatiboko programa espezifikokoak garatzea, lurraldeko ekintzaileei irekiak, eta prestakuntza eta akonpainamendu zerbitzuz osatuak;
- Enpresen berreskuratze eta transformazio kooperatiboko neurria gidatzea;
- Zerbitzu publikoen udalekotze eta kooperatibizazioak sustatzea;
- Eremu publiko digitalaren kudeaketa komunitarioa sustatzea, plataformako kooperatibismoaren bidez;
- ESrentzako erreferentziazko gune izango den udal ekipamendu baten eraikuntza edo birgaitzea;
- ...

Eskema honen baitan har litezkeen neurri sorta konkretuak, jarduera atal bakoitzean, honako hauek izan litezke:

- Landa guneetarako garraio kooperatiba publikoak
- Hezkuntza eredu publiko-komunitarioa garatzea: tokiko esparruan deszentralizatua, guraso komunitatearen parte hartze handiagoarekin, eta kooperatiba integral (langile eta erabiltzaile) bidez kudeatua;
- Zaintza kooperatiba herritarrak, herri-erakundeek parte hartuak (kapital zein erabakietan), eta kooperatiba integral bidez kudeatuak (langile eta erabiltzaile).
- Kultura, kirola, aisialdia, ostalaritza eta mota honetako udal zerbitzuen kudeaketa kooperatibo-komunitarioa: jarduera planen diseinu komunitarioa eta kudeaketa kooperatiboa, udalak lagatuko ekipamendu publikoetan.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren promozio kooperatiboa, ustiatze-lagapen ereduko kooperatibek kudeatuta.
- Sorkuntza elektrikoko planta publiko-kooperatiboak;
- Zerbitzu integraleko nekazal kooperatibak: kontsumoa saretu kontsumo taldeen bidez, ekoizpena kolektibizatu beharrian partekatutak mutualizatuz, denda kooperatiboa, ...
- Zerbitzu integraleko etxebizitza kooperatibak: erakuntzaz gain, espazio partekatuen kudeaketa komunitarioa, garraio eta zaintza premien kolektibizazioa, etab.





## **2.2. LURRALDE BURUJABETZA SEKTORIALEN PROPOSAMENA**

### **2.2.1. Sarrera**

Aurreko atalean, 1.2 atalean, esku hartze proposamen sinplifikatu bat garatu dugu, lurralde eskala bakoitzean interesaturik egon litezkeen eragile ezberdinentzat (ordezkari publiko, teknikari, eragile sozioekonomiko, etab.) Aurretiaz landuriko analisi teorikoan oinarrituz, udalgintza eraldatzailean eta lurraldeen burujabetzan sakontzeko esku hartze ereduen proposamena egin dugu.

Atal honen helburua, aldiz, esku hartze proposamen horren garapen edo aplikazio praktiko konkretua burutzea da, udal maila batean berebizikoak izan daitezkeen sektore konkretu hauetan: etxebizitza sektorean (bizitoki-burujabetza), lehen sektorean (elikadura-burujabetza), energia sektorean (energia burujabetza) eta gizarte zerbitzuetan.

Sektoreen zedarritzea burutzeko ondorengo prozesua jarraitu dugu:

1. Udal mailan esleituta dauden eskumenak zeintzuk diren identifikatzeko, Euskadiko toki erakundeei buruzko 2/2016 Legea aztertu da (17. Artikulua - Udalerrien eskumen propioak).
2. Hasierako 37 eskumen zerrendatik, izaera propioagatik administrazioko pertsonalak bere gain hartzen dituen eginkizunak direnak edo hornitze publiko eskusibokoak direnak baztertu dira, hau da, azpi-kontrataziorako aukerarik ez dutena.
3. Azkenik, nagusiki udal eskumeneoak diren eta merkataritza garapen zein azpi-kontratatuak izateko aukera gehien dituzten zerbitzuen zerrenda osatu da.

Prozesu horren ondorioz lortutako zerrenda, ondorengo taulan ikusgai:

Taula 8: Esperientzia Kooperatiboak/komunitarioak sustatzeko aukera ematen dezaketen tokiko zerbitzuak

Tokiko zerbitzuen zerrenda
ETXEBIZITZA
INGUREMENAREN BABESA (SENTSIBILIZAZIOA)
GIZARTE ZERBITZUAK/GIZARTERAZTEA/INMIGRAZIOA
HERRI-ERABILERA KO URA
ARGITERIA PUBLIKOA, BIDE-GARBIKETA, KALE-ZOLADURA, PARKEAK, JARDINAK
HERRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA ETA TRATAMENDUA
GARRAIO PUBLIKOA (LANDA EREMUA)
KIROL EKIPAMENDUAK
KULTURA EKIPAMENDUAK
UDAL-ONDARE HISTORIKOA BABESTEIA
TOKIKO TURISMOA (KUDEAKTEA AZPI-KONTRATAZIOA)
TOKIKO ENPLEGU PLANAK (KUDEAKTEA AZPI-KONTRATAZIOA)
HAUR-HEZKUNTZA: HAURTZAINDEGIA
SEGURTASUNA
ENERGIA
LEHEN SEKTOREA

Iturria: geuk egin.

Zerrendaren azterketa eginaz udal sustapen politikak martxan jartzeko aukera gehiago aurkezten dituzten 4 sektore identifikatu dira, zeinetan ekintza publikoak neurri gogorragoak eta konplexuagoak ezarri ditzakeela uste dugun.

Aukeratutako sektore horietan baldintza hauetako bat edo batzuk betetzen dira:

- Batetik, kooperatiben eta ESren forma ezberdinen sustapen politikak ezartzen errazten duen araudi espezifikoak duten sektoreak dira (etxebizitza eta gizarte zerbitzuak).
- Edo/eta bestetik, enplegu-nitxo berriak edo ESko ekintzailtzak sortzeko potentzialtasun handia duten sektoreak izanik, berrikuntza sozialerako marjina handia aurkezten duten sektoreak dira (gizarte zerbitzuak, lehen sektorea, energia, ...).
- Edo/eta azkenik, ESko esperientzia garrantzitsu asko dituzten sektoreak izanik, esperientzia horiek erreplikatzeko edo eskalatzeko aukera dutelako.

Ondorenean ikusi daiteke sektore estrategikoan behin-betiko zerrenda:

Taula 9: Ekintza publikorako aukera gehiago dituzten sektore estrategikoak

Ekintza publikorako aukera gehiago dituzten sektore estrategikoak
ETXEBIZITZA
GIZARTE ZERBITZUAK/GIZARTERATZEA/INMIGRAZIOA
ENERGIA
LEHEN SEKTOREA

Iturri: geuk egina.

Esku hartze proposamenaren garapen edo aplikazio praktikoko konkretua burutzeko, udal maila batean berebizikoak izan daitezkeen sektore konkretu hauetan ESren sustapenerako ekintza publikorako aukera ezberdinak zeintzuk diren aztertzeko arestian aipatutako 4 adituekin izandako elkarrizketaz baliatu gara.

Elkarrizketa horietan, udalentsako inplikazio maila instituzional zein finantzario baxuagoa eskatzen duten neurrien zein inplikazio zuzenagoa suposatzen duten neurrien arteko aukera praktikoko ezberdinak, batzuk bederen, mahai gainean jartzen saiatu gara.

## 2.2.2. Etxebizitza-burujabetza

### Sarrera

Etxebizitza-burujabetza edo bizitegi-burujabetza-erresidentziala ("*soberanía residencial*" Benitez et al, 2018) bere osotasunean aztertzeak, eremu publikoen kudeaketa, urbanismoa (hirigintza), bizitegi-parkearen egitura eta etxebizitza politika aztertzea dakar. Gure kasuan, etxebizitzaren problematikan zentratuko gara soilik, bizitzaren sostengarritasunerako eta zenbait giza behar gogobetetzeko ezinbesteko elementua den neurrian.

Etxebizitzen hornitze sistema zein den ezagutzea ezinbestekoa dugu, berau eraldatuta herrien eta lurraldeen jabetza eta eraldaketa kolektiboa helburu duen etxebizitza-burujabetza eskuratu nahi bada (Benitez et al, 2018). Beraz, sistema hori ezagutzeko eta sistema horretan udal mailan ESk izan dezakeen protagonismoa eta udal esku-hartze publikoak izan ditzakeen zenbait aukerak irudikatu nahi ditugu aurreko ataleko proposamenari jarraiki: etxebizitza sektorean ES ongarritzeko, erabiltzeko eta eraldatzeko neurriak irudikatu nahi ditugu, alegia.

Zentzu honetan bereizi genitzake etxebizitza eredu ezberdinak ESari (etxebizitza kooperatibari bereziki) lotuta egon daitezkeenak:

- Etxebizitza kooperatiba eredu tradizionala, zeinetan etxebizitza kooperatibak promozioak eta eraikuntza egiteko jaiak diren baina ondorengo jabego ereduak ez kooperatiboa izatera pasatzen direnak, pribatu eta indibiduala. "Soziorik gabeko kooperatibak izanda..." (Aitziber Etxezarreta).
- Lagatze eskubideko etxebizitza kooperatibak. Euskal Herrian gauzatu ez direnak oraindik baina Madrilen *Entreprios* eta Bartzelonan *La Borda* esperientziak sortzen ahal dute aurrekaririk. Lagatze eskubideko etxebizitza kooperatibak, "kooperatiba hauek ez dira formula juridiko transitorioak bezala erabiltzen, erreminta juridiko transitorio bezala abantaila fiskal batzuk lortzeko bidean eta nolabait promozio eta eraikuntza fasea merketzeko bakarrik, baizik eta gero ondorengo jabego ereduak lagapen eskubidean mantentzen dela ordun erabat desberdina da, zeren etxebizitza horiek

kooperatiba izateko bokazioa daukate, ez bakarrik eraikuntzan baizik eta etorkizunean " (Aitziber Etxezarreta).

Hala ere, Euskal herrian izan dira zenbait proiektu baina guztiz gauzatu ez direnak oraingoz, esaterako: *Housekide* Donostian<sup>12</sup>, Bilbon *Egunsentia*<sup>13</sup>, *Abaraska* Donostian<sup>14</sup>, ... Ez gauzatzearen arrazoietako bat: "hemengoek zailtasun handiagoak daukate ba EAeko etxebizitza eta lurzoru merkatua delako bereziki konplikatua" (Aitziber Etxezarreta).

- Co-housing, nolabaiteko erabiltzaileen elkartegintza eredia litzatekeena: "promozio eta konstrukzioa ez duzu zertan egin kooperatiba bide baina hori gestionatzen duena bai da elkarte bat, bai da erabiltzaileen elkarte, erabiltzaileen kooperatiba bat" (Aitziber Etxezarreta). Batzuetan, co-housingeko esperientzia horiek lagatze eskubideko etxebizitza kooperatibak formak hartzen dituzte.

Bereziki garrantzitsua da azkeneko bi eredutan sektore publikoaren laguntza, izan ere "lurzorua behar dute, edo lurzoru publiko baten erabilera lortzen dute edo ezin dute askotan bere proiektua aurrera eraman daukan kostu ekonomikoagatik ... Abokatuta daude partenariado bat izatera eta gutxienez, nolabaiteko soporte publikoa izatera, bestela huts-hutsean hemen ezin du aurrera joan" (Aitziber Etxezarreta). Hortaz, "EAEn daukagun lurzoru merkatu mugatu eta garestiekin beste edozein proiektu (dagoeneko kapital handia ez duena) asfiziitzen da ekonomiko-finantzario aldetik" (Aitziber Etxezarreta).

Gainera, kontuan hartu beharra dago sektore honetan tokiko mailak protagonismo handia duela, udalerriek izan ohi dituztelako eskuduntza eta eginkizun dezente arlo honetan. EAEn etxebizitza konpetentzian autonomia mailakoa bada ere, udalek lurzoruen kudeaketa dela eta asko eragiten dute/dezake sektore honetan. Are gehiago, lurzoruen birkalifikazioa eta eraikuntza zergak izan dira diru sarrera garrantzitsuak gurean.

---

<sup>12</sup> <https://sites.google.com/site/housekide/home/-que-es-housekide>

<sup>13</sup> <https://egunsentiaurora.wixsite.com/egunsentia>

<sup>14</sup> <http://abaraskaetxea.eus/#/>

## Ongarritu

### ESrentzat baldintza egokiak sortu

- Tresna leunak: Instituzionalak eta kognitiboak
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Lehen maila honetan ES ongarritzeko neurriak leudeke. Eredu honen baitan, tresna leunak eta gobernantza eredu arruntak balia litezke, helburu nagusia ESko esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak sortzea litzateke.

- Etxebizitza sektorean diharduten ESko eragileen mapeoa eta esperientzien bankua burutu;
- Eragileak eta esperientziak gizarteratu: esperientziak ezagutarazteko eta trukatzeko mintegiak bultzatu;
- Bestelako jabetza egiturak bultzatzeko sentsibilizazio eta komunikazio ekimenak bultzatu: co-housing edo/eta lagatzeko eskubideko etxebizitza kooperatibak.
- Erabiltzailea kooperatibak edo elkarteak bultzatu. Lan-elkartuko kooperatibak eta jabetza kolektiboko etxebizitza entitate kudeatzaileak sortzen lagundu.
- Sektoreko ES eragileen saretzea bultzatu, adibidez herriko etxebizitza kooperatibak BIZIKOOP - Etxebizitza Kooperatiben Federazioa - barruan elkartzeko.
- Etxebizitzaren sare komunitario sustatu: etxebizitza beharrian desberdinak dituzten pertsonen ehun komunitario antolatua osatzen lagundu: gazteak, seniorrak, etorkinak, ...

Ikus litekeenez, lehen maila honetan neurri konkretuen zerrenda nahi beste luza liteke, amaiezina da hartu litezkeen neurrien kopurua. Nolanahi ere, lehen maila honetan soilik bilatzen da ESko esperientzia berriak sor daitezen baldintzarik egokienak sortzea, edo bederen, horiek garatzea oztopatzen duten elementuak ezabatzea.

## Erabili

### ES indartu

- Tresna sendoak: ES erakundeetan eragin (eskari zein eskaintzan)
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Bigarren maila batean leudeke ES erabiltzeko neurriak. Gure eskemarekin jarraituz, multzo honetan barnebilduko lirateke herri erakundeen bultzadaz ES erakundeak indartzera bideraturiko neurri guztiak. Helburua, kasu honetan, ez litzateke esperientzia berriak sortzeko baldintzak erraztea, baizik eta dauden ESko esperientziak indartzea.

Politika publiko sendoak baliatuko lirateke horretarako, nagusiki bi: eskaintzaren aldekoak eta eskariaren aldekoak. Eskaintzaren aldetik, ESko entitateak indartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoko neurriak lirateke nagusiak. Eskariari dagokionez aldiz, zerbitzu publikoak eskaintzeko ESko entitateak baliatzea litzateke estrategia orokorra, honetarako dauden tresna normatibo guztiak erabiliz.

Eskaintzaren aldetik neurriak ondorengoak izan litezke:

- ESko entitateei laguntza teknikoa eskaintzea;
- ESko entitateei hobari fiskalak garatzea;
- ESko entitateentzako finantzazio lerro propioak garatuz (laguntza zuzenak, krediturako abalak, etab.) eta berritzaileak diseinatzea, esaterako, finantza etikoko sareekin uztartuz, edo finantzazio herritarra eta instituzionala uztartzen dituzten dinamikak mahai gaineratuz (*matchfunding*).

Eskariaren aldetik hauexek lirateke neurriak:

- Kontratu publikoak ESko erakundeetara bideratu babes ofizialeko, libreak eta lagatze eskubideko<sup>15</sup> etxebizitzaren

---

<sup>15</sup> Adibidez: Araubide orokorreko babes ofizialeko 146 etxebizitzaren (BOE) sustapen itundua, Donostiako a.300.1 TXOMIN ENEA erabilera-lagapeneko erregimenean [https://www.euskadi.eus/web01-s2ing/eu/contenidos/anuncio\\_contratacion/expjaso16380/eu\\_doc/eu\\_arch\\_expjaso16380.html](https://www.euskadi.eus/web01-s2ing/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso16380/eu_doc/eu_arch_expjaso16380.html)

promoziorako (ikus 3/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarria) eta eraikuntzarako, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez, beti ere lote txikiko sustapenetan zeinetan baldintza ekonomiko-fianatzaarioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.

- Aldi baterako bizitoki izan daitezen bai premia berezia duten kolektiboentzako bizitoki sozial bihurtu daitezen zuzkidurazko bizitokietarako lurzoruen kalifikazioa handitzea.
- Gutxieneko estandarrak eta kopuruak handitu zuzkidurazko bizitokietarako erreserbei dagokienez.
- ESri kontratu bidezko (klausula sozialak eta kontratu erreserbak erabiliz) aldi baterako bizitokien eta kolektibo konkretuei (gazteak, seniorrak, ...) zuzendutako zuzkidurako bizitokien kudeaketa lagatzea.
- ESko entitateei lurzoruen, eraikinen edo etxebizitzaren publikoen lagapena.<sup>16</sup>
- Ondasunen zuzen-zuzeneko besterentzea ES eskatzailea denean (ikus 2/2006 Etxebizitza Legeko 117.b artikulua).

---

<sup>16</sup> La Borda Lagatze Eskubideko Etxebizitza Kooperatibaren kasua (Bartzelonako La Bordeta auzoa, Sants) zeinetan udalak 75 urteko azalera-eskubidea bidez lurzoru lagapen bat esleitu dion (Benitez et al, 2018).

## **Eraldatu**

### **Udalgintza eraldatzailea**

- Tresnak sendoak: ES erakundeetan eta horien enpleguan eragin
- Gobernantza konplexua: elkargo publiko-kooperatibo-komuntarioak

Azken maila batean, gure irudiko eredua eraldatzera bideraturiko neurriek jasotzen duena da. Udalgintza eraldatzaile mota hau, eraldatzailea izango bada, gizarte berrikuntza nabarmenak barneratzen dituzten ekimenetan oinarritzen delako izango da. Berrikuntza horiek, gure analisian, bi esparruri eragiten diete nagusiki: baliaturiko tresnen izaera berritzailea, eta sorturiko gobernantza eredu berritasuna, bestalde.

Tresna berritzaileei dagokienean, politika sendoekin jarraituz, ES erabiltzeko baliatzen diren neurriei (ESko erakundeei eragiten dietenak) ekintzailetzara bideraturikoak batuko genizkieke. Modu honetan, herri-erakundeak ESko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo bilakatuko lirатеke, ez soilik baldintza egokiak erraztera mugatuz, prozesu horietan instituzionalki parte hartuz baizik.

Zentzu horretan, neurri ezberdinak hauexek lirатеke:

- Ekintzaile sozial eta kooperatiboko programa espezifikokoak garatzea, lurraldeko ekintzaileei irekiak, eta prestakuntza eta akonpainamendu zerbitzuz osatuak;
- Udal mailako etxebizitza plataforma herritarra sortu, erabiltzaileak, herri-erakundea (hirigintza teknikariak/arduraduna edo/eta kontu-hartzailea teknikariak/arduraduna) eta ES eragileak elkartuz, politika publiko berritzaileak diseinatzeko eta planifikatzeko;
- Izaera integraleko edo/eta zerbitzu integraleko (etxebizitza, zaintzak, garraioa, erreformak, ...) etxebizitza kooperatiba horietan (ES bestelako entitateetan) bazkide kolaboratzaile gisa parte hartu, kapital sozialean (eta ondorioz, erabakietan) parte hartuz; edo bestelako parte hartze motak arakatu: udal teknikariak kokatuz kooperatibako kontseilu errektorean, esate baterako;
- Zuzkidurarako bizitegi-erabilerarako etxebizitzaren kudeaketa publiko-kooperatibo-komunitarioa.
- Lurzoruaren hirigintza-antolamenduan etxebizitza plataformaren parte hartzea.

Etxebizitza sektoreak ekintzaitza prozesuetan parte hartze aktiboa izateaz gain, neurriok eraldatzaile bihurtuko lituzkeen bigarren elementua, sorturiko ekimen berrien gobernantza eredu publiko-kooperatibo-komunitarioak definituko luke.

### **2.2.3. Energia-burujabetza**

#### **Sarrera**

Energia-burujabetzak ("soberanía energética" Benitez et al, 2018) energiaren sorkuntzan eta banaketan herritarren parte-hartzea eta kontrola orokortzea suposatzen du. Zentzu horretan, energia berriztagarriak energia-burujabetza berreskuratze tresna ezin hobeak dira, edonork libreki lortu baititzake beti ere hori ustiatzeko teknologia eskuratzetik badu behintzat. Honek guztiak, energia ekoizpen zentralizatu batetik, energia ekoizpen deszentralizatu batera bidaiatzea ahalbidetuko luke, hau da, beste energia eredu batera igarotzea alegia: "Trantsizio energetikoa". Trantsizio energetikoaren prozesuak parte-hartze politiko zein soziala garatzeko forma berriak sortzeko aukera ezin hobe da, baita lurraldeen arteko erlazioak birdefinitzeko ere.

Gure kasuan, argindar energiaren problematikan zentratuko gara gehienbat, bizitzaren sostengarritasunerako eta zenbait giza behar gogobetetzeko ezinbesteko elementua den neurrian. Argindar energia hornitze sistema zein den ezagutzea ezinbestekoa dugu, berau eraldatuta herrien eta lurraldeen jabetza eta eraldaketa kolektiboa helburu duen energia-burujabetza eskuratu nahi bada. Beraz, sistema hori ezagutzeko eta sistema horretan udal mailan ESk izan dezakeen protagonismoa eta udal esku-hartze publikoak izan ditzakeen zenbait aukerak irudikatu nahi ditugu aurreko ataleko proposamenari jarraiki: energia sektorean ES ongarritzeko, erabiltzeko eta eraldatzeko neurriak irudikatu nahi ditugu, alegia.

Zentzu honetan bereizi genitzake energia sektorean dauden fase edo aktibitatea ezberdinak eta ESak (kooperatibak bereziki) duten edo izan dezaketen presentzia, legeak ahalbidetzen dutelako (ikus Sektore Elektriakoaren 24/2013 LEGEAREN 6. artikulua):

- Energia ekoizpena (sorkuntza): badira energia sortzen eta sarera (garraiorako eta banaketarako)<sup>17</sup> isurtzen duten ES esperientzia ezberdinak Euskal Herrian, nahiz eta ekoizpenaren %80 bost enpresa handien artean egon (oligopolioa):
  - o Kontsumitzaile kooperatibak: Kasu honetan ekoizpen energetikoa egiteko kontsumitzaileen inizatibaz eta inbertsioaz sortzen da kooperatiba, adibidez: NAFARKOOP Koop.Elk, ENERGIAREKIN Koop.Elk.<sup>18</sup> edo I-ENER iparraldean<sup>19</sup>.
  - o Lan-elkartuko kooperatibak: Kasu honetan ,aldiz, langileen (langileen-bazkideen) eskutik sortzen da hirugarrenei zuzendutako sorkuntza ekimenak egiteko eta kudeatzeko nahia, adibidez: Barrizar Koop.Elk., zerbitzu energetikoen kooperatiba.
  - o Ekimen publiko/kooperatiboak: Goiener Koop.Elk. Oñatiko ur jauzian duen parte-hartzea esaterako<sup>20</sup>.
- Energia garraioa: tentsio handiko energia garraiatzeaz arduratzen den fasea da. Kasu honetan, fasearen ustiapena REEren (Red Española de Energía)<sup>21</sup> eskutan dago legez ("monopolioa"). Bertan sektoreko enpresa askok parte hartzen dute akzio erosketa bidez, eta ES entitateak ahalko lukete baina ez dirudi oso egingarria, "oso urruti ikusiko nuke hori" (Olatz Azurza).
- Energia banaketa: tentsio ertain eta baxuko energia garraiatzeaz eta argindar energia kontsumo puntuetara iristea ahalbideratzen duen banaketaz arduratzen den fasea da. Kasu honetan ere banaketaren %80 bost enpresa handien artean banatua dago ("oligopolioa naturala") baina badira Euskal Herritik kanpo ES esperientziak (Valentzia eta Levante zonaldekoak esaterako<sup>22</sup>). "Barrera tekniko-legal bat dago ... banatzaileak zabaldu daitezkeela *teoría de la mancha de aceite*, horrek zer esan nahi du ... banaketa kooperatiba txiki batek hazi nahiko balu hazi beharko luke bere ondoan dauden espazioetan... bere sare propio egiten edo ondokoari erosten. Atal honek dauka beste zailtasun bat, inbertsio

---

<sup>17</sup> Gerta liteke sortutako energia sare orokorrera isurtzen ez duen autokontsumo ekimena izatea edo mikro-sare propio batean isurtzea.

<sup>18</sup> NAFARKOOP eta ENERGIAREKIN kooperatiben sorrera, bi kooperatiba (NAFARROAn eta EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOan, hurrenez hurren, lan egingo dutenak) energia berriztagarriekin erlazioatutako egitasmoak garatzeko GOIENEReko bazkideek eginiko inbertsioak bideratzen laguntzen dute <https://www.goiener.eus/eu/zer-da-goiener/>

<sup>19</sup> <https://i-ener.eus/>

<sup>20</sup> <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2625/energia-burujobetza-onatin>

<sup>21</sup> <https://www.ree.es/es>

<sup>22</sup> "garai batean enpresa publiko edo pribatuei interesanteen ez zaizkien tokietara ez zuten elektrizitatea bidaltzen, ordun bertako jendea antolatu zen beraien banaketa sarea edukitzeko" Adibide moduan SUMINISTROS ESPECIALES ALGINETENSES S.COOP.V." <https://www.electricadealginet.com/>

oso potenteak behar direla. Behar dituzu instalakuntza batzuk inportanteak, mantenua egiteko jende kualifikatua, ... hori sortzea hutsetik oso zaila da. ... baina etekin margen oso handia du ... merkaturatzeak duen %3a baino askoz ere gehiago" (Olatz Azurza)

Hala ere, gurean banaketa "Iberdrola distribución S.A.U." eskuetan dago nahiz eta izan badira jabetza publikoko banaketaz hornitzen diren herriak: Tolosa, Tolargi S.L.<sup>23</sup> udal entitatearekin; Oñati, Oñargi S.L.<sup>24</sup> udal entitatearekin; Leintz Gatzaga, LEINTZARGI, S.L.<sup>25</sup> edo Aramaio, Aramaio Argindar Banatzailea S.A.<sup>26</sup>. "Historikoki horrela sortu ziren eta beste gainontzekoek saldu egin dituzte beren instalazioak inguruan zen enpresari" (Olatz Azurza).

- Energia merkaturatzea: energia ekoizleak eta kontsumitzaileak bat egiten dituen fasea da. Energia merkatuan, edo zuzenean ekoizle konkretu batekin, bitartekaritza ekonomikoa egiten da alegia. Hau da, kontsumitzaileen edo/eta ekoizleen ordezkari bezala energia salerosketa, transakzio ekonomikoa, burutzen duen bitartekaria da merkaturatzailea. "Merkaturatzaile izateko oztopo nagusia da know-how: legedia eta sektorearen nondik norakoak ondo ezagutu behar dituzu" (Olatz Azurza). Hemen ere badira ES ekimen ugari gurean: EAEn, Goiener kontsumo kooperatiba; Nafarroan, E+P kontsumo kooperatiba eta Iparraldean ENARGIA kontsumo Kooperatiba. Baina ekimen publiko/kooperatiboak ere izan daitezke "Iruñan zein Bartzelonan ari dira bide hau jorratzen, merkaturatzaile publiko gehi beste kolaboratzaile batekin" (Olatz Azurza) baita publikoak soilik ere.

Garrantzitsua da fase guztietan sektore publikoaren laguntza edo/eta elkarlana, izan ere ekimen txikiak izanagatik ere aurrera atera ahal izateko hasierako inbertsioa handiak egin behar dira.

Sektore honetan "batetik, esku-hartzea Espainiako gobernuaren esku eta bakarrik bere esku, %80a dago bere esku, : legedia, araudi teknikoa, ... eta gero esku-hartzea egin dezakeen entitate publiko bakarra udaletxeak dira. ... Beste tarteko erakundeek, Foru Aldundiek zer egin dezakete, ba Ogasunen bitartez promozionatu kontsumitzaileak, industriak, komertzioa gauza batzuk egitera; erraztu ditzake egin beharreko tramiteak ... bulego bat irekiz laguntzeko: eta gero daude garapen

---

<sup>23</sup> <https://www.tolargi.eus/>

<sup>24</sup> [https://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/argindar-zerbitzua?set\\_language=eu](https://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/argindar-zerbitzua?set_language=eu)

<sup>25</sup> <http://www.leintzgatzaga.eus/antbuspre.asp?cod=874&nombre=874&nodo=&orden=True&sesion=1>

<sup>26</sup> <https://aramaio.eus/>

agentziak, sustatu ditzakete proiektu pilo bat eta kooperatiba motakoak edo bestelakoak" (Olatz Azurza). Gainera, kontuan hartu beharra dago sektore honetan tokiko mailak protagonismo baduela, udalerriak ekoizpen planten eta banaketa sareen jabeak izan daitezkeen neurrian baina baita energia kontsumitzaile diren neurrian ere. Hau da, bereziki garrantzitsua izan daiteke lehen eta azken faseetan sektore publikoaren laguntza.

## Ongarritu

### ESrentzat baldintza egokiak sortu

- Tresna leunak: Instituzionalak eta kognitiboak
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Lehen maila honetan ES ongarritzeko neurriak leudeke. Eredu honen baitan, tresna leunak eta gobernantza eredu arruntak balia litezke, helburu nagusia ESKo esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak sortzea litzateke.

- Energia sektorean diharduten ESKo eragileen mapeoa eta esperientzien bankua burutu;
- Eragileak eta esperientziak gizarteratu: esperientziak ezagutarazteko eta trukatzeko mintegiak bultzatu;
- Energia-burujabetza eta trantsizio energetikorako sentsibilizazio eta komunikazio ekimenak bultzatu.
- Argindar energia kontsumitzaileak elkartzeko kontsumo kooperatibak edo elkarteak bultzatu.
- Sektoreko ES eragileen saretzea bultzatu. Kapital bolumena hain garrantzitsua den sektorea honetan, herriko ekimenak dagoeneko existitzen direnekin elkartzea sustatu. Esaterako: EAEn, existitzen diren beste ESKin (ez dago euskal sarerik); estatu espainiarrean, Unión renovables<sup>27</sup> eta "Plataforma por un nuevo modelo energético"<sup>28</sup>; Europan, REScoop<sup>29</sup>
- Energiaren sare komunitario sustatu: energia beharrian desberdinak dituzten pertsonen ehun komunitario antolatua osatzen lagundu: gazteak, seniorrak, immigranteak, ... Pobrezia energetikoa ekidin eta mugikortasun elektrikoa sustatu.

Ikus litekeenez, lehen maila honetan neurri konkretuen zerrenda nahi beste luza liteke, amaiezina da hartu litezkeen neurrien kopurua. Nolanahi ere, lehen maila honetan soilik bilatzen da ESKo esperientzia berriak sor daitezen baldintzarik egokienak sortzea, edo bederen, horiek garatzea oztopatzen duten elementuak ezabatzea.

<sup>27</sup> <http://www.unionrenovables.coop/>

<sup>28</sup> <http://www.nuevomodeloenergetico.org/pgs2/index.php/main-page-list/adhesiones/>

<sup>29</sup> <https://www.rescoop.eu/>

## Erabili

### ES indartu

- Tresna sendoak: ES erakundeetan eragin (eskari zein eskaintzan)
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Bigarren maila batean leudeke ES erabiltzeko neurriak. Gure eskemarekin jarraituz, multzo honetan barnebilduko lirateke herri erakundeen bultzadaz ES erakundeak indartzera bideraturiko neurri guztiak. Helburua, kasu honetan, ez litzateke esperientzia berriak sortzeko baldintzak erraztea, baizik eta dauden ESko esperientziak indartzea.

Politika publiko sendoak baliatuko lirateke horretarako, nagusiki bi: eskaintzaren aldekoak eta eskariaren aldekoak. Eskaintzaren aldetik, ESko entitateak indartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoko neurriak lirateke nagusiak. Eskariari dagokionez aldiz, zerbitzu publikoak eskaintzeko ESko entitateak baliatzea litzateke estrategia orokorra, honetarako dauden tresna normatibo guztiak erabiliz.

Eskaintzaren aldetik neurriak ondorengoak izan litezke:

- ESko entitateei laguntza teknikoa eskaintzea;
- ESko entitateei hobari fiskalak garatzea;
- ESko entitateentzako finantzazio lerro propioak garatuz (laguntza zuzenak, krediturako abalak, etab.) eta berritzaileak diseinatzea, esaterako, finantza etikoko sareekin uztartuz, edo finantzazio herritarra eta instituzionala uztartzen dituzten dinamikak mahai gaineratuz (*matchfunding*).

Eskariaren aldetik hauexek lirateke neurriak:

- Hornikuntza elektrikoaren (argindar energia erosketari) inguruko kontratazio publikoak ESko erakundeetara bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez, izan lote txikiko sustapenak zeinetan baldintza ekonomiko-finantzarioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.
- Udal sorkuntza instalakuntzen eraikuntza kontratazio publiko bidez ES entitateei bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben

bitartez, izan lote txikiko sustapenak zeinetan baldintza ekonomiko-fianatzarioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.

- Udal sorkuntza instalakuntzen hornikuntza elektrikoaren kudeaketa ES entitateei bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez, izan lote txikiko sustapenak zeinetan baldintza ekonomiko-fianatzarioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.
- Udal banaketa instalakuntzen kudeaketa eta mantenua kontratazio publikoak ES bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez, izan lote txikiko sustapenak zeinetan baldintza ekonomiko-fianatzarioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.
- Udalerri batzuetan egiten den banaketa zerbitzua kooperatiba bidez zabaldu.

## **Eraldatu**

### **Udalgintza eraldatzailea**

- Tresnak sendoak: ES erakundeetan eta horien enpleguan eragin
- Gobernantza konplexua: elkargo publiko-kooperatibo-komuntarioak

Azken maila batean, gure irudiko eredua eraldatzera bideraturiko neurriek jasotzen duena da. Udalgintza eraldatzaile mota hau, eraldatzailea izango bada, gizarte berrikuntza nabarmenak barneratzen dituzten ekimenetan oinarritzen delako izango da. Berrikuntza horiek, gure analisian, bi esparruri eragiten diete nagusiki: baliaturiko tresnen izaera berritzailea, eta sorturiko gobernantza eredu berritasuna, bestalde.

Tresna berritzaileei dagokienean, politika sendoekin jarraituz, ES erabiltzeko baliatzen diren neurriei (ESko erakundeei eragiten dietenak) ekintzailetzara bideraturikoak batuko genizkieke. Modu honetan, herri-erakundeak ESko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo bilakatuko lirатеke, ez soilik baldintza egokiak erraztera mugatuz, prozesu horietan instituzionalki parte hartuz baizik.

Zentzu horretan, neurri ezberdinak hauexek lirатеke:

- Ekintzaile sozial eta kooperatiboko programa espezifikokoak garatzea, lurraldeko ekintzaileei irekiak, eta prestakuntza eta akonpainamendu zerbitzuz osatuak;
- Udal mailako energia plataforma herritarra sortu, erabiltzaileak, herri-erakundea (kontu-hartzailea teknikariak/arduraduna) eta ES eragileak elkartuz, politika publiko berritzaileak diseinatzeko eta planifikatzeko;
- Izaera integraleko edo/eta zerbitzu integraleko (energia sortuz, banatuz eta merkaturatuz gain, bestelako zerbitzu energetikoak ere eskaintzen dituzten) kooperatibetan (ES bestelako entitateetan) bazkide kolaboratzaile gisa parte hartu, kapital sozialean (eta ondorioz, erabakietan) parte hartuz; edo bestelako parte hartze motak arakatu: udal teknikariak kokatuz kooperatibako kontseilu errektorean, esate baterako;
- Energia sorkuntzaren, banaketaren eta merkaturatzearen kudeaketa publiko-kooperatibo-komunitarioa arakatu eta garatu.
- Energia plataformaren parte hartzea herriaren politika energetikoren definizioan, plangintzan eta exekuzioan.

Energia sektoreak ekintzailletza prozesuetan parte hartze aktiboa izateaz gain, neurriok eraldatzaile bihurtuko lituzkeen bigarren elementua, sorturiko ekimen berrien gobernantza eredu publiko-kooperatibo-komunitarioak definituko luke.

#### **2.2.4. Elikadura-burujabetza**

##### **Sarrera**

Elikadura-burujabetza (Elikadura Burujabetzarako Foru Mundialaren definizioan oinarrituz Benitez et al, 2018: 117) "modu iraunkor eta ekologikoan lortutako janari egokia, osasun eta kultura ikuspegitik, izateko eta bere elikadura eta nekazaritza sistema kolektiboa definitzeko pertsonen eskubidea" da.

Elikagai hornitze sistema zein den ezagutzea ezinbestekoa dugu, berau eraldatuta herrien eta lurraldeen jabetza eta eraldaketa kolektiboa helburu duen elikadura-burujabetza eskuratu nahi bada. Beraz, sistema hori ezagutzeko eta sistema horretan udal mailan ESk izan dezakeen protagonismoa eta udal esku-hartze publikoak izan ditzakeen zenbait aukerak irudikatu nahi ditugu aurreko ataleko proposamenari jarraiki: lehen sektorean ES ongarrizteko, baliatzeko eta integrazteko neurriak irudikatu nahi ditugu, alegia.

Zentzu honetan kontuan hartu behar dugu lehen sektoreko eskema: ekoizleak, banatzaileak, eta kontsumoa, hau da, "elikadura-katea: ekoizpena, banaketa eta kontsumoa. Eta horrekin lotuta, eta ikuspegi feminista batetik ere sartzen ari garelako, ere etxea. Etxea, etxea kontsumo espazioaz haratago, espazio propio bezala" (Mirene Begiristain). Beraz, fase edo aktibitatea ezberdinak eta ESak (kooperatibak bereziki) duten edo izan dezaketen presentzia aztertuko da ondorenean:

- Ekoizpena: ekoizpen kooperatiba gutxi. Izan dira erreferentziak, Uztaro Kooperatiba adibidez baina "ekoizleak elkarrekin gauzak egiteko zailtasun handiak dituzte. Oso begirada produktiboa dute, begirada partikularra dute eta kosta egiten zaie elkarrekin lan egitea eta ekoizpen proiektu kolektiboak eta kooperatiboak ereduan ez daude asko" (Mirene Begiristain). Badira zenbait esperientzia lurraldean: Behieko<sup>30</sup> esnekiak ekoizten eta merkaturatzen dituen , edo agroaldeak izan daitezke

---

<sup>30</sup> [http://www.behieko.com/eu/quienes\\_somos.asp](http://www.behieko.com/eu/quienes_somos.asp)

ekoizpen aldetik alternatiba komunitario/kooperatiboa ekoizle desberdinak biltzen dituen heinean. Kasu honetan, landa garapen elkarteak eskualdeetan bereziki, adibidez Behemendi<sup>31</sup> landa garapen elkarte Donostialdean, agroaldearen eredia bultzatzen ari dira.

Edozein kasutan, "... bada, administrazio publikotik ... ekoizpen begi kate honetan dago zailtasun nagusi bat, eta da lurra, lurra falta. Eta lurra falta hori da proiektu berriak sartzeko zailtasun handiena, eta udalak ez dira egon horri begira" (Mirene Begiristain). Are gehiago, baserritarren erretiro iristean, lurrak ez eskualdatzeko nolabaiteko pizgarriak dituzte eta ez da erreleboa gauzatzen. Izan ere, NPB -Nekazaritza Politika Bateratua- (PAC, gazteleraz) delakoaren diru-laguntza jasotzen jarraitu dezakete, diru-laguntza hektarea bakoitzaren jabetzagatik jasotzen baita. "Lur horiek askatzeko sortu behar dira baldintzak" (Mirene Begiristain).

Beraz, lurrak kolektibizatzeak arazoak ditu, "ez da hain erreza lurra lortzea, ba lur gutxi dagolako, administrazio publikoak dituen lurrak ere horretarako bideratzeko ez daukate ... lehen sektorea ez da estrategikoa ..." (Mirene Begiristain).

Dena den, ez da zertan dena kolektibizatu behar eta agian zerbitzu komunak kooperatibizatu/kolektibizatu daitezke, "bilatu behar dira formulak kolektibizatze gaia batzuk"<sup>32</sup> adibidez "... ekoizpenean produktu berrikuntza horretan, produktu berriak egiteko, freskotik eraldatura pasatzeko behar dituzte obradoreak, eta obradore horiek bakoitzak bere baserrian jartzeko sanidadeak jartzen dituen baldintzak oso zorrotzak dira eta inbertsioak ez daude beraien esku" (Mirene Begiristain).

- Banaketa edo merkaturatzea: hornikuntza unitateak sortzen dira (publiko edo semipubliko), elkartzen ari dira baserritarrak banaketa kanal desberdinak hornitzeko eta horrela berain merkaturatzea dibertsifikatzeko: jatetxeetara iristeko, eskoletara iristeko, ... banan-banakoan ezin dute. ENEEK (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua) inbertitzen du horretan, eta Elikagunea<sup>33</sup>, kooperatiba den denda bat Azpeitian, zein ERRIGORA ERRIBERA elkarte<sup>34</sup> lirakeke erreferentziak. Demanda mobilizatsetik sortutako eskalak

---

<sup>31</sup> <http://behemendi.eus/>

<sup>32</sup> Ekoizpenetik at dagoena baina behar konkretuen kolektibizate esperientzia den ALEKA elkarte (<https://www.aleka.eus/es/>) da. "Baserriar desberdinak dira hazien zaindaria, tokiko hazien zaindaria, tokiko haziak ez galtzeko eta ari dira kolektibizatzen hazitegi bat."

<sup>33</sup> <http://elikagunea.eus/>

<sup>34</sup> <https://www.errigora.eus/>

eta ez ekoizpen bolumenetik sortuta eskalak lortzeko helburuarekin sortutako esperientziak.

- Kontsumoa: eredu asko aurki daitezke zaharrenak Oreka, Azkoitian, eta Otarra, Astigarragan, kontsumo kooperatibak izandakoak. Eta gero badira berriagoak direnak, Landare<sup>35</sup>, Gasteizen, eta Bioalai<sup>36</sup>, Iruñan, kontsumitzaile elkarte handiak eta erreferenteak izan direnak, baita Labore<sup>37</sup> kontsumo kooperatiba ere (Oarsoaldean/Txingudin/Bilbon). "Eta, egon da azken 10 urteetan, ..., holako beste eredu bat, Lakari eredua ... dagoela gehiago lotuta ekonomia sozialari" (Mirene Begiristain). Azken kasu honetan, banaketan zein kontsumoan eragiten duten lan elkartuko kooperatibak dira eta ez kontsumitzaileen kooperatibak. "Ez dira ezer berria, EROSKI dira baina beste behar batzuk asetzera zuzenduak" (Mirene Begiristain).

Begi-kate guzti hauetatik kanpo badira ekoizleei bestelako zerbitzua teknikoak eskaintzen dizkieten esperientziak, Abelur<sup>38</sup>, Lurgintza<sup>39</sup> eta Biolur<sup>40</sup> kudeaketa zentroa lanak egiten dituztenak esaterako, zeienetan parte-hartze publikoa dagoen.

Sektore honetan Europa mailan erabakitzen baldin bada ere nekazaritza politika bateratua, udal mailak badu protagonismoa eskuduntza eta eginkizun dezente dituelako elikadura politikan, lurralde antolamenduan eta komertzioan/merkataritzan. Zentzu honetan aipatzekoak dira Elikadura Kontseiluak ("Consejos alimentarios"), nolabait tokiko elikadura estrategian eta politika publikoetan parte-hartze, erabakitze eta ebaluatze bideak ezartzen dituen mekanismoa (ikus Moragues, 2016)<sup>41</sup>.

Azkenik, tokiko mailak badu zer esanik eta "Gure udalen elikadura-burujabetzaren aldeko eskutitzean"<sup>42</sup> azpimarratzen den moduan (Benitez et al, 2018: 144): "zaintza eta bizitzaren erreprodukzioaren ikuspegi politikotik, elikadurak osasunean, kulturen eta ekonomian eta kulturen duen papera balioan jarri; naturarekin errespetuzko eta elkarrekikotasun erlazioak zein elikadura prozesuan herritarren parte-hartzea pizteko kanpainak sustatu" behar da.

---

<sup>35</sup> <http://landare.org/>

<sup>36</sup> <http://www.bioalai.org/>

<sup>37</sup> <https://labore.eus/>

<sup>38</sup> <http://www.abelur.eus/index.php?lang=es>

<sup>39</sup> <https://www.lurgintza.com/es/portada/>

<sup>40</sup> <https://www.biolur.eus/eu/inicio>

<sup>41</sup> Adibide moduan Baztango Udalak sortutako "Tokiko Elikadura Kontseilua"  
<https://www.argia.eus/albistea/tokiko-elikadura-kontseilua-sortu-du-baztango-udalak>

<sup>42</sup> REASen "Carta por la soberanía alimentaria desde nuestros municipios"  
[https://www.economiasolidaria.org/carta\\_soberania\\_alimentaria](https://www.economiasolidaria.org/carta_soberania_alimentaria)



## Ongarritu

### ESrentzat baldintza egokiak sortu

- Tresna leunak: Instituzionalak eta kognitiboak
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Lehen maila honetan ES ongarritzeko neurriak leudeke. Eredu honen baitan, tresna leunak eta gobernantza eredu arruntak balia litezke, helburu nagusia ESko esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak sortzea litzateke.

- Lehen sektorean diharduten ESko eragileen mapeoa eta esperientzien bankua burutu;
- Eragileak eta esperientziak gizarteratu: esperientziak ezagutarazteko eta trukatzeko mintegiak bultzatu;
- Elikadura-burujabetzarako sentsibilizazio eta komunikazio ekimenak bultzatu.
- Nekazal erabilerarako udal lursailen birkalifikazioa bideak arakatu eta garatu.
- Nekazal lursailak erosteko eta ES entitateei lagatzea helburu duten ekimenak bultzatu<sup>43</sup>.
- Kontsumitzaileak elkartzeko kontsumo kooperatibak edo elkarteak bultzatu.
- Komunak diren beharrezanean erantzuteko, ekoizleak elkartzeko kooperatibak edo elkarteak bultzatu: eraldaketarako, banaketarako, ...
- Sektoreko ES eragileen saretzea bultzatu, Euskal Herrian existitzen diren beste erreferentziazko ESekin, bereziki gertuagokoak direnekin.
- Elikadura sare komunitario sustatu. Elikadura sisteman parte hartzen dutenen beharrezan desberdinak dituzten eragileen ehun komunitario antolatua osatzen lagundu.

Ikus litekeenez, lehen maila honetan neurri konkretuen zerrenda nahi beste luza liteke, amaiezina da hartu litezkeen neurrien kopurua. Nolanahi ere, lehen maila honetan soilik bilatzen da ESko esperientzia berriak sor daitezen baldintzarik egokienak sortzea, edo bederen, horiek garatzea oztopatzen duten elementuak ezabatzea.

<sup>43</sup> Adibidez Lurzaindia Ipar Euskal Herrian: <http://www.lurzaindia.eu/index.php/en/>

## Erabili

### ES indartu

- Tresna sendoak: ES erakundeetan eragin (eskari zein eskaintzan)
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Bigarren maila batean leudeke ES erabiltzeko neurriak. Gure eskemarekin jarraituz, multzo honetan barnebilduko lirateke herri erakundeen bultzadaz ES erakundeak indartzera bideraturiko neurri guztiak. Helburua, kasu honetan, ez litzateke esperientzia berriak sortzeko baldintzak erraztea, baizik eta dauden ESko esperientziak indartzea.

Politika publiko sendoak baliatuko lirateke horretarako, nagusiki bi: eskaintzaren aldekoak eta eskariaren aldekoak. Eskaintzaren aldetik, ESko entitateak indartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoko neurriak lirateke nagusiak. Eskariari dagokionez aldiz, zerbitzu publikoak eskaintzeko ESko entitateak baliatzea litzateke estrategia orokorra, honetarako dauden tresna normatibo guztiak erabiliz.

Eskaintzaren aldetik neurriak ondorengoak izan litezke:

- ESko entitateei laguntza teknikoa eskaintzea;
- ESko entitateei hobari fiskalak garatzea;
- ESko entitateentzako finantzazio lerro propioak garatuz (laguntza zuzenak, krediturako abalak, etab.) eta berritzaileak diseinatzea, esaterako, finantza etikoko sareekin uztartuz, edo finantzazio herritarra eta instituzionala uztartzen dituzten dinamikak mahai gaineratuz (*matchfounding*).

Eskariaren aldetik hauexek lirateke neurriak:

- Elikagai hornikuntza inguruko kontratazio publikoak (Haurtzaindegi, zahar-etxe, kiroldegi, ... zerbitzuetarako) ESko erakundeetara bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez, izan lote txikiko sustapenak zeinetan baldintza ekonomiko-fianatzaioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.
- ESko entitateei elikagai ekoizpenerako lurzoru publikoen lagapena.

Lurralde burujabeak eta udalgintza eraldatzailea

- ESko entitateei beharizan kolektiboak asetzeko (eraldaketa, merkaturatze, ...) eraikin publikoen lagapena.

## Eraldatu

### Udalgintza eraldatzailea

- Tresnak sendoak: ES erakundeetan eta horien enpleguan eragin
- Gobernantza konplexua: elkargo publiko-kooperatibo-komuntarioak

Azken maila batean, gure irudiko eredua eraldatzera bideraturiko neurriek jasotzen duena da. Udalgintza eraldatzaile mota hau, eraldatzailea izango bada, gizarte berrikuntza nabarmenak barneratzen dituzten ekimenetan oinarritzen delako izango da. Berrikuntza horiek, gure analisian, bi esparruri eragiten diete nagusiki: baliaturiko tresnen izaera berritzailea, eta sorturiko gobernantza eredu berritasuna, bestalde.

Tresna berritzaileei dagokienean, politika sendoekin jarraituz, ES erabiltzeko baliatzen diren neurriei (ESko erakundeei eragiten dietenak) ekintzailetzara bideraturikoak batuko genizkieke. Modu honetan, herri-erakundeak ESko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo bilakatuko lirатеke, ez soilik baldintza egokiak erraztera mugatuz, prozesu horietan instituzionalki parte hartuz baizik.

Zentzu horretan, neurri ezberdinak hauexek lirатеke:

- Ekintzaile sozial eta kooperatiboko programa espezifikokoak garatzea, lurraldeko ekintzaileei irekiak, eta prestakuntza eta akonpainamendu zerbitzuz osatuak;
- Udal mailako elikadura plataforma herritarra sortu, erabiltzaileak, herri-erakundea (hirigintza teknikariak/arduraduna<sup>44</sup> edo/eta kontu-hartzailea teknikariak/arduraduna) eta ES eragileak elkartuz, politika publiko berritzaileak diseinatzeko eta planifikatzeko;
- Izaera integraleko edo/eta zerbitzu integraleko (sektorearen bagikate guztiak barneratzen dituen) kooperatibetan (ES bestelako entitateetan) bazkide kolaboratzaile gisa parte hartu, kapital sozialean (eta ondorioz, erabakietan) parte hartuz; edo bestelako parte hartze motak arakatu: udal teknikariak kokatuz kooperatiboko kontseilu errektorean, esate baterako;

---

<sup>44</sup> Udal askotan nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzarekin lotutako eskumenak sail horren baitan egoten dira.

- Elikadura sistemaren kudeaketa publiko-kooperatibo-komunitarioa arakatu eta garatu: Tokiko Elikadura Kontseilua.

Lehen sektoreak ekintzailletza prozesuetan parte hartze aktiboa izateaz gain, neurriok eraldatzaile bihurtuko lituzkeen bigarren elementua, sorturiko ekimen berrien gobernantza eredu publiko-kooperatibo-komunitarioak definituko luke.

#### 2.2.5. **Burujabetza gizarte zerbitzuetan:**

##### **Sarrera**

Gizarte zerbitzuen sektorea edo sistema zein den ezagutzea ezinbestekoa dugu, berau eraldatuta herrien eta lurraldeen jabetza eta eraldaketa kolektiboa helburu bada. Beraz, sistema hori ezagutzeko eta sistema horretan udal mailan ESk izan dezakeen protagonismoa eta udal esku-hartze publikoak izan ditzakeen zenbait aukerak irudikatu nahi ditugu aurreko ataleko proposamenari jarraiki: gizarte zerbitzuen sektorean ES ongarritzeko, erabiltzeko eta eraldatzeko neurriak irudikatu nahi ditugu, alegia.

Kasu honetan, sektorea erabat erregulatua dago 12/2008 Gizarte-Zerbitzuen legean eta bertan azken alor batean ekimen pribatuaren esku hartzea erregulatzen da (V. Titulua) (Etxezarreta et al, 2012):

- Zuzeneko kudeaketa ez den kasu guztietan, izan itun bidezko modalitatean ala izan zeharkako kudeaketako kontratazio modalitatean, legeak diskriminazio positiboko neurriak ezartzen ditu. Legeak hortaz, hirugarren sektoreko eragileak lehenesteaz gain, horiei egokitu izan zaizkien praktiketara gerturatzen diren gainerako enpresei ere zabaltzen die diskriminazio positiboko neurrien onuradun izateko aukera.
- Bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako erantzukizun publikoko zenbait zerbitzu eta prestazio irabazi-asmorik gabeko erakundeekin hitzarmen eta lankidetzak akordio bidez eskaintzea onartzen du (69, 70. artikulua).
- Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Katalogoan sartuta ez dauden beste prestazio eta zerbitzu batzuk sustatzeko legeak irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzat soilik diru-laguntzak emateko prozedura ezartzen du (73. artikulua).

Bestetik, gizarte zerbitzuetan sektorea oso zabala eta bere baitan dependentzia, gizarte bazterketa eta zaugarritasuna hartzen dituela, horrela banatu ohi da sektorea. "Normalean lotzen da eskusioa 18 urte gorakoentzako, dependentzia nagusientzako eta aniztasun funtzionalentzako, eta bestenentzako bestea" (Mikel Gorostizaga).

Egun bereizi genitzake ESari lotuta gizarte zerbitzuetan egon daitezkeen eredu ezberdinak:

- Erabiltzaileen elkartegintza: bereziki aniztasun funtzionalean esparruan badira erabiltzaileen elkarteak (ATZEGI, esaterako) "... edukiko luke zentzua, zergatik? Ba azkenean bizi proiektuak izaten direlako, zailtxoago ikusiko nuke nik adibidez zaintzako kooperatibak erabiltzaileekin osatzea ..." (Mikel Gorostizaga). Hirugarren sektorea, gizarte zerbitzuetan aritzen dena, elkarreez eta fundazioz osaturik daude. Sektorean elkartegintza mugimendu indartsuak atzeman litezke, erabiltzaileen elkarteek sustatuak (gehiago desgaitasunaren alorrean, baina baita pertsona nagusien eta adingabeen kolektiboetan ere). "Zergatik ez dituzte kooperatibak sartu? Euren giza kapitala erabat unibertsitario mailakoa da, kapital oso formatua da ... ba ez direlako pausuak eman, edo direlako planteamenduak ere ez direlako egin, ezagutzen ditut hirulau ari direla, galdetu izan digutela ..." (Mikel Gorostizaga). "Gehiago da ezjakintasuna, jendeak oso urruti ikusten du gizarte zerbitzuetan kooperatibizatzea bere lana, oso urruti. Gehiago da ezagutza falta, gehiago da erosoago bizi daitekeela non-profitean asalarialtu izaten, gehiago da militantzia neurri inportantea eskatzen duela "sin animo de lucro" izate horrek eta horko kooperatibako kide izatea, ez badiozu babesten balore batzuk erakusten. Guk (Agintzari Koop.Elk.) horregatik hiru urteko prozesua izan da ... Gurean parte-hartzearena klabe garrantzitsua da" (Mikel Gorostizaga).
- Gizarte ekimeneko ESak: Gizarte zerbitzuetan aritzen diren ESak gizarte ekimeneko mugimenduei oso lotuta daude gehienak, eta bertan gizarte ekimeneko kooperatibak kokatzen dira (Zabalduz<sup>45</sup> eta Koopera<sup>46</sup> esaterako). Azken finean, gizarte ekimeneko kooperatibek lotzen dute kooperatibismoa eta hirugarren sektorea. Hala ere, badira gizarte ekimenekoak ez diren beste kooperatiba batzuk ere, hirugarren sektorearen baitan

---

<sup>45</sup> <http://www.zabalduz.com/>

<sup>46</sup> <https://www.koopera.org/>

sartzen ez direnak, Mondragon Taldeko GSR<sup>47</sup> kooperatiba esaterako.

Bada, ESko enpresen kudeaketa esperientzia interesgarrien multzo bat ere, kudeaketa logika arruntenetatik (egoitzen edo etxez etxeko zerbitzuen kudeaketa kooperatiben bidez) esperimentazio berritzaileagoko formuletara (zaintza kooperatiba integralak osatzeko saioak Hernanin, Oiartzunen, Zizurkilen, etab.)

- Elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioa: parte-hartze publikoko kooperatiba mistoak posible dira baina ez dira ezagutzen gurean. Hala ere, formula ezberdinak irudikatu daitezke: "... begira ze parte-hartze polita den Administrazioak dakarren lokal bat bere kapitalaren ekarpena izatea lokal hori" (Mikel Gorostizaga). Instalazio/ekipamendu publiko baten kudeaketa kooperatibo/komunitarioa, jabetza publikoa baina gestioa kooperatiboa eta gainera kontseilu errektore horretan udal ordezkarien parte hartuta. "Nik horretan sinesten dut, eta ze abantaila dakar bestearekin konparatuta, kontrol publikoa. Ze gu ez gaude kontrol publikoan ez bada gure borondatearen arabera, guk nahi dugu" (Mikel Gorostizaga). Kontratatutako zerbitzuaren gaineko kontrola baia baina bestelakoetan ere: diruen erabilera, inbertsioan, ... Baina "klabea ez da Administrazioak parte hartzen duela, klabea da Administrazioak dakarren errekurtsio batean langileak ekarpen konpromisoa dakarrela ... da gehiagoa ziurtatzea dagoela bertan udala. ... Asuntua da ze bilakaera izan behar du horrelako zeozker, bilakaera izan behar du pribatu denetik publiko bihurtu, publikoa ez duzu kooperatibizatuko ... egin dezagun alderantziz, pribatu bat publikatu. Nik hor aukera handiak ikusten ditut, ez al da pausu bat kontrolerako?" (Mikel Gorostizaga). Beraz, arkatzeko, esperimentatzeko eta gauzatzeko esparrua da elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioa.

Gainera, kontuan hartu beharra dago sektore honetan tokiko mailak protagonismo handia duela, udalerriek izan ohi dituztelako eskuduntza eta eginkizun dezente arlo honetan. Baina, halaber, gizarte beharrian agerikoak eta ase gabeak aurkezten dituen sektore baten aurrean geundeke, epe motz ertaineko joerek larriagotu ditzaketanak gainera: gizartearen zaharkitze prozesuek, pertsonen bakartze prozesuek, ehun komunitarioen eta sistema publikoen narriadura progresiboak, etab. Horiek horrela, gizarte premia larriak eta esku hartze aukera handiak aurkezten dituen sektore bat dela esan genezake.

---

<sup>47</sup> <http://www.gsr.coop/>



## Ongarritu

### ESrentzat baldintza egokiak sortu

- Tresna leunak: Instituzionalak eta kognitiboak
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Lehen maila honetan ES ongarritzeko neurriak leudeke. Eredu honen baitan, tresna leunak eta gobernantza eredu arruntak balia litezke, helburu nagusia ESKo esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak sortzea litzateke.

- Gizarte zerbitzuen sektorean diharduten ESKo eragileen mapeoa eta esperientzien bankua burutu;
- Eragileak eta esperientziak gizarteratu: esperientziak ezagutarazteko eta trukatzeko mintegiak bultzatu;
- Bestelako jabetza egiturak bultzatzeko sentsibilizazio eta komunikazio ekimenak bultzatu: co-housing edo/eta lagatzeko eskubideko etxebizitza kooperatibak.
- Erabiltzailea kooperatibak edo elkarteak bultzatu.
- Gizarte ekimeneko ES entitateak, lan-elkartuko kooperatibak, sortzen lagundu.
- Sektoreko ES eragileen saretzea bultzatu.
- Gizarte zerbitzuen sare komunitario sustatu: gizarte zerbitzu beharrian desberdinak dituzten pertsonen ehun komunitario antolatua osatzen lagundu: adingabeak, pertsona nagusiak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, ...

Ikus litekeenez, lehen maila honetan neurri konkretuen zerrenda nahi beste luza liteke, amaiezina da hartu litezkeen neurrien kopurua. Nolanahi ere, lehen maila honetan soilik bilatzen da ESKo esperientzia berriak sor daitezen baldintzarik egokienak sortzea, edo bederen, horiek garatzea oztopatzen duten elementuak ezabatzea. Lidergoa, kasu guztietan, herri-erakundeek hartuko lukete, zentzu guztiz gainera, horiek baitira, legez, gizarte zerbitzuetan eskainitako zerbitzuen kalitatearen bermatzaile nagusiak eta bakarrak.

## Erabili

### ES indartu

- Tresna sendoak: ES erakundeetan eragin (eskari zein eskaintzan)
- Gobernantza arrunta: herri erakundeen lidergoa

Bigarren maila batean leudeke ES erabiltzeko neurriak. Gure eskemarekin jarraituz, multzo honetan barnebilduko lirateke herri erakundeen bultzadaz ES erakundeak indartzera bideraturiko neurri guztiak. Helburua, kasu honetan, ez litzateke esperientzia berriak sortzeko baldintzak erraztea, baizik eta dauden ESko esperientziak indartzea.

Politika publiko sendoak baliatuko lirateke horretarako, nagusiki bi: eskaintzaren aldekoak eta eskariaren aldekoak. Eskaintzaren aldetik, ESko entitateak indartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoko neurriak lirateke nagusiak. Eskariari dagokionez aldiz, zerbitzu publikoak eskaintzeko ESko entitateak baliatzea litzateke estrategia orokorra, honetarako dauden tresna normatibo guztiak erabiliz.

Eskaintzaren aldetik neurriak ondorengoak izan litezke:

- ESko entitateei laguntza teknikoa eskaintzea;
- ESko entitateei hobari fiskalak garatzea;
- ESko entitateentzako finantzazio lerro propioak garatuz (laguntza zuzenak, krediturako abalak, etab.) eta berritzaileak diseinatzea, esaterako, finantza etikoko sareekin uztartuz, edo finantzazio herritarra eta instituzionala uztartzen dituzten dinamikak mahai gaineratuz (*matchfunding*).

Eskariaren aldetik hauexek lirateke neurriak:

- Kontratu publikoak ESko erakundeetara bideratu, izan berariazko gizarte klausulak sortuz, izan kontratu erreserben bitartez, beti ere lote txikiko sustapenetan zeinetan baldintza ekonomiko-fianantzarioak eta teknikoak eskuragarriagoak diren ES entitateentzako.
- Udal ekipamenduen/instalakuntzen (eguneko zentro edo zahar egoitza esaterako) kudeaketa ESko entitateei lagatzea.
- Gizarte zerbitzuetako prestazioen onuradun diren familiak, udal zerbitzuren bat kontratatatu behar duten kasuan (eguneko

zentro, etxez etxeko laguntza, zaintzaile baten kontratazioa...) lurraldean egon litezkeen ESko esperientzietara (elkartek, kooperatibak, ...) bideratu.

## **Eraldatu**

### **Udalgintza eraldatzailea**

- Tresnak sendoak: ES erakundeetan eta horien enpleguan eragin
- Gobernantza konplexua: elkargo publiko-kooperatibo-komuntarioak

Azken maila batean, gure irudiko eredua eraldatzera bideraturiko neurriek jasotzen duena da. Udalgintza eraldatzaile mota hau, eraldatzailea izango bada, gizarte berrikuntza nabarmenak barneratzen dituzten ekimenetan oinarritzen delako izango da. Berrikuntza horiek, gure analisisian, bi esparruri eragiten diete nagusiki: baliaturiko tresnen izaera berritzailea, eta sorturiko gobernantza ereduen berritasuna, bestalde.

Tresna berritzaileei dagokienean, politika sendoekin jarraituz, ES erabiltzeko baliatzen diren neurriei (ESko erakundeei eragiten dietenak) ekintzaitzara bideraturikoak batuko genizkieke. Modu honetan, herri-erakundeak ESko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo bilakatuko lirateke, ez soilik baldintza egokiak erraztera mugatuz, prozesu horietan instituzionalki parte hartuz baizik.

Zentzu horretan, neurri ezberdinak hauexek lirateke:

- Ekintzaile sozial eta kooperatiboko programa espezifikokoak garatzea, lurraldeko ekintzaileei irekiak, eta prestakuntza eta akonpainamendu zerbitzuz osatuak;
- Udal mailako gizarte zerbitzuen plataforma herritarra sortu, erabiltzaileak, herri-erakundea (gizarte gaietako teknikariak/arduraduna) eta ES eragileak elkartuz, politika publiko berritzaileak diseinatzeko eta planifikatzeko;
- Izaera integraleko kooperatiba (erabiltzaileak eta langileak uztartzen dituen) horietan bazkide kolaboratzaile gisa parte hartu, kapital sozialean (eta ondorioz, erabakietan) parte hartuz; edo bestelako parte hartze motak arakatu: udal teknikariak kokatuz kooperatibako kontseilu errektorean, esate baterako;

Gizarte zerbitzuen ekintzailtza prozesuetan parte hartze aktiboa izateaz gain, neurriok eraldatzaile bihurtuko lituzkeen bigarren elementua, sorturiko ekimen berrien gobernantza eredu publiko-kooperatibo-komunitarioak definituko luke.



## **BIBLIOGRAFIA**

### **Erreferentzia bibliografikoak**

Bakaikoa, B. y Morandeira, J (2012). "El cooperativismo vasco y las políticas públicas", *Ekonomiaz-Revista Vasca de Economía*, 79: 234-263.

Benitez, I.; Gordillo, I.; Griera, C.; Idoate, E.; Lonch, Pau; Muntaner, C.; Ojeda, H.; Oliveros, J.; Padró, R.; Pérez, L.; Presas, O.; Urbano, X.; Vallet, I.; García, O.; Julio, G. eta Busqueta, J.M. (2018): *Soberanías. Una propuesta contra el capitalismo*. Zambra eta Baladre, Madril.

Chaves, R. (2009): "Las políticas públicas de fomento de la Economía Social en España y en Europa. En *Informe para la elaboración de una ley de fomento de la Economía Social en España*. CIRIEC-España, Valencia.

Chaves, R. (2010): "Las actividades de cobertura institucional: infraestructuras de apoyo y políticas públicas de fomento de la economía social», en: Monzón, J.L. (dir) (2010): *La Economía social en España en el año 2008*, Ed. CIRIEC-España, Valencia, 565-592.

Chaves, R. (2012): Las políticas públicas y las cooperativas, *Revista Ekonomiaz*, 79(01), 169-200.

Chaves, R. (2019): "La segunda generación de políticas de fomento de la economíasocial en España y en la Comunitat Valenciana. Un primer balance", in Fajardo, y Chaves, (dir): *La economía social en la Comunitat Valenciana: regulación y políticas públicas*, CIRIEC-España, Valencia.

Estela, E. (2014): "Hacia una política local innovadora en apoyo de la economía social y solidaria" in García Jané, J. (coord): *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Diputación de Barcelona, Barcelona.

Etxezarrtea, E.; Zurbano, M.; Bakaikao, B. (2012): Pribatizazioa ala (auto)kudeaketa komunitarioa? Euskadiko gizarte-zerbitzuen izaera mistoa eztabaidagai, *ZERBITZUAN*, 52, p. 45-62.  
<http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Zerbitzuan52.pdf>

Fajardo, G. (2019): "La regulación y fomento de la Economía Social en la Comunidad Valenciana a debate." in Fajardo, y

Chaves, (dir): *La economía social en la Comunitat Valenciana: regulación y políticas públicas*, CIRIEC-España, Valencia.

García Jané, J. (2014): "La caja de herramientas de la economía social y solidaria: reparar y construir" in García Jané, J. (coord):: *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Diputación de Barcelona, Barcelona.

García Jané, J. (coord): (2014): *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Diputación de Barcelona, Barcelona.

García Jané, J. [coord.], (2016), *21 propostes per fomentar l'economia social i solidària des del ajuntaments*, DIBA

García Jané (2019): "Balanz y reptes de les primeres polítiques públiques d'ESS", *Nexe Quaderns d'autogestió y economia cooperativa*, nº 44, 24-34.

Monzón, JL y Chaves, R. (2016): *Evolución reciente de la economía social en la Unión Europea*, Comité Social y Económico Europeo, Bruselas.

Moragues, A. (2016): Los Consejos Alimentarios. Una herramienta municipalista para la transformación del sistema alimentario.

<https://www.soberaniaalimentaria.info/images/estudios/consejos-alimentarios-moragues-final-web.pdf>

Morandeira, J. (2013): "El servicio público de fomento de la Economía Social en el País Vasco desde una perspectiva de orientación al mercado. Propuestas y acciones", Tesis-Doctoral, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia-San Sebastián.

Rebollo, O. (2014): "Construir una nueva política pública en torno a la economía social y solidaria" in García Jané, J. (coord): *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Diputación de Barcelona, Barcelona.

Subirats, J. (2014): "Notas sobre cambio de época y economía social. ¿Nuevas políticas de desarrollo local?" in García Jané, J. (coord): *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Diputación de Barcelona, Barcelona.

### **Webgunetako estekak**

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan\\_economia\\_social/eu\\_registro/adjuntos/Gizarte%20Ekonomiaren%20Zuzenaritzaren%20jarduketa-planak%20\(2017-2020\)\\_EU.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_economia_social/eu_registro/adjuntos/Gizarte%20Ekonomiaren%20Zuzenaritzaren%20jarduketa-planak%20(2017-2020)_EU.pdf)

<https://olatukoop.eus/2019/11/15-neurri-udalerrietan-ekonomia-sozial-eraldatzailea-sustatzeko/>

[https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/guia\\_politicas\\_publicas\\_ecoSol.pdf](https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/guia_politicas_publicas_ecoSol.pdf)

<https://olatukoop.eus/2019/11/15-neurri-udalerrietan-ekonomia-sozial-eraldatzailea-sustatzeko/>

<https://www.cooperativestrebball.coop/sites/default/files/notas-prensa/arxiu/llibret10mesures.pdf>

[https://xmess.cat/wp-content/uploads/2020/01/ABC\\_XMESS\\_Digital\\_GEN20.pdf](https://xmess.cat/wp-content/uploads/2020/01/ABC_XMESS_Digital_GEN20.pdf)

<http://www.economiasolidaria.org/files/plaAltresEconomies.pdf>

### **Jurisprudentzia**

12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.  
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2006/07/0603776a.pdf>

24/2013 LEGEA, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoarena.  
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2013/BOE-A-2013-13645-consolidado.pdf>

3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.  
<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/06/1502853e.pdf>

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/04/1601544e.pdf>

9/2017 LEGEA, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.  
[https://opendata.euskadi.eus/contenidos/ds\\_recursos\\_linguisticos/memo\\_kontratuena\\_legea/eu\\_def/adjuntos/9-2017\\_Legea\\_Sektore\\_Publikoko\\_Kontratuena.pdf](https://opendata.euskadi.eus/contenidos/ds_recursos_linguisticos/memo_kontratuena_legea/eu_def/adjuntos/9-2017_Legea_Sektore_Publikoko_Kontratuena.pdf)